“Azken arau-aldaketa: 2023/01/28”

# Bizkaiko Foru Aldundiaren 205/2008 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituena (BAO Urtarrilaren 7koa)

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga sistemaren printzipioak eta arau juridikoak ezarri ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena eman dio hura garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko. Ahalmen horretaz baliatuta, Foru Aldundiak ondokoak onetsi ditu: ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudia onetsi duena; ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen araubidea onetsi duena; ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretua, zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dituena; abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudia onetsi duena; abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko

Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bidezko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudia onetsi duena. Zergei buruzko Foru Arau Orokorra osorik garatu ahal izateko ezinbestekoa da zerga prozedurei buruzko arau orokorrak onestea eta kudeaketako jarduketak eta prozedurak araupetzea. Gainera, testu arauemaile bakar batean bildu behar dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arau Orokorra garatzeko emandako arau-xedapen guztiak.

Izan ere, zergak kudeatzeko egiten diren jarduketei eta prozedurei buruzko araudi orokorrik ez dagoenez, arlo horretako araudi batzuk onetsi dira hainbat gairi buruz: identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga zentsuei buruzko informazioa, eta aldizkako aitorpenen bitartez eman beharreko informazio orokorra (hirugarrenekin egindako eragiketei buruzkoa, esaterako).

Foru erakundeak sistematizatu nahiz, araudi honek arlo honetan orain arte indarrean egon diren hainbat arau antolatzen eta biltzen ditu, betebehar batzuez zerga batzuen arautegietan ezarritako arauak (erdiespen orokorra eduki behar dutenak) orokortzen ditu eta orain arte araupetu gabe egon diren betebehar formalak, batzuk sortu berriak, araupetzen ditu.

Horrela, lehenbizi zerga zentsuak araupetu dira, batez ere zerga zentsu batzuk araupetu dituen uztailaren 20ko 130/2004 Foru Dekretuan ezarritakoa oinarritzat hartuta. Oinarri horri, hala ere, berrikuntza garrantzitsuak txertatu zaizkio: hileko itzulketen erregistroa sortzea eta zergapekoen zentsuan agertu beharreko gutxieneko datuak gehitzea (pertsona fisikoenak zein pertsona juridikoenak eta erakundeenak).

Horrez gainera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboak haren kargatik salbuetsita badaude, berariazko aitorpenak barik zentsu aitorpenak aurkeztu ahal izango dira. Aldaketa honek urtebete barru sortuko ditu ondoreak.

Halaber, identifikazio fiskaleko zenbakiari buruzko arauak ezarri dira; honetaz egin da gauzarik garrantzitsuena indarreko arautegia (identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera eta hura erabiltzeko modua araupetu dituen urriaren 8ko 113/1996 Foru Dekretua eta pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei identifikazio fiskaleko kodea emateko prozedura ezarri duen maiatzaren 19ko 64/1998 Foru Dekretua) sistematizatzea izan da.

Informazio betebehar orokorrei dagokienez, Araudiko VI. tituluan orain arte hainbat xedapenetan araupetuta egon diren aitorpen informatibo batzuen aurkezpenari buruzko arauak ezarri dira. Ildo honetatik, ondokoei buruzko informazioa eman beharra araupetu da: hirugarrenekin egindako eragiketak; finantza kontuak, eragiketak eta aktiboak; erakundeen eraketa, ezarpena eta azkentzea; nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jardueren

ondoriozko diru-laguntzak eta kalte-ordainak; gizarte aurreikuspeneko sistemetara egiten diren ekarpenak. Ostera, ez da ezarri zerga batzuk berariaz ukitzen dituzten informazio betebeharrik, esaterako atxikipenen ingurukorik.

Honetan berrikuntza bat sartu da: oraindik aurrera erregistro liburuetako eragiketei buruzko informazioa eman beharko da, bai eta maileguei eta kredituei eta balore, aseguru eta errentei buruz ere, eta bazeuden informazio betebehar batzuk zabaldu dira, esaterako higiezinen eskuraketaren inguruko finantza eragiketei buruzko informazioa eman beharra (orain arte hipoteka bermedun maileguen berri baizik ez zen eman behar, eta Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren ordainketan soilik).

Azkenik, aipatu behar da araudi honetan ahalegin handiak egin direla zentsu egiaztapeneko jarduketa guztiak araupetzeko. Hain zuzen ere, arautegiaren ardatza identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzea edo zerga erregistroetan baxa ematea eragin dezaketen jarduketak zehaztea izan da, helburu nagusia iruzurraren kontra egiteko tresna eraginkorra edukitzea dela.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko abenduaren 22ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalei buruzko Araudiaren onespena.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen Araudia onetsi da.Foru dekretu honen eranskinean dago.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

### Bakarra. Informazio betebehar orokorrak

2008ko informazio betebehar orokorrak, 2009. urtean bete behar direnak, 2008ko abenduaren 31n indarrean dagoen arautegian ezarritakoari lotuta eskatuko dira.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

### Bakarra. Arau-indargabeketa

1. Foru dekretu hau indarrean jarritakoan ondokoak indargabetuko dira:

    a) 130/2004 Foru Dekretua, uztailaren 20koa, zerga zentsu batzuk araupetu dituena.

    b) 113/1996 Foru Dekretua, urriaren 8koa, identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera eta hura erabiltzeko modua araupetu dituena.

    c) 64/1998 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, pertsona juridiko eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei identifikazio fiskaleko kodea esleitzeko prozedura ezarri duena.

    d) 108/1996 Foru Dekretua, 1996ko irailaren 24koa, Bizkaiko Lurralde Historikokoa, hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena araupetu duena.

    e) 5/1995 Foru Dekretua, urtarrilaren 31koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aldarazi duena nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako atxikipen gabeko errenta nahiz konturako sarrera eta ordainketa zatikatuen zenbatekoari buruzko gaietan.

    f) 96/1989 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, pentsio plan eta funtsei, haien formula alternatiboei eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeei buruzko informazio betebehar batzuk ezarri dituena.

g) 15/2006 Foru Dekretua, otsailaren 14koa, Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoiliartutako pertsona fisikoek errenta batzuez informazioa eman beharra ezarri duena.

h) Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onetsi duen ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuko 53. artikulua.

i) Azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 97. artikuluko 1, 3, 5 eta 6. paragrafoak.

2. Halaber, foru dekretu honetan xedatu denaren aurka dauden lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak indargabetu dira.

## AZKEN XEDAPENAK

### Lehenengoa. Araudiaren gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beraren bidez onetsi den araudian xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

### Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondoreak.

## ERANSKINA

## I. TITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.

1. Araudi honek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ondoko zerga betebehar hauei buruz ezarritakoa osatu eta garatu du:

- Zentsu betebeharrak.
- Zerga egoitzari buruzko betebeharrak.
- Identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak.
- Zergen arloko erregistro liburuei buruzko betebeharrak.
- Informazio betebeharrak.

Gainera, araudi honek zerga betebehar formalak betetzen direnez egiaztatzeko jarduketak eta prozedurak araupetu ditu.

2. Araudi hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz aplikatuko da.

# II.TITULUA
# ZENTSU BETEBEHARRAK

## I. KAPITULUA
## APLIKAZIO EREMU SUBJEKTIBOA ZENTSU AITORPENETAN

### 2. artikulua. Nortzuek aurkeztu behar dituzten zentsu aitorpenak Bizkaian.

1. Enpresa-jarduerak edo lanbide-jarduerak Bizkaian egiten edo egingo dituzten pertsonek eta entitateek, bai eta atxikipena aplikatu behar zaien etekinak lortzen dituztenek ere, zentsu-aitorpenak aurkeztu behar dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari, baldin eta zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute edo, ez eduki arren, honako aitorpen edo autolikidazio hauetako bat aurkeztu behar badiote:

    - Atxikipenen eta konturako sarreren aitorpena.

    - Sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa.

    - Balio Erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa.

    - Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aitorpena. Dena dela, nahiz eta aitorpen hori aurkeztu beharrik ez izan, zerga horretatik salbuetsita daudelako, aitorpen hori aurkeztu beharko dute, jarduera egiteko lokalen bat badute Bizkaian.

    - Zerbitzu digital batzuen gaineko zergaren aitorpena.

2. Betebehar bera izango dute zerga egoitza Bizkaia Lurralde Historikoan duten errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeetako (nortasun juridikoa izan zein ez izan) kideek, baldin eta jarduera zerga egoitza Bizkaitik kanpo duen erakunde baten bidez egiten badute.

## II. KAPITULUA
## ZERGA ZENTSUAK: MOTAK

### 3. artikulua. Zentsu motak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunak zerga-zentsu hauek edukiko ditu:

    a) Zergapekoen zentsua.

    b) Enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen zentsua:

       Zergapekoen zentsua osatuko du.

    c) Batasunaren barruko eragileen erregistroa.

    d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko izulketen erregistroa.

    e) Enpresa handien erregistroa.

    f) Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien lurralde erregistroa.

    g) “TicketBAI” software bermatzailearen erregistroa.

    Aurreko c), d), e) eta f) letretako erregistroak enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuko osagai izango dira.

    Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuko datuen bidez, Ogasun eta Finantza Sailak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 119., 120. eta 121. artikuluetan aipatutako erakundeen indizea sortuko du.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunak lankidetza hitzarmenak sinatu ahal izango ditu toki erakundeekin zentsu informazioa trukatzeko.

3. Zerga zentsuetan agertzen diren pertsonek eta erakundeek araudi honetan aipatzen diren datuak jakiteko eskubidea dute, alegia, zentsuetan eurei buruz ageri diren datuen berri eduki dezakete. Horretarako, datuen ziurtagiria eskatu ahal dute. Aurrekoa eragotzi gabe, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean datuen lagapenerako eta haien berri emateko ezarritako mugak aplikatuko zaizkie datu horiei.

   Zergapekoek euren datu pertsonalak zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea dute, baldin eta oker badaude edo zerbait falta bazaie, datu pertsonalen babesari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.

## III. KAPITULUA
## ZERGA ZENTSUAK: SUBJEKTUAK

### 4. artikulua. Zergapekoen zentsua.

Zergapekoen zentsuan araudi honetako 26. artikuluan ezarritakoaren arabera zergen arloko harremanetarako edo zerga ondoreak dituzten harremanetarako identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar duten pertsonak eta erakundeak agertuko dira.

### 5. artikulua. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsua.

1. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan Bizkaiko Lurralde Historikoan ondoren azalduko diren jarduera edo eragiketetako bat egiten edo egingo duten pertsonak edo erakundeak sartuko dira:

   a) Enpresa edo lanbide jarduerak.

      Enpresaburu edo profesional izatea dakarten jarduerak dira, nekazaritzakoak, basogintzakoak, abeltzaintzakoak eta arrantzakoak barne.

      Araudi honetan xedatutakoaren ondoreetarako, enpresaburu edo profesionaltzat hartuko dira Balio Erantsiaren Zergari buruzko berariazko xedapenekin bat etorriz enpresaburu edo profesional direnak, nahiz eta zerga honen aplikazio lurraldetik kanpo jardun.

      Ez dira sartuko enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko lehengo idatz-zatiko 23. zenbakian ezarritakoaren arabera Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden higiezin-errentamenduak soilik egiten dituztenak, baldin eta errentamendua enpresa jarduera bati loturik ez badago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arautegian xedatutakoaren arabera. Halaber, ez dira sartuko zentsu horretan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluko lehengo bi idatz-zatietan xedatutakoaren arabera zerga hartatik salbuetsitako noizean behingo garraiobide berrien emateak egiten dituztenak eta foru arau bereko 26. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoa dela bide salbuetsitako Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak egiten dituztenak.

   b) Atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko errentak ordaintzea.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak, ez enpresabu ez profesional gisa ez dihardutenek eginak.

2. Aurrekoez gainera hauek ere sartuko dira zentsu honetan:

   a) Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 6. artikuluan xedatutakoaren arabera egoiliar ez diren pertsonak eta erakundeak, baldin eta zergaegoitza Bizkaian daukan establezimendu iraunkorraren bidez badihardute edo Bizkaian aurkeztu behar badute araudi honetako 2. artikuluan

aipatutako aitorpenetako bat, eta foru arau horretako 5. artikuluko c) paragrafoan adierazitako erakundeak.

b) Egoitza balio erantsiaren gaineko zerga aplikatzen den lurraldean ez duten pertsonak edo entitateak, baldin eta, zerga horren subjektu pasiboak izanik, beraren aitorpena aurkeztu behar badiote Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunari.

   Halaber, egoitza zerbitzu digital batzuen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean ez duten pertsonak edo entitateak, baldin eta, zerga horren subjektu pasiboak izanik, beraren aitorpena aurkeztu behar badiote Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Ogasunari.

c) Ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaian izanik Bizkaitik kanpo enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituzten pertsonak eta erakundeak, baldin eta zerga-betebeharrak badituzte Bizkaian jardun hori dela eta.

d) Nahiz eta artikulu honetan ezarritako betekizunetako bat bera ere bete ez, ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaian duten pertsonak edo erakundeak, baldin eta zergaegoitza Bizkaian duen eta errentak esleitzeko araubidean dagoen erakunde bateko bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide badira eta enpresa- edo lanbide-jardueraren bat egiten badute.

### 6. artikulua. Batasunaren barruko eragileen erregistroa.

Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartuko dira, hain zuzen ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga delaeta araudi honen 35. artikuluan zehazten den identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duten pertsonak edo erakundeak, baldin eta honako egoera hauetakoren batean badaude:

a) Batasunaren barruan zerga horren peko ondasunemateak edo ondasun-eskuraketak egingo dituzten pertsonak edo erakundeak.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 14. artikuluan aipatutako pertsonak eta erakundeak, baldin eta zerga horren peko ondasun-eskuraketak egingo badituzte Batasunaren barruan. Hala gertatzen denean, erregistro honetan sartzearekin batera, araudi honetako 35. artikuluan araututako identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko zaio pertsona edo erakunde eskatzaileari.

   Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 14. artikuluan aipatutako pertsonek eta erakundeek Batasunaren barruan egiten dituzten ondasuneskuraketak, foru arau horretan ezarritakoaren arabera, ez badaude zergapean, pertsona eta erakunde horiek Batasunaren barruko eragileen erregistrotik aterako dira, eta automatikoki ezeztatuko zaie araudi honen 35. artikuluan araututako identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez duten enpresaburuek edo profesionalek emandako zerbitzuen hartzaile diren enpresaburuak edo profesionalak, baldin eta zerbitzu-hartzaile direnak emaile direnen subjektu pasiboak badira.

d) Kokapen arauen arabera beste estatu kide batean emandakotzat jotzen diren zerbitzuak ematen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, subjektu pasiboa denean zerbitzuon hartzailea.

### 7. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko izulketen erregistroa.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera hileko itzulketaren prozedurarako eskubidea duten enpresaburuak eta profesionalak sartuko dira.

## 8. artikulua. Enpresa handien erregistroa.

Enpresa handien erregistroan aurreko egutegiko urteko eragiketen bolumena 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan duten zergapekoak sartuko dira, baita Zergaren aplikazio-eremutik kanpo dihardutenak ere (zenbatekoa Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 121. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz kalkulatu behar da).

## 9. artikulua. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroa.

Fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroan uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Zerga Bereziei buruzko Araudiko 40. artikuluan aipatutako pertsonak eta erakundeak sartuko dira. Erregistro honetan Zerga Berezien Araudian ezarritakoa aplikatuko da, eta hartan araupetu gabeko kasuetan araudi honetan zentsu betebeharrez xedatutakoa.

## 10. artikulua. TicketBAI software bermatzailearen erregistroa.

1. Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauen 122 bis eta 113 bis artikuluetan (hurrenez hurren) aipatzen diren ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen duen sistema informatikoari «software bermatzailea» deituko zaio, laburki, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudian.

2. Software bermatzailearen erregistroa softwarea garatzen duten pertsonek eta entitateek eta haiek garatutako softwareek osatuko dute, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru- arauetako 122 bis eta 113 bis artikuluetako 1. apartatuan (hurrenez hurren) xedatutakoa betetzen badute, eta artikulu horiek garatzeko Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen teknikoak eta funtzionalak betetzen badituzte.

3. Aurreko apartatuan aipatutako softwareak software bermatzailearen erregistroan inskribatu nahi dituzten pertsona eta entitate garatzaileek alta-adierazpena aurkeztu beharko dute.

   Alta-adierazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da, horretarako eskuragarri jartzen den inprimakia betez. Inprimaki horrek erantzukizunpeko adierazpen bat izango du, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak sinatu beharko duena. Bertan, honako baldintza hauek betetzen dituela adierazi beharko du:

   a) Inskribatzeko eskatzen den softwareak Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauetako 122 bis eta 113 bis artikuluetako 1. apartatuan (hurrenez hurren) xedatutakoa betetzen duela, eta artikulu horiek garatzeko Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen teknikoak eta funtzionalak betetzen dituela. Letra honetan aipatzen diren betekizunei dagokienez, alta-adierazpenarekin batera betekizunok betetzeko erabilitako prozedura teknikoak deskribatzen dituen memoria bat aurkeztu beharko da.

   b) Aurreko letran aipatutako deskripzio-memoria aurkeztutako alta-adierazpenarekin batera aurkeztu dela.

   c) Betebeharra duela aurreko a) letran aipatutako betekizunak eta baldintzak betetzen jarraitzeko, softwarea erregistroan inskribatuta dagoen bitartean, eta konpromisoa hartzen duela softwarea eskakizun eta baldintza horietan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko. Nolanahi ere, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak zerga-administrazioaren esku jarri beharko du letra honetan xedatutakoa betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa, hark hala eskatzen dionean.

Salbu eta pertsona edo entitate eskatzaileak horri buruzko desadostasun espresurik adierazi badu, erregistratutako softwarea Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean argitaratuko den zerrenda batean sartuko da.

Inskripzioak berekin ekarriko du inskribatutako softwareari lizentzia bat esleitzea. Lizentzia hori softwarea erabiliz sortzen diren Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauen 122 bis artikuluaren 1. apartatuko a) letran eta 113 bis artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren fitxategi informatikoetan sartu beharko da.

4. Erregistroan alta emateak ez du esan nahi zerga-administrazioak homologatuko duenik inskribatutako softwareak Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauetako 122 bis eta 113 bis artikuluetako 1. apartatuan (hurrenez hurren) xedatutakoa eta artikulu horiek garatzeko Ogasun eta Finantzen diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalak betetzea.

5. Zerga-administrazioak egiaztatzen duenean software bermatzailearen erregistroan inskribatutako software batek ez duela betetzen, batetik, Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru- arauetako 122 bis eta 113 bis artikuluetako 1. paragrafoan xedatutakoa, edota Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalak, erregistro horretatik kanpo utzi ahal izango du.

   Kanpoan uzteko prozedura ofizioz hasiko da; horretarako, txosten bat egingo da, eta bertan jasoko dira aurreko paragrafoan aipatzen den ez-betetzea eragin dezaketen egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak. Kanpoan uzteko prozedura hasteak ez du eragotziko zergadunek softwarea erabiltzea.

   Txosten hori zergapekoari jakinaraziko zaio, eta adieraziko zaio hurrengo hamabost eguneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezteko eskubidea duela.

   Zergapekoak aurkeztutako dokumentuak eta alegazioak aztertu ondoren amaitu ahal izango da kanpoan uzteko prozedura, arrazoi hauetakoren batengatik:

   a) Softwarea software bermatzailearen erregistrotik kanpo uztea agintzen duen ebazpena dela eta, ez-betetzea prozedura horretan zehar zuzendu ez denean.

      Kanpoan uztea softwarea garatzen duen pertsonari edo entitateari jakinaraziko zaio, eta hura erabiltzen duten zergadunei jakinaraziko zaie. Zergadun horiek ezin izango dute softwarea erabili kanpoan uztea jakinarazten zaienetik 3 hilabete igaro arte.

   b) Jarduketak artxibatzeagatik, prozedura izapidetzean agerian jartzen bada inguruabar hauetakoren bat ematen dela:

      – Prozedura hastea eragin duten egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak ez egotea.

      – Prozeduran zehar, prozedura hastea eragin duten egitateak, inguruabarrak eta gainerako elementuak zuzendu izana. Kasu horretan, softwarea garatzen duen pertsonak edo entitateak aldez aurretik egiaztatu beharko dio zerga-administrazioari zuzendutako softwarea bere bezeroen artean banatu dela, eta zerga-administrazioak hori egiaztatzeko jarduerak egin ahal izango ditu.

6. Elkarrekikotasunari dagokionez, betetzat joko da Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauen 122 bis eta 113 bis artikuluen 1. apartatuan (hurrenez hurren) xedatutakoa eta Ogasun eta Finantzetako diputatuaren foru-agindu bidez onartzen diren zehaztapen tekniko eta funtzionalak betetzen dituen software bat erabiltzeko betebeharra, zergadunek Arabako Foru Aldundiak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak gaitutako erregistro batean inskribatutako software bat erabiltzen dutenean,

baldin eta artikulu honetan aipatzen den software bermatzailearen erregistroaren baliokidea bada.

## IV. KAPITULUA ZERGA ZENTSUEN EDUKIA

### 11. artikulua.Xedapen orokorrak.

Zerga zentsuek datu hauek eduki behar dituzte nahitaez:

a) Deiturak eta izena edo sozietatearen izen osoa, eta anagrama, edukiz gero.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Zerga egoitza.

d) Behar denean, atzerriko egoitza.

### 12. artikulua. Zergapekoen zentsuaren edukia.

1. Zergapekoen zentsuan pertsona fisikoei buruzko datu hauek jaso behar dira:

    a) Izen-deiturak, sexua, jaioteguna, egoera zibila eta egoera zibilaren data.

    b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

    c) Beste herrialde batean dauden egoiliarren kasuan, bertako identifikazio fiskaleko zenbakia.

    d) Ez-egoiliarren kasuan, egoitza duten estatuko identifikazio fiskaleko zenbakia.

    e) Pasaportearen zenbakia, edukiz gero.

    f) Espainiako lurraldeko egoiliar den ala ez.

    g) Zerga egoitza eta higiezinaren zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia, aplikatu beharreko arautegiaren arabera datu hauek eman beharrik ez dagoenean izan ezik.

    h) Behar denean, atzerriko egoitza.

    i) Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez duten pertsonen kasuan, legezko ordezkariaren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa.

2. Zergapekoen zentsuan pertsona juridiko eta erakundeei buruzko datu hauek jaso behar dira:

    a) Sozietatearen izen osoa, eta anagrama, edukiz gero.

    b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

    c) Beste herrialde batean dauden egoiliarren kasuan, bertako identifikazio fiskaleko zenbakia.

    d) Ez-egoiliarren kasuan, egoitza duten estatuko identifikazio fiskaleko zenbakia.

    e) Egoitza Espainiako lurraldean duen ala ez.

    f) Espainian edo atzerrian eratuta dagoen. Atzerrian eratuta badago, zein herrialdetan zehaztu behar da.

g) Eraketa data eta, beharrezkoa bada, borondate akordioaren data eta erregistro publiko egokian inskribatu deneko data.

h) Eraketako sozietatearen kapitala.

i) Zerga egoitza eta zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia, aplikatu beharreko arautegiaren arabera datu hauek eman beharrik ez dagoenean izan ezik.

j) Behar denean, atzerriko egoitza.

k) Legezko ordezkaria edukiz gero, haren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa.

l) Erakundearen berariazko xedea bere funtsen adierazgarri diren partaidetzak, akzioak eta gainerako tituluak beste batzuei eskualdatzea dela eta ordura arte jarduera ekonomikorik egingo ez duela dioen adierazpena.

   Hori egin arte erakunde hauek ez dira sartuko 6, 7, 8 eta 9. artikuluetan aipatutako erregistroetan.

## 13. artikulua. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuaren edukia.

Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan, aurreko artikuluan aipatutako datuez gainera, pertsona edo erakunde bakoitzaren datu hauek agertu behar dira:

a) Egiten dituen enpresa edo lanbide jardueren zioz edo atxikipena edo konturako sarrera aplikatzen zaien errentak ordaintzeagatik aldian-aldian aurkeztu behar dituen aitorpenak edo autolikidazioak, araudi honetako 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

b) Zerga-egoera; ondokoak azaldu behar dira:

   1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluko idatz-zatiaren arabera Sozietateen gaineko Zergatik guztiz salbuetsitako erakundea denez.

   2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluko 2. idatz-zatiaren arabera Sozietateen gaineko Zergatik partzialki salbuetsitako erakundea denez.

   3. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko edo haren aplikazioari uko egiteko eskaera.

   4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenean Egiten jarduera ekonomikoen etekin garbia kalkulatzeko aplikatzen duen metodoa.

   5. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua hautatu duen, uko egin dion, ukoa ezeztatu duen edo hartatik salbuetsita dagoen.

   6. Zergapekoa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide orokorrean edo araubide bereziren batean dagoen.

   7. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo kutxa irizpidearen araubide berezian dagoen, uko egin dion, ukoa ezeztatu duen edo hartatik salbuetsita dagoen.

   8. Batasunaren barruko eragileen erregistroan dagoen edo baxa eman zaion.

   9. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan dagoen edo baxa eman zaion.

10. Enpresa handien erregistroan dagoen edo baxa eman zaion.

11. Fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroan dagoen edo baxa eman zaion.

12. ...

13. Egindako jarduera ekonomikoen sailkapena, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ondoreetarako erabiltzen den kodetze- sistemaren arabera; jarduera nagusia bereiz adierazi behar da.

14. Jarduera ekonomikoak egiten dituen establezimendu edo lokalen zerrenda, bakoitzaren datu hauek agertzen direla: autonomia erkidegoa, lurralde historikoa, probintzia, udalerria, helbide osoa eta katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa (kasuan kasukoa).

15. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 119. artikuluan aipatutako erakundeen zerrendan dagoen edo baxa eman zaion.

c) Jardueretan, batzuetan zein guztietan, erabiltzen duen telefono zenbakia; edukiz gero, helbide elektronikoa eta webgunearen izena edo helbidea ere bai.

**14. artikulua. Zentsu informazio osagarria enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan dauden pertsona fisikoetatik.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar direnei buruz Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar diren pertsona fisikoei dagokienez, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan zerga egoitza ez ezik administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza zentralizatuta dituzten tokia ere azaldu behar da, zerga egoitza bera ez bada.

**15. artikulua.Zentsu informazio osagarria enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan ageri diren erakundeetatik Bizkaian egoiliartuta ez daudenei eta Espainian eratu ez direnei buruz.**

Espainian egoiliartutako edo eratutako erakundeei dagokienez, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan datu osagarri hauek agertu behar dira:

a) Sozietateak egoitza badauka eta zerga egoitza bera ez bada, higiezinaren zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia.

b) Ekitaldi ekonomikoa itxi den eguna.

c) Erakundearen forma juridikoa edo mota.

d) Erakundea sortu edo sustatu duen bazkide, kide edo partaide guztien izen-deiturak (edo sozietatearen izan osoa), identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga egoitza. Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak salbu daudela, aurreko datu berak adierazi behar dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33.4. artikuluan aipatutako gainerako erakundeetako unean uneko kideez edo partaideez.Partaidetza kuota eratxikipen kuotarekin bat ez badator, biak zehaztu behar dira. Erakundeko kide edo partaideak ez badira egoiliarrak, haien zerga egoitza adierazi behar da, eta Bizkaian zerga ordezkaria badute, haren identifikazioa ere bai.

**16. artikulua.Zentsu informazio osagarria enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan dauden pertsona edo erakundeetatik Bizkaian egoiliartuta ez daudenei edo Espainian eratu ez direnei buruz.**

1. Bizkaian egoiliartuta ez dauden edo Espainian eratu ez diren pertsona eta erakundeak enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan egon behar badira, beraiei buruzko datu osagarri hauek agertu behar dira:

a) Egoitza dagoen estatua edo lurraldea.

b) Nortasun juridikorik gabeko erakundearen naziotasuna eta forma juridikoa edo mota, beraren nazio zuzenbidearen arabera.

c) Ordezkaria edukiz gero, haren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, anagrama eta guzti, egonez gero, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga egoitza eta naziotasuna.

2. Egoiliar ez den pertsona edo erakunde batek establezimendu baten bidez badihardu, edo jarduera nabarmen desberdinak egiten diren eta bereiz kudeatzen dituen establezimendu batzuen bidez, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 17. artikuluan xedatutakoaren arabera, establezimendu horiek bereiz inskribatu behar dira enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan (beraiei buruz egoiliartutako pertsona edo erakundeez agertu beharreko datu eurak adierazi behar dira, eta haien baldintza eurekin, eta zein pertsona edo erakunderen menpean ari diren zehaztu behar da), eta aurreko idatz-zatian aipaturiko datuak eman behar dira.

   Establezimendu iraunkor bakoitzak bere identifikazioa eduki behar du; identifikazio horretan nahitaez agertu behar da establezimendua atxikita dagoen pertsona edo erakunde ez-egoiliarra eta establezimenduaren beraren identifikazio fiskaleko zenbakia, eta establezimendu iraunkorra dagoen higiezinaren zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia. Halaber, establezimendu iraunkorraren zerga oinarria zehazteko modua finkatu behar da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Baldin eta egoiliar ez den pertsona edo erakunde batek bere kabuz eta establezimendu iraunkor baten edo batzuen bidez badihardu, bera ez ezik beraren establezimendu iraunkor guztiak ere inskribatu behar dira enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan.

   Inskripzio horietan, araudi honetan eskatzen diren datu orokorrak ez ezik artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutakoak ere adierazi behar dira, hain zuzen ere egoiliar ez den pertsona edo erakundeari dagozkionak.

   Gainera, establezimendu iraunkor bakoitzak bere identifikazioa behar du eta zein motatakoa den adierazi behar da, artikulu honetako aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera, bai eta higiezinaren zenbaki finkoa edo katastro erreferentzia ere.

4. Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeei dagokienez, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan erakundeko kide edo partaide guztien izendeiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga-egoitza eta naziotasuna agertu behar dira, eta bakoitzaren partaidetza-kuota eta eratxikipen-kuota zehaztu behar dira.

## V. KAPITULUA
## ZENTSU AITORPENAK

### 17. artikulua. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsua: alta aitorpena

1. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan egon behar dutenek alta aitorpena aurkeztu behar dute.

2. Alta aitorpenean araudi honetako 12 - 16 bitarteko artikuluetan (biak barne) adierazitako datuak agertu behar dira.

3. Gainera, aitorpen honen bidez ondoko hauek egingo dira:

   a) Behin-behineko edo behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu, pertsona juridiko edo erakunde eskatzaileak aurreko artikuluko 1. idatz-zatian xedatutakoa

aplikatuta enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuko alta aitorpena aurkeztu beharra eduki zein ez. Interesdunak eskatuta edo ofizioz identifikazio fiskaleko zenbakia emateak berekin ekarriko du pertsona edo erakundea zergapekoen zentsuan sartzea.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide orokorrean edo araubide berezi batean dagoen adierazi.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia hautatu edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egin.

d) Jarduerari ekin zaiola adierazi, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu direlako jarduera egiteko asmoarekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 111. artikuluan ezarritakoaren ondoreetarako.

e) Enpresa eta lanbide jarduerei ekin zaiela adierazi.

f) Zerga-oinarria etekin osoaren marjinaren bidez zehazteko metodoa hautatzea, Balioa Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko foru arauaren 137.2 artikuluan aipatzen diren ondasun erabili, arte objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide bereziaren kasuan.

g) Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskatu.

h) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68. artikuluko laugarren idatz-zatian aipatutako ondasun emateak zerga horren kargapean ez egotea hautatu, foru-arau horren 73. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

i) Aitortzailea zentsuan ez badago, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68. artikuluko hirugarren a) eta bosgarren idatz-zatietan aipaturiko ondasun ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean daudela adierazi.

j) Balio Erantsiaren gaineko Zergan zerga horri buruzko foru arauko 103. artikuluko bigarren idatz-zatiko 1. zenbakian ezarritako lainketa bereziaren erregela aplikatzea hautatu.

k) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan sartzeko eskatu.

l) Enpresa handien erregistroan sartzeko eskatu.

m) Enpresen elkartzeen eta aldi baterako batasunen erregistro berezian sartuta dagoela adierazi.

n) Sozietateen gaineko Zergaren zatikako ordainketa martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bategineko 45. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako modalitatearen arabera zehaztea hautatu dela adierazi.

ñ) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ziozko atxikipenen eta konturako sarreren autolikidazioen likidazioaldia jakinarazi, onetsitako azken aurrekontuaren zenbatekoa aintzat hartuta, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituena herri administrazioa bada, Gizarte Segurantza barne.

o) Espainiako lurraldean seitik gora hilabete irauten duten eraikuntza, instalazio edo muntaketa obrak, aldiko edo denboraldiko jarduera ekonomikoak edo ustiapenak edo natur baliabideen ustiaketa jarduketak egiten dituzten establezimendu iraunkorretarako

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 18. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letran ezarritako araubide orokorra hautatu.

p) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko eskatzea.

q) Zergen arloko arautegian ezarritako gainerako gertaerak eta inguruabarrak edo Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehazten dituenak jakinarazi.

r) Ondasunak birsaltzen dituen enpresari edo profesionalaren izaera jakinarazi. Figura hori Balioa Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko arautegiko 84. artikuluko Bat puntuko 2. zenbakiko g) letran aipatzen da.

s) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egitea hautatu, araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoaren arabera.

t) Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatutako pertsonen eta entitateen kasuan, eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu dutela komunikatu, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 5. artikuluko 1. zenbakian zehaztutako baldintzetan.

u) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.Bat.8 artikuluan aipatzen diren zerbitzu-prestazioak zerga horren kargapean ez egotea hautatu, foru-arau horren 73. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

v) Aitortzailea zentsuan erregistratuta ez badago, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.Bat.4.a) artikuluan aipatzen diren zerbitzu-emateak zerga horren kargapean daudela adierazi.

w) Zerbitzu digital batzuen gaineko zergaren zergaduna dela jakinaraztea, Zerbitzu digital batzuen gaineko zergari buruzko ekainaren 22ko 5/2022 Foru Arauaren 8. artikuluan ezartzen denaren arabera.

4. Aurkezteko berariazko eperik ezartzen ez denean, alta aitorpena jarduerei ekin zaienetik edo eragiketak egin direnetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da, hurrengo paragrafoetan ezarritako kasuetan izan ezik.

   Ordaintzen edo zor diren etekinei edo errentei atxikipena aplikatu behar bazaie, alta aitorpena ordaintzen edo zor diren etekinei edo errentei atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharra sortzen denetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar da.

   Aurreko idatz-zatiko d) letran ezarritakoaren arabera alta aitorpenak jardueraren hasieraren adierazpena badakar, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu direlako jarduera egiteko asmoarekin, jarduerei ekin baino lehen aurkeztu behar da.

   Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskabidea, aurreko idatz-zatiko g) letran ezarritakoa, araudi honetako 6. artikuluan ezarritakoa gertatu baino lehen aurkeztu behar da.

   Araudi honetan ezarritakoaren ondoreetarako, enpresa edo lanbide jarduerak ondasunak emateko edo zerbitzuak egiteko asmoarekin ondasunak edo zerbitzuak eman, egin edo eskuratzen, kobrantzak edo ordainketak egiten edo lan-itunpeko langileak kontratatzen direnean hasi direla pentsatuko da.

## 18. artikulua. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsua: aldaketa aitorpena

1. Alta aitorpen batean edo hura aldatzeko aurkeztutako aitorpenen batean ageri den daturen bat aldatzen bada, zergapekoak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio aitorpen bidez.

2. Aitorpen honen bidez ondokoak egingo dira:

   a) Pertsona juridikoek eta erakundeek eta enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuko pertsona fisikoek zerga egoitzaren aldaketaren berri eman, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 47.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

   b) Araudi honetako 11 - 17 bitarteko artikuluetan aipatutako zergen arloko datu eta inguruabarretan gertatzen diren aldaketak jakinarazi.

   c) Zerga-oinarria etekin osoaren marjinaren bidez zehazteko metodoa hautatu, Balioa Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko foru arauaren 137.2 artikuluan aipatzen diren ondasun erabili, arte objektu, antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide bereziaren kasuan.

   d) Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskatu, alta aitorpena aurkeztutakoan erregistroa horretan egon beharra dakarten inguruabarretako bat gertatuko bada (araudi honetako 6. artikuluan ezarri dira).

   Gainera, beste pertsona eta erakunde batzuek zentsuaitorpena ere aurkeztu behar dute, Batasunaren barruko eragileen erregistroan baja ematea eskatzeko; hain zuzen ere, honako hauek: batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek, zerga horren peko jarduerak egiteari uzten badiete, baina horrek ez badakar enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan baja eman beharra; bestetik, aurreko 12 hileetan Balio Erantsiaren Zergaren peko Batasunaren barruko ondasun-ematerik edo -eskuraketarik egin ez duten pertsonek edo erakundeek, eta, azkenik, araudi honen 6. artikuluko c) eta d) idatz-zatietako zerbitzuak eman ez dituzten edo zerbitzuon hartzaile izan ez diren pertsonek edo erakundeek.

   e) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68.Lau artikuluan aipatzen diren ondasun-emateak zerga horren kargapean ez egotea hautatu, foru-arau horren 73. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

   f) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68. artikuluko hirugarren a) eta bosgarren idatz-zatietan aipatutako ondasun emateak zerga horren kargapean egongo direla jakinarazi.

   g) Ezeztatu zenbaki honetako c), d), e), r), s) eta t) letretan eta araudi honen 17. artikuluko 3. zenbakiko f), h), s), t) eta u) letretan aipatutako aukerak edo eskaerak, eta komunikatu zenbaki honetako f) letran eta 17. artikuluko 3. zenbakiko i), r) eta v) letretan aipatutako egoeretan gertatzen diren aldaketak.

   h) Enpresa handien erregistroko alta jakinarazi.

   i) Enpresa edo profesional jarduera bat egiteagatik enpresaburu edo profesional direnek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 103.bi.1 artikuluan ezarritako lainketa bereziaren erregela hautatu dutela adierazi halako beste jarduera bati ekiten diotenean, jarduera Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako beste sektore bat izan zein ez.

   j) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketaren erregistroan inskribatzeko eskatu, bai eta erregistro horretan baja eman ere, betiere aurretik enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta emanda egon bada.

k) Ogasun eta Finantza Sailari Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaldiaren aldaketa jakinarazi, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ziozko atxikipenen eta konturako sarreren aitorpenen ondoreetarako, kasuan kasukoa eragiketa bolumenaren (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 121. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuta) edo onetsitako azken aurrekontuaren zenbatekoaren arabera, atxikipenak edo konturako sarrerak egin behar dituena herri administrazioa bada, Gizarte Segurantza barne.

l) Sozietateen gaineko Zergaren zatikako ordainketa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 45. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako modalitatearen arabera zehaztea hautatu dela edo aukera horri uko egin zaiola jakinarazi.

m) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan arautukako zerga-araubide berezia aplikatzeko eskatzea edo haren aplikazioari uko egitea.

ñ) Araudi honetako 3.3. artikuluko datu pertsonalak zuzentzeko eskatu.

o) Zergen arautegian ezarritako gainerako gertaerak eta inguruabarrak edo Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehazten dituenak jakinarazi.

p) Jarduera garatzeko diren ondasunak edo zerbitzuak eskuratuz jarduera bera hasi dela jakinarazi, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 111. artikuluan zehazten dena betetzeko, baldin eta eskuraketa hori zentsuko altaren ondoren gertatzen bada (aldez aurreko aitorpena).

Halaber, aldez aurreko hasierari buruzko jakinarazpen hori aurkeztu beharko dute horrelako jarduerak egiten dituztela- eta dagoeneko enpresaburu edo profesional izaera dutenek, baldin eta beste enpresa- edo lanbide-jarduera bat hasten badute, eta jarduera horrek aurretik egiten zituzten jarduerez bestelako sektore bat osatzen badu, Balio Erantsiaren gaineko Zergan zehazten denerako.

Kasu horietan, kenkaria aplikatzeko proposatzen den behin-behineko portzentajea jaso behar da jakinarazpen horretan; portzentaje hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 111. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen da.

q) Enpresa- eta lanbide-jardueren benetako hasiera jakinarazi, hasiera hori zentsuko alta egiten den egunaren osteko beste une batean gertatzen bada.

r) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egitea hautatu, araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian ezarritakoaren arabera.

s) Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatutako pertsonen eta entitateen kasuan, eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu dutela komunikatu, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren 5. artikuluko 1. zenbakian zehaztutako baldintzetan.

t) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 70.Bat.8 artikuluan aipatzen diren zerbitzu-prestazioak zerga horren kargapean ez egotea hautatu, foru-arau horren 73. artikuluan xedatutakoari dagokionez.

u) Aitortzailea zentsuan ez badago, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70.Bat.4.a) artikuluan aipatzen diren zerbitzu-emateak zerga horren kargapean daudela adierazi.

v) Zerbitzu digital batzuen gaineko zergaren zergadun bihurtu dela edo dagoeneko ez dela jakinaraztea, Zerbitzu digital batzuen gaineko zergari buruzko ekainaren 22ko 5/2022 Foru Arauaren 8. artikuluan ezartzen denaren arabera.

3. Zentsuko datuak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko organo batek sustatuta aldatzen badira, ez dago aldaketa aitorpena aurkeztu beharrik.

4. Aitorpena aurkeztu beharra sortzen duen gertaera gertatu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da, ondoko kasuetan izan ezik:

a) Zerga bakoitzari buruzko arautegian edo aplikatu beharreko zerga araubidean berariazko epealdiak ezartzen diren kasuetan; horrelakoetan aitorpena berariaz ezarritako epealdian aurkeztu behar da.

b) Artikulu honen 2. paragrafoko k) idatz-zatian ezarritako jakinarazpena horrelakoak egiteko epealdi orokorrean egin behar da, eta beti egin behar da Ogasun eta Finantza Sailari jakinarazitako aldaketak eragindako lehenengo aitorpena, edo aldaketa hori gertatu ezean aurkeztu beharko zen lehenengo aitorpena, aurkezteko epea amaitu baino lehen.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua hautatzeko, hautapena ezeztatzeko edo hartatik salbuetsita geratzeko eskaera ondoreak sortu behar dituen urte naturaleko apirilaren 25era arte aurkez daiteke.

   Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari uko egiteko, hautapena ezeztatzeko edo hartatik salbuetsita geratzeko eskaera ondoreak sortu behar dituen urte naturaleko apirilaren 25era arte aurkez daiteke.

   Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa-irizpidearen araubide bereziaren aukera, uko egitea, errebokatzea eta, hala badagokio, baztertzea eragin behar duen urte natura- la hasi aurreko abenduan egin ahal izango da.

   Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden erakundeen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztua hautatu, hautapena ezeztatu edo hartatik salbuetsita geratu nahi izanez gero eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuari, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari edo kutxa irizpidearen araubide bereziari uko egin nahi izanez gero, eskaera erakundeak aurkeztu behar du eta horrekin batera bazkide, erkide, jaraunsle edo partaide guztien identifikazio-datuak eta sinadurak agertu behar dira.

   Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuari, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari edo kutxa irizpidearen araubide bereziari uko egin izanaren ezeztapenerako eskaera erakundeak berak edo bertako bazkide, erkide, jaraunsle edo partaide batek edo gehiagok aurkez dezakete. Azken kasu horretan aitortzaile gisa erakundea agertuko da, eta ezeztapena formalizatzen duten bazkideen sinadura eta identifikazio-datuak baizik ez dira agertuko.

d) Zergadunek uko egin ezean, berez aplikatuko da ondasun erabili, arte objektu, antzinako objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia; operazio bakoitzeko egin dakioke uko, eta Administrazioari berariaz jakinarazi gabe.

   Ondasun erabili, arte objektu, antzinako objektu eta bildumaobjektuen araubide berezian, zerga oinarria etekin osoaren marjinaren modalitatearen bidez zehaztu nahi izanez gero, horren aldeko hautapena ondoreak izan behar dituen egutegiko urtearen aurreko abenduan aurkeztu behar da. Hurrengo urteetan, luzatutzat joko da aipatutako epean berariaz uko egin ezean. Luzapena araubidea aplikatzen hasten den urtearen hurrengoa bukatu artekoa izango da gutxienez.

Ondasunak birsaltzen dituen enpresari edo profesional izaera (Balioa Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko arautegiko 84.Bat.2.g) artikuluan aipatzen da izaera hori) jarduera hasten denerako jakinarazi behar da, edo ondorioak sortu behar dituen urtearen aurreko urteko abenduan zehar, eta hurrengo urteetan luzatutzat joko da, baldin eta izaera hori galdu ez bada. Izaera galtzen denean, orobat jakinarazi beharko da.

e) Enpresa edo profesional jarduera batean ari denak halako beste jarduera bati ekin badio, jarduera beste sektore bat izan zein ez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren lainketa berezia aplikatzea hautatzeko eskaera jarduera berriko ondasunak edo zerbitzuak eman edo egin ohi diren aldiko aitorpen-likidazioa aurkezteko epealdia amaitu arte aurkeztu ahal izango da.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan alta edo baxa emateko eskabideak berariazko arautegian ezarritako epealdian aurkeztu behar dira.

g) Batasunaren barruko eragileen erregistroan sartzeko eskabidea, artikulu honetako 2.d) idatz-zatiko lehenengo paragrafoan aipatua, araudi honetako 6. artikuluan ezarritakoa gertatu baino lehen aurkeztu behar da.

h) Enpresa handien erregistroko alta aitorpena araudi honetako 8. artikuluan ezarritako eragiketa bolumena gainditu eta hurrengo ekitaldiko urtarrilean aurkeztu behar da.

i) Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak, kasu jakin bateko inguruabarrak kontuan izanik, epealdi berezia ezartzen duenean.

**19. artikulua. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsua: baxa aitorpena.**

1. Enpresa edo lanbide jarduerei uzten dietenek edo ez enpresari ez profesional izan ez eta atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkien etekinak ordaintzeari uzten diotenek aitorpena aurkeztu behar diote Ogasun eta Finantza Sailari horren berri emateko, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan baxa eman diezaien.

   Halaber, enpresa edo lanbide jardueraren bat egiten ez duten pertsona juridikoek ere aitorpen hau aurkeztu behar dute Batasunaren barruko eragileen erregistroan baxa emateko, Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun eskuraketak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, kargapean ez daudenean.

2. Baxa aitorpena artikulu honetako 1. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen direnetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da; hori gorabehera, hura aurkezten duen pertsonak edo erakundeak behar diren zerga aitorpen guztiak aurkeztu behar ditu eta bere zerga betebeharrak bete behar ditu.

3. Sozietate edo erakunde bat desegiten bada, baxa aitorpena Merkataritzako Erregistroko idazpena behin betiko kitatzen denetik hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar da.

   Idazpenik ez badu, Ogasun eta Finantza Sailak Merkataritzako Erregistroari jakinaraziko dio baxa eskaera, erakundearen erregistroorrian bazterreko oharra egin dezan. Hori egin ondoren Erregistroak erakunde horren inguruan inskribatzeko aurkezten den egintza guztien berri eman behar dio Ogasun eta Finantza Sailari.

   Orobat, Ogasun eta Finantza Sailak erakunde batek bere jarduerari utzi diola ziur jakiteko beste datu baditu, Merkataritzako Erregistroari jakinarazi behar dio, bazterreko oharra egin dezan ofizioz aurreko paragrafoan ezarritako ondore euretarako.

4. Zergapeko bat hilez gero, haren jaraunsleek baxa aitorpena aurkeztu behar dute heriotza egunetik hilabete pasatu baino lehen. Halaber, heriotzaren ondoren indarrean irauten duten hirugarrenekiko eskubide eta betebeharren titulartasunean zergetarako ondoreak dituen aldaketaren bat gertatzen bada, haren berri eman behar dute eta, beharrezkoa bada, behar

diren alta aitorpenak aurkeztu behar dituzte, eta hori guztia heriotzatik urtebete pasatu baino lehen.

**20. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia ematen zaien erakundeei zergapekoen zentsuan alta ematea (espezialitateak) eta aldaketak.**

1. Erakunde bati 34. artikuluan ezarritako behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia emateak berekin ekarriko du zergapekoen zentsuan alta ematea eta, 5. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatuz gero, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta ematea.

2. Gero zentsuko altan aldaketarik gertatzen bada (jarduera bati ekin, egoitza, erakundeko kide diren pertsona edo erakundeen izen- deiturak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia), 18. artikuluan araupetutako aldaketa aitorpenaren bidez jakinarazi behar da. Hala ere, behar den erregistroan inskribatu eta behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortutakoan, bazkide, kide edo partaideen aldaketak ez dira jakinarazi behar.

   Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, nortasun juridiko rik gabeko erakundeek, nahiz eta behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia eduki, euren bazkide, erkide edo partaideen aldaketen berri eman behar dute. Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak betebehar horretatik salbu daude, are enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan daudenak ere.

   Halaber, 12.2.l) artikuluan aipatutako erakundeek aurreko aitorpenetan adierazitako datuetan (bazkide, kide eta partaideei buruzkoak barne) gertatutako aldaketen berri eman beharko dute eskualdaketa formalizatzen denetik hilabete pasatu baino lehen.

3. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek indarrean daudenak aldatzen dituzten eskritura edo agirien kopiak aurkeztu behar dituzte eta horretarako hilabeteko epea izango dute behar den erregistroan inskribatzen direnetik edo, inskribatu beharrik ez badute, egilesten direnetik, aldaketek aldaketa aitorpena aurkeztu beharra dakartenean.

**21. artikulua. Aitorpenaren eredua eta nola eta non aurkeztu.**

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztuko du zentsuetako alta, aldaketa eta baxa aitorpenak (araudi honetako 17, 18, eta 19. artikuluetan ezarritakoak) non, nola, zein epealditan eta zein eredutan aurkeztu behar diren, epealdia araudi honetan ezarrita dagoen kasuetan izan ezik.

**22. artikulua. Beste zentsu aitorpen batzuen bazterketa.**

1. Araudi honetan aipatutako aitorpenek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko jarduera ekonomikoa hastean, aldatzean edo amaitzean aurkeztu beharreko aitorpenen ondore eurak sortuko dituzte.

2. Halaber, zentsu aitorpen hauek erakundeen zerrendako alta gaztiguaren ordezkoak dira Sozietateen gaineko Zergaren ondoreetarako.

3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita ez dauden subjektu pasiboek araudi honetan araupetutako zentsu aitorpena ez ezik zerga horren alta ere aurkeztu behar dute.

   Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek aurkezten dituzten alta aitorpenak zerga horren berariazko aitorpenen ordezkoak izango dira.

4. Uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Zerga Berezien Araudiko 40. artikuluan aipatzen den Fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroan dauden zergapekoek enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan baxa emateko eskabidea aurkezteak baxa ondoreak sortuko ditu aipatu erregistroan, hau da, zentsuko

baxaren eskabideak zergapekoak erregistroan dituen establezimenduei baxa ematea ekarriko du.

### 23. artikulua. Alta aitorpena barik agiri elektroniko bakarra erabiltzea.

Eratzeko bidean diren pertsona fisiko edo juridikoek agiri elektroniko bakarra aurkezten badute eraketaren izapideak telematikoki egiteko ez dute aurkeztu beharko zentsuko alta aitorpena berariazko arautegian ezarritakoaren arabera. Hala ere, geroztik, agiri elektroniko bakarreko informazioa eta inguruabarrak aldatzen badira edo zerbait gehitu behar bada, bidezko alta eta baxa aitorpenak aurkeztu beharko dituzte.

### 24. artikulua.Zentsu aitorpenen kudeaketa.

1. Foru Ogasunak sortu eta artatuko ditu 3. artikuluan zehaztutako zentsuak eta erregistroak. Horretarako, beharrezko alta, baxa eta aldaketa guztiak egin ahal izango ditu, 66 - 68 bitarteko artikuluetan xedatutakoari lotuta (biak barne).

2. Atal honetan araupetutako zentsuen kudeaketa errazteko, identifikazio fiskaleko zenbakia emateko eskumena daukan administrazio publikoak hiru hilean behin, gutxienez, zenbaki hori eta pasaporte zenbakia ematen dien pertsonen berri emango dio Zerga Administrazioari: izen-deiturak, sexua, jaioteguna eta jaioterria, identifikazio fiskaleko zenbakia eta, beharrezkoa izanez gero, Espainiako egoitza.

## III. TITULUA
## ZERGA EGOITZAREN INGURUKO BETEBEHARRAK

### 25. artikulua. Zerga egoitzaren aldaketaren berri eman beharra

1. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan egon behar duten pertsona fisikoek, bai eta pertsona juridikoek eta gainerako erakundeek ere, zerga egoitzaren aldaketaren berri eman behar dute aldaketa gertatzen denetik hilabete pasatu baino lehen, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 47.3. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

   Horretarako araudi honetako 18. artikuluan araupetutako aldaketa aitorpena aurkeztu behar da.

2. Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan egon behar ez duten pertsona fisikoek hiru hilabete pasatu baino lehen eman behar duten zerga egoitzaren aldaketaren berri, eta horretarako onesten den aitorpen eredua erabili behar dute. Nolanahi ere, kontuan eduki behar da hurrengo paragrafoko salbuespena.

   Aipatu epealdiaren barruan egoitza aldaketaren ondoren zergapekoak aurkeztu beharreko karga pertsonalaren autolikidazioa aurkezteko epealdia amaitzen bada, egoitza aldaketa autolikidazio ereduan bertan jakinarazi behar da, aurretik jakinarazi ez bada.

3. Egoitza berriaren jakinarazpenak aurkeztuz gero sortuko ditu ondoreak. Nolanahi ere, hori baino lehen ere sor ditzake ondoreak, hain zuzen ere zergapekoak modu sinesgarrian frogatzen badu edo Zerga Administrazioak egiaztapen prozedura baten bitartez berresten badu.

# IV. TITULUA
# IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN INGURUKO BETEBEHARRAK

## I. KAPITULUA
## ARAU OROKORRAK

### 26. artikulua.Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharra eta hura egiaztatzeko modua.

1. Pertsona fisiko eta juridikoek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dute zergen arloko harremanetarako edo zerga ondoreak sortzen dituztenetarako. Ondokoak dira, besteak beste:

    a) Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak.

    b) Pentsio funtsak, inbertsio funtsak eta kapital-arriskuko funtsak.

    c) Interes ekonomikoko elkartzeak eta enpresen aldi baterako batasunak.

    d) Testamentu-ahalordea baliatu zain dauden jaraunspenak, zergen arloko harremanak edo zerga ondoreak sortzen dituzten harremanak dituztenak.

2. Identifikazio fiskaleko zenbakia eduki behar dutenek ondokoak erabil ditzakete badaukatela egiaztatzeko: Zerga Administrazioak emandako agiria, nortasun agiri nazionala eta atzerritarraren identifikazio zenbakiaren agiri ofiziala.

3. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa betetzeak ez du salbutzen zerga jakin batzuei buruzko araudietan ezarritako identifikazio kodeak edo gakoak eduki beharretik.

## II. KAPITULUA
## PERTSONA FISIKOEI IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ESLEITZEA.

### 27. artikulua. Espainiar nazionalitatea duten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Espainiar nazionalitatea duten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia nortasun agiri nazionalaren zenbakia da, atzean egiaztapen-kodea edo -karakterea duela: letra larri bat. Letra hori nortasun agiri nazionalean bertan agertu behar da, agiri horri buruzko xedapenekin bat etorriz.

2. Zergen arloko eragiketak edo zerga-ondorioak sortzen dituzten eragiketak egiten dituzten edo halakoetan parte hartzen duten espainiarrek nortasun agiri nazionala eskuratu behar ez badute, atzerrian bizi direlako edo 14 urtetik beherakoak direlako, identifikazio fiskaleko zenbakia lortu behar dute.

    Horretarako, pertsona horiek nortasun agiri nazionala eska dezakete, beren borondatez, edo identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eska diezaiokete Zerga Administrazioari.

    Identifikazio fiskaleko zenbakiak bederatzi karaktere dauzka; hona zenbakiaren osaera:

    - Hasieran, letra bat, zenbakia nolakoa den adierazteko. 14 urtetik beherako Espainiako egoiliarrena K izango da; atzerrian bizi diren espainiarrena, berriz, L izango da.

    - Zazpi karaktere alfanumeriko.

    - Egiaztapen-karaktere alfabetiko bat.

    Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak bere kabuz alta eman ahalko die zergapekoen zentsuan, eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu.

3. Zergen arloko harremanak edo zerga-ondorioak sortzen dituzten harremanak dituzten 14 urtetik beherako pertsonak identifikatzeko, haien datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) eta legezko ordezkariarenak agertu behar dira.

### 28. artikulua. Atzerriko nazionalitatea daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Espainiako nazionalitatea ez daukaten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia atzerritarraren identifikazio zenbakia da, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta betebeharrei buruzko eta horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoarekin eta hura garatu duten arauekin bat etorriz esleitzen zaiena.

2. Espainiako nazionalitatea ez daukaten pertsona fisikoek atzerritarraren identifikazio zenbakia ez badaukate eta zergen arloko eragiketak edo zerga ondoreak sortuko dituztenak egingo badituzte, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar diote Zerga Administrazioari, bai atzerritarraren identifikazio zenbakia eduki behar dutenek, bai eduki behar ez dutenek.

   Identifikazio fiskaleko zenbakiak bederatzi karaktere dauzka; hona osaera:

   - Hasieran M letra, zenbakia nolakoa den adierazteko.
   - ondoren zazpi karaktere alfanumeriko.
   - Amaieran begiztapen karaktere bat: letra.

   Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak ofizioz jardun dezake zergapekoen zentsuan alta emateko eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.

3. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eskabidean aurkeztutako agiriak Euskadin ofiziala ez den hizkuntza batean badaude, Zerga Administrazioak hizkuntza ofizialetako batera itzultzeko eska dezake.

### 29. artikulua. Zerga Administrazioak Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko arauak.

1. Zerga Administrazioak aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera zuzenean esleitzen dituen identifikazio fiskaleko zenbakiak titularrak nortasun agiri ofiziala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia eskuratu arte izango dira baliozko.

   Identifikazio fiskaleko zenbakia edukita nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikazio zenbakia lortzen dutenek bi hileko epealdiaren barruan horren berri eman behar diete Zerga Administrazioari eta identifikazio fiskaleko zenbaki berriaren jakinaren gainean egon behar diren pertsona eta erakunde guztiei. Berria jakinarazi arte lehengo zenbakiak sortuko ditu ondoreak.

2. Detektatzen bada pertsona fisiko batek aldi berean dituela Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia eta nortasun agiri nazionala edo atzerritarraren identifikaziozenbakia, azken bi horien artean dagokiona lehenetsiko da.

   Hala, Zerga Administrazioak bi gauza jakinarazi behar dizkie interesdunei: alde batetik, balioa galdu duela artikulu honetako 1. zenbakiaren arabera aurretiaz eman dien identifikazio fiskaleko zenbakiak, eta, beste alde batetik, interesdunek berek eman behar dietela balioa duen zenbakiaren berri beren eragiketak direla-eta zenbaki horren berri eduki behar duten pertsona eta erakunde guztiei.

## III. KAPITULUA
## PERTSONA JURIDIKOEI ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEEI IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA ESLEITZEA.

### 30. artikulua. Eremu objektiboa.

1. Aurrerantzean zerga egoitza Bizkaian dutela ezartzen edo eratzen diren nortasun juridikorik gabeko pertsona juridikoek eta erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskatu behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari.

2. Establezimendu iraunkorra daukaten erakunde ez-egoiliarrek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskatu behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari zerga-egoitza, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Bizkaian egonez gero.

   Establezimendu iraunkorrik ez duten erakunde ez-egoiliarrek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko eskatu behar diote Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari ordezkariaren egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago edo bertan egingo badituzte zergen arloko eragiketak edo zerga-ondoreak izango dituzten ekintzak edo eragiketak. Salbuespena: beste zerga administrazio batek identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu badie, ez dute zertan beste bat eskatu.

### 31. artikulua. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia esleituko die pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei. Zenbaki aldaezina izango da, hau da, ez da aldatuko pertsona edo erakundea aldatu arren, forma juridikoa edo nazionalitatea aldatu ezean.

   Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiaren osaera:

   a) Erakundea Espainiakoa bada, forma juridikoari buruzko informazioa, eta bestela atzerrikoa erakundea edo Espainiako egoiliar ez den erakunde batek Espainian daukan establezimendu iraunkorra den; horretarako hurrengo artikuluan ezarritakoari lotu behar zaio.

   b) Ausazko zenbaki bat.

   c) Kontrol karaktere bat.

2. Egoiliarra ez den pertsona juridiko edo erakunde batek Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorren bitartez jarduten badu, jarduerak modu argian bereizten direla eta banaka kudeatzen, establezimendu iraunkor bakoitzak identifikazio fiskaleko beste zenbaki bat eskatu behar du, hau da, egoiliarra ez den pertsona edo erakundearena ez beste bat.

3. Administrazio publikoek eta haien menpeko berezko nortasun juridikodun erakundeek identifikazio fiskaleko zenbaki bat eduki dezakete enpresa edo lanbide jardueraren arlo bakoitzeko eta bere kabuz jarduteko gaitasuna duen sail, bulego eta goi organo bakoitzeko.

4. Halaber, ondokoek ere eduki dezakete identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzen badute:

   a) Ikastetxe publikoek.

   b) Osakidetzaren menpeko osasun edo laguntza zentro publikoek.

   c) Espainiako Gurutze Gorriaren gobernu organoek eta osasun edo laguntza zentroek.

d) Erregistro publikoek.

e) Epaitegiek, auzitegiek eta auzitegietako salek.

f) Aldizkari ofizialek, berezko nortasun juridikorik ez badaukate.

5. Berezko nortasun juridikoa daukaten eliz erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia edukiko dute, nahiz eta Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako elizbarruti edo erlijio probintzia bat hartzen duen subjektu pasibo batean integratuta egon.

### 32. artikulua. Erakundeen forma juridikoaren gakoak

1. Espainiako erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak letra bat edukiko du hasieran, haien forma juridikoa adieraziko duena, gako hauen arabera:

   A. Sozietate anonimoak.

   B. Erantzukizun mugatuko sozietateak.

   C. Sozietate kolektiboak.

   D. Sozietate komanditarioak.

   E. Ondasun-erkidegoak, jaraunspen jasogabeak eta bestelako gakoetan berariaz jasota ez dauden nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeak.

   F. Sozietate kooperatiboak.

   G. Elkarteak.

   H. Jabetza horizontalaren araubideko jabeen erkidegoak.

   J. Sozietate zibilak.

   P. Toki korporazioak.

   Q. Erakunde publikoak.

   R. Kongregazio eta erakunde erlijiosoak.

   S. Estatuaren Administrazioko eta autonomia-erkidegoetako organoak.

   U. Aldi baterako enpresa-elkarteak.

   V. Beste gakoetan definitu ez diren motak.

2. Espainiako nazionalitatea ez duten pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak N letra edukiko du hasieran, erakundea atzerrikoa dela adierazteko.

3. Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren erakundeen establezimendu iraunkorren identifikazio fiskaleko zenbakiaren hasierako letra W izango da; letra honek erakundea egoiliar ez den erakunde baten establezimendu iraunkorra dela adieraziko du.

### 33. artikulua. Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea.

1. Zergen arloko harremanen edo arlo horretan ondoreak izango dituzten harremanen titular izango diren pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu behar dute.

   Eskatzen ez badute, Zerga Administrazioak ofizioz jardun dezake zergapekoen zentsuan alta emateko eta identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko.

2. Enpresa edo lanbide jardueraren bat egingo duten pertsona juridikoek eta nortasunik gabeko erakundeek beren jardueran ondasunak edo zerbitzuak eman, egin edo eskuratu, dirua kobratu edo ordaindu eta langileak kontratatu baino lehen eskatu behar dute identifikazio fiskaleko zenbakia. Eskabidea, beti ere, eratu edo egoitza ezarri eta hilabete pasatu baino lehen aurkeztu behar dute.

3. Eskabidea egiteko 17. artikuluan araupetutako zentsu aitorpena aurkeztu behar da, eta bertan artikulu horretako 2. eta 3. idatzzatietan ezarritako inguruabarrak jaso behar dira, gertatzen diren neurrian edo aitorpena aurkezteko unean haien berri jakiten den neurrian.

### 34. artikulua. Pertsona juridikoei eta nortasun juridikorik gabeko erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea.

1. Zerga Administrazioak 10 eguneko epealdiaren barruan esleituko du identifikazio fiskaleko zenbakia.

   Zerga Administrazioak interesatuek identifikazio fiskaleko zenbakia, behin-behinekoa zein behin betikoa, eskuratzeko aurkezten dituzten eskabidean adierazitako datuak egiazkoak direnez egiaztatu ahal izango du, 66. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

   Aurkeztutako datuak ez direla zuzenak egiaztatzen bada, Zerga Administrazioak identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzea ukatu ahal izango du eta ebazpen proposamena jakinaraziko dio interesatuari, 15 eguneko epealdian, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, eskubidez komeni zaiona alega dezan.

2. Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia behin-behinekoa edo behin betikoa izan daiteke.

   Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia behin-behinekoa izango da interesatuak eskritura publikoaren, sozietatearen estatutuen edo titulartasunkidetzari buruzko bestelako agiriren bat kopia aurkezten duenean.

   Pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia behin betikoa izango da interesatuak erregistro publiko batean inskribatuta dagoela frogatzen duen ziurtagiria edo behin betiko eraketa frogatzen duen beste agiriren bat aurkezten duenean.

   Batera zein bestera, zentsuko alta aitorpenaren sinatzaileak eratuko den pertsona juridikoaren, nortasun juridikorik gabeko erakundearen edo taldearen ordezkari gisa ari dela frogatu behar du.

3. Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzen denean, erakundeak behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko behar diren agiriak aurkeztu beharko ditu behin-behinekoa esleitu zaionetik hiru hilabete pasatu baino lehen. Salbuespena: gerta liteke epealdi horretan Ogasun eta Finantza Sailak erakundeari jakinaraztea behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia.

   Aurreko paragrafoan ezarritako epealdian eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, Zerga Administrazioak aurkezteko agindeia egin ahal izango du eta 15 eguneko epealdia

emango dio interesdunari (agindeiaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatu beharrekoa) agiriok aurkezteko edo ezin aurkez ditzakeela frogatzeko. Ezin aurkeztu baditu, interesatuak aurkezteko zenbat denbora behar duen azaldu behar du.

Falta diren agiriak aurkezteko agindeiari kasu egiten ez bazaio behar den aldian eta behar den moduan, esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatu ahal izango da, 69. artikuluan ezarri den bezala.

4. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eskabidean aurkeztutako agiriak Euskadin ofiziala ez den hizkuntza batean badaude, Zerga Administrazioak hizkuntza ofizialetako batera itzultzeko eska dezake.

5. Ogasun eta Finantza Sailak hitzarmenak sina ditzake erakundeen sorreran parte hartzen duten erakundeekin identifikazio fiskaleko zenbakiak (behin-behinekoak zein behin betikoak) ahalik errazen jakinarazteko. Hitzarmen batean xedatutakoa dela bide Ogasun eta Finantza Sailak beste erakunde batzuen bitartez erakunde bati identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko behar den informazioa jasotzen badu, zentsu aitorpena aurkeztu beharra kendu ahal izango dio erakundeari. Hala ere, erakundeak aurreko zentsu aitorpenetan emandako datuetan gertatu diren aldaketa guztien berri eman behar dio.

## IV. KAPITULUA
## ENPRESABURUEK ETA PROFESIONALEK BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDOREETARAKO ERABILI BEHARREKO IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA

### 35. artikulua. Enpresaburuek eta profesionalek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako erabili beharreko identifikazio fiskaleko zenbakia.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako, 2. idatz zatian aipatutako Batasunaren barruko eragiketak egiten dituzten pertsonen eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia araudi honetan ezarritakoaren arabera zehaztutakoa izango da, aurretik ES aurrizkia jarrita, ISO-3166 alfa 2 nazioarteko kode estandarrarekin bat etorriz.

   Zenbaki hori interesatuak Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskatuz gero esleituko da, zentsuetako datuen alta edo aldaketa aitorpenari buruz ezarritakoari lotuta. Araudi honetako 69. eta 70. artikuluetan ezarritako kasuetan, Zerga Administrazioak zenbakiaren esleipena ukatu ahal izango du 3 hileko epealdian. Epealdiaren barruan ebazpenik eman ezean, zenbakiaren esleipena ukatutzat jo ahal izango da.

2. Aurreko idatz zatian azaldutako identifikazio fiskaleko zenbakia pertsona eta erakunde hauei esleituko zaie:

   a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean dauden ondasun emateak, zerbitzuak edo Batasunaren barruko ondasun eskuraketak egiten dituzten enpresaburuei eta profesionalei, are Batasunaren barruan eskuratzen diren ondasunak atzerrian enpresa edo lanbide jarduerak egiteko erabiltzen badira ere.

   b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio-lurraldean establezimendurik ez duten enpresaburuek edo profesionalek emandako zerbitzuen hartzaile diren enpresaburuak edo profesionalak, baldin eta zerbitzu-hartzaile direnak emaile direnen subjektu pasiboak badira.

   c) Kokapen arauen arabera beste estatu kide batean emandakotzat jotzen diren zerbitzuak ematen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, subjektu pasiboa denean zerbitzuon hartzailea.

   d) Enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoak, Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun-eskuraketak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren pean badaude, hari buruzko foru arauko 13.1 eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Aurreko 2. idatz zatian xedatutakoa gorabehera, ondoko pertsona eta erakundeei ez zaie esleituko identifikazio fiskaleko berariazko zenbakirik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoreetarako:

   a) Zergaren ordainketan zor guztia edo haren zati bat kentzeko eskubidea ematen ez duten eragiketak baizik egiten ez dituzten subjektu pasiboei edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatu ahal zaien jarduerak baizik egiten ez dituztenei eta ez enpresaburu ez profesional gisa aritzen ez diren pertsona juridikoei, baldin eta Batasunaren barruan egiten dituzten ondasun eskuraketak ez badaude Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean hari buruzko foru arauko 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   b) Aurreko letran adierazitakoei eta ez enpresaburu ez profesional gisa ez dihardutenei, Batasunaren barruan garraiobide berriak eskuratzen dituztenean.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 5.Bat.e) artikuluan ezarritakoei.

   d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan egoiliartuta ez dauden enpresaburu eta profesionalei, baldin eta lurralde horretan aipatu Zergari buruzko Foru Arauko 84. artikuluko 1. idatz zatiko 2, 3 eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera zerga horren kargapean ez dauden eragiketak baizik egiten ez badituzte.

   e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio eremuan egoiliartuta ez dauden enpresaburuei eta profesionalei, baldin eta lurralde horretan BEZari buruzko Foru Arauko 26. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako Batasunaren barruko ondasun eskuraketak eta haien emateak baizik egiten ez badituzte.

4. Batasuneko beste estatu batzuetan ondasun emateak edo zerbitzuak egiten dituzten pertsonek eta erakundeek Zerga Administrazioari eska diezaiokete berrets ditzala Europar Batasuneko estatuek eragiketen jasotzaileei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiak.

5. Batasuneko beste estatu batzuetara doazen ondasun emateak egiten dituzten enpresaburuek eta profesionalek eta estatu horietan zerbitzuak egiten dituztenek Zerga Administrazioari eska diezaiokete berrets ditzala Europar Batasuneko estatuek eragiketen jasotzaileei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiak.

## V. KAPITULUA
## IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIAREN ERABILERA

### 36. artikulua. Nola erabili identifikazio fiskaleko zenbakia Zerga Administrazioarekiko harremanetan

1. Zergapekoek euren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, berriemate eta idazki guztietan. Zenbaki hori ez badaukate, esleitzeko eskatu behar dute araudi honetako 27, 28 eta 33. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

2. Zergapekoek zergen arloko eragiketak edo zerga ondoreak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak jarri behar dituzte Zerga Administrazioari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, berriemate eta idazki guztietan, araudi honetan edo beste xedapen batzuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

   Idatz zati honetan xedatutakoaren ondoreetarako, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko eska diezaiekete zergen arloko eragiketak edo zerga ondoreak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeei. Pertsona eta erakunde horiek zenbakia jakinarazi behar diete, bai eta egiaztatu ere, beharrezkoa bada, araudi honetako 26. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**37. artikulua. Nola erabili identifikazio fiskaleko zenbakia zerga ondoreak sortzen dituzten eragiketetan.**

1. Zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute euren jardueran egiten dituzten zergen arloko eta zerga ondoredun agiri guztietan, eta beste zergapekoei jakinarazi behar diete, araudi honetan edo beste xedapen batzuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

   Halaber, zergapekoek zergen arloko eragiketak edo zerga ondoreak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak jarri behar dituzte agiri horietan, araudi honetan edo beste xedapen batzuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

2. Hain zuzen ere, zerga ondoreak sortzen dituzten eragiketa hauetan jarri edo adierazi behar da identifikazio fiskaleko zenbakia:

   a) Espainian kokatutako establezimenduek lanaren etekinak ordaintzen dituztenean edo Espainiako lurraldean ordaintzen direnean higigarrien kapitalaren etekinak, lurralde horretan kokatutako edo idaztohartutako ondasun edo baloreek sortuak. Honelako eragiketetan, identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar zaio etekinen ordaintzaileari edo hartzaileari.

      Espainiako lurraldean kokatu edo idaztohartutzat joko dira Espainian kokatutako pertsona eta erakundeek edo hauen establezimenduek gordailatzen, kudeatzen, administratzen edo erregistratzen dituzten balore eta finantza aktiboak.

   b) Espainian kokatutako tituluen edo kontuko idazpenen bitartez adierazitako baloreak eskuratu eta eskualdatu nahi direnean. Halako kasuetan, eskuraketa edo eskualdaketa egin nahi duten pertsonek eta erakundeek euren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar diote, agindua ematearekin batera, erakunde jaulkitzaileari edo finantza-bitartekariari. Erakunde eta bitartekari horiek, berriz, ez dute aintzat hartuko agindua harik eta betebehar hori betetzen den arte, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

      Gainera, eskuratzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar da etekin inplizitua duten finantza aktiboen eskuraketen ziurtagirietan.

      Letra honetan xedatzen dena, hala ere, ez zaie aplikatuko araudi honen 38. artikuluko 10. zenbakian aipatzen diren kontuen bitartez egiten diren balore-eskuraketei edo -eskualdaketei.

   c) Notario baten aurrean formalizatzen direnean ondasun higiezinen gaineko eskubide errealak eratzeko, eskuratzeko, eskualdatzeko, aldatzeko edo azkentzeko egintzak eta kontratuak, edo zerga ondoreak sortzen dituzten bestelako egintza eta kontratuak. Halako kasuetan egintzara bertaratutako pertsona eta erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakiak adierazi behar dira, bai eta haiek ordezkatzen dituzten pertsonenak ere.

      Hori betetzen ez bada, notarioak 62. artikuluan araupetutako aitorpen informatiboa aurkeztu behar dio Zerga Administrazioari.

   d) Espainian kokatutako establezimenduen bitartez edo Espainian establezimenduen araubidean ari diren establezimenduen bitartez edo sukurtsalen bitartez edo zerbitzugintza askearen araubidean ari diren aseguru edo finantza eragiketak egiten direnean. Halako kasuetan aseguratu gisa agertzen diren pertsonek eta erakundeek edo kalte-ordainak edo prestazioak jasotzen dituztenek euren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar diote aseguru erakundeari; zenbakia eragiketak jasotzen dituzten poliza eta agirietan agertu behar dira.

      Honetatik salbu daude istripu aseguruen kontratuak, hiru hilabetetik gorako indarraldia ez dutenak.

Zerga Administrazioak aseguru erakundeekin egiten diren beste eragiketa batzuk salbutu ditzake identifikazio zenbakia jarri beharretik, hain zuzen ere bizi aseguruez bestelako aseguruen kontratuak.

e) Pentsio-planei edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeei kontribuzioak edo ekarpenak egiten zaizkienean eta haien ondoriozko prestazioak jasotzen direnean. Kasu horietan, identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar zaie planak atxikita dauden gizarte-aurreikuspeneko erakundeen edo pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileei edo Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta egonik Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak garatzen dituzten pentsio-funtsei edo, hala badagokio, funtson erakunde kudeatzaileei, eta zenbaki hori jarri behar da ekarpenak egiteko betebeharra eta prestazioak onartzea formalizatzen diren agirietan.

f) Espainiako talde-inbertsioko erakundeen partaidetzak edo akzioak edo, Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearekin bat etorriz, Espainian merkaturatzen diren partaidetzak edo akzioak harpidetzeko, eskuratzeko, itzultzeko edo eskualdatzeko eragiketak egiten direnean. Halako kasuetan, eragiketak egiten dituzten pertsonek eta erakundeek euren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar diete Espainiako erakunde kudeatzaileei edo Espainian sukurtsal bidez edo zerbitzuak aske emateko araubidean ari diren erakundeei edo, bestela, inbertsio-sozietateei edo erakunde merkaturatzaileei. Eragiketa horri buruzko agirietan, nahitaez agertu behar da identifikazio fiskaleko zenbakia.

Letra honetan xedatzen dena, hala ere, ez zaie aplikatuko araudi honen 38. artikuluko 10. zenbakian aipatzen diren eta kontuen bitartez egiten diren eragiketei.

3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondoreetarako, zergapekoek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazteko eska diezaiekete zergen arloko eragiketak edo zerga ondoreak dituzten eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeei.Pertsona eta erakunde horiek zenbakia jakinarazi behar diete, bai eta egiaztatu ere, beharrezkoa bada, 26. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

**38. artikulua. Nola erabili identifikazio fiskaleko zenbakia kreditu erakundeekin egiten diren eragiketetan.**

1. Espainiako kreditu-erakundeekin edo Espainian sukurtsal bidez zein zerbitzuen prestazio libreko araubidean diharduten kreditu- erakundeekin eragiketak egiten dituzten pertsona eta erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar izango dute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hirugarren xedapen gehigarrian eta artikulu honetan ezarritakoaren arabera.

2. Eragiketa egiten denean ez-egoiliarra dela egiaztatzen duenak ez die identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi behar izango kreditu-erakundeei, 3.000 mila eurotik beherako diru-trukerako eta bidaia-txekeak erosteko eragiketetan.

3. Kreditu-erakunde batean, gordailu bat eratu edo kontu bat ireki ahal izango da eraketa egiten denean identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatu gabe. Handik 15 eguneko epean jakinarazi beharko da identifikazio fiskaleko zenbakia, jakinarazi arte ezin izango da inolako mugimendurik egin.

   Kontu edo gordailuen titularrek identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten dutenetik hasi ahal izango da kreditu-erakundea karguak edo ordainketak egiten edo ezeztatzen.

4. Baldin eta titularrak identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez badu edo aurreko paragrafoko lehen lerrokadan ezarritako epean jakinarazi ez badu, kreditu-erakundeek kontuak eta eragiketak adierazi beharko dizkiote zerga-administrazioari hiruhileko natural bakoitzeko lehen hilean, nahiz eta kontu edo eragiketa horiek ezeztatu diren.

Kreditu-eragiketen aitorpen horretan, aurreko hiruhilekoan eginiko kontu eta eragiketen honako datu hauek behintzat jaso beharko dira:

a) Izena eta abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta helbidea eta, hala badagokio, aitorpenean zerrendatutako pertsona edo erakunde guztien identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Kontuaren edo eragiketaren izaera edo mota eta zenbakia, baita saldoa edo kopurua ere.

5. Kreditu-erakundeek ezin izango dute txekerik jaulki eskudiruaren, ondasunen, baloreen edo bestelako txekeen truke baldin eta hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazten ez bada. Beraz, jaulkipena eta hartzailearen identifikazioa jaso behar dira. Bankuko kontu baten kargura jaulkitako txekeak salbuetsita daude ezintasun horretatik.

   Era berean, kreditu-erakundeek identifikazio fiskaleko zenbakia eskatuko diete pertsona eta erakundeei baldin eta kreditu-erakunde batek jaulkitako txekeak kobratu nahi badituzte, ordainketa bankuko kontu batean egiten ez denean. Bestelako pertsonek jaulkitako 3.000 eurotik gorako txekeen kasuan ere eskatuko diete. Kasu bietan, txekea ordaindu dela jasota geratuko da, bai eta kobratzeko txekea aurkezten duen edukitzailearen identifikazioa ere.

   Aurreko lerrokadan adierazitako txekeak atzerriko monetan izendatuta daudenean, txekeen zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa den jakiteko, kreditu-erakundeek txeke horiek eurotan duten balioa kalkulatuko dute, dibisa-eragiketetan erabiltzen diren kanbio-tasak erabiliz.

6. Aurreko paragrafoan adierazitako datuak jaso behar dituzte kreditu-erakundeek, jaulkitako txekeen ondoan edo kopietan eta ordaindutako txekeen atzealdean. Halakorik egin ezean, eragiketa horiek kontrolatzeko eta, ondoren, egiaztatu ahal izateko erregistro laguntzaileetan, kontabilitateko erregistroetan edo beste edozein erregistro motatan, jaso behar izango dira.

7. Kreditu-erakundeek urtero jakinarazi behar diote zerga-administrazioari eskudiruaren, ondasunen, baloreen edo bestelako txekeen truke jaulkitzen diren txekeei buruzko informazioa, bankuko kontu baten kargura jaulkitakoei buruzko informazioa izan ezik. Era berean, eskudirutan, eta ez bankuko kontuan, ordaintzen diren txekeei buruzko informazioa ere jakinarazi behar diote, baldin eta kreditu- erakunde batek edo beste pertsona batzuek jaulki badituzte eta 3.000 euro baino ageriko balio handiagoa badute.

   Erakunde horiek dagokion aitorpena aurkeztu behar izango dute, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez onetsitako ereduaren arabera edo baldintzen zein euskarri magnetikoen diseinuaren arabera.Aurreko urteko txekeen kasuan, urtarrila izango da aurkezteko epea. Aurkezpena ordenagailuz zuzenean irakur daitekeen euskarri magnetikoan egiten bada, epea urtarrilaren 1etik otsailaren 20ra izango da.

   Horretarako, kreditu-erakundeek aitorpen bat aurkeztu behar izango dute; bertan, informazio hau behintzat jaso beharko da:

   a) Hartzaileen izen eta abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia edo, hala badagokio, aitorpen honen xede diren txekeak kobratzeko aurkezten dituzten pertsonenak.

   b) Txekeen serie-zenbakia eta zenbatekoa; erakundeak jaulkitakoak eta erakundeak ordaindutakoak bereizi behar dira. Era berean, kreditu-erakundeak eta beste pertsona batzuek jaulkitako 3.000 eurotik gorakoak ere bereiziko dira.

   Beharrezkoa izango da aitorpen hau euskarri magnetikoan aurkeztea baldin eta eragiketen urteko aitorpena era horretan aurkeztea derrigorrezko izateko inguruabarrak gertatzen badira.

8. Adingabeen eta ezinduen izenean dauden kontu eta gordailuetan, eta hartzaile edo edukitzaileak adingabeak edo ezinduak diren txekeetan, pertsona horien identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da, baita pertsona horien legezko ordezkariena ere.

9. Baimenduta dauden edo onuradun diren titular batzuen izenean dauden kontu edo gordailuetan, guztien identifikazio fiskaleko zenbakia egon beharko da adierazita.

10. Artikulu honetan ezarritako identifikazio-araubidetik salbuetsita geratzen dira Espainiako egoiliarrak ez direla egiaztatu duten pertsona fisikoen edo erakundeen izenean eurotan zein dibisatan dauden kontuak, direna direla: aktibokoak, pasibokoak nahiz baloreenak. Hala ere, salbuespen hori ez da aplikatuko, baldin eta kontu horien etekinak Espainian kokatutako establezimendu bati ordaintzen bazaizkio.

11. Txekeen hartzaile edo edukitzaileek, 5. paragrafoan ezarritako kasuetan, Espainiako egoiliarrak ez direla adierazten dutenean, identifikazio fiskaleko zenbakiaren ordez pasaporteko zenbakia edo beren herrialdean balioa duen nortasun-zenbakia erabili ahal izango dute.

12. Aurreko 2., 10. eta 11. zenbakietan aipatzen dena betetzeko, dagokion erakundearen aurrean egiaztatu ahal izango da ezegoiliarraren izaera. Horretarako, bi aukera egongo dira: edo interesdunak egoitza duen herrialdeko zerga-agintariek emaniko zerga-egoitzaren egiaztagiri bat erabiltzea, edo zerga-egoitzari buruzko aitorpen bat erabiltzea, Zerga Administrazioak onartzen duen ereduaren eta baldintzen araberakoa.

## V. TITULUA.
## ZERGEN ARLOKO ERREGISTRO LIBURUEI BURUZKO. BETEBEHARRAK.

### 39. artikulua. Zergen arloko erregistro liburuak eduki eta artatu beharra.

1. Tributu bakoitzaren berezko araudian hala xedatuz gero, zergapekoek zuzen egin eta gorde beharko dituzte araudiotan ezartzen diren erregistro-liburuak. Era berean, araudi horretan zehaztuko da erregistro-liburuak zer kasutan aurkeztu edo egin behar diren aldizka eta baliabide telematikoen bitartez.

   Erregistro-liburuak zerga-egoitzan eduki behar dituzte zergapekoek, tributu bakoitzaren berezko araudian bestetik xedatu ezean.

2. Erregistroan idaztohartu beharreko eragiketen idazpenak eragiketa egiten denetik edo frogagiria jasotzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen egin behar da, eta nahitaez aitorpena edo autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdian amaitu baino lehen, zerga bakoitzari buruzko arautegian xedatutako salbuespenekin.

3. Zergapekoek kontabilitateko betebeharrak betetzeko eduki behar dituzten kontabilitateko liburuak edo erregistroak, are informatikoak eta elektronikoak ere, zergen arloko erregistro liburu gisa erabili ahal izango dira, araudi honetan eta zergen berariazko arautegietan ezartzen denari lotuz gero.

4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak arlo jakinetako enpresaburu eta profesionalen erregistro betebeharrak egokitzeko edo aldatzeko agindu dezake.

5. Artikulu honen aurreko zenbakietan ezarritakoa gorabehera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 62. artikuluan aipatzen diren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin behar dira, eta enpresaburuek edo profesionalek eta zerga horren beste subjektu pasiboek, horretarako, modu elektronikoan eman behar dituzte araudi horren 71. artikuluko 3. zenbakiaren arabera hilabete naturalarekin bat datorren likidazio-aldia duten fakturazio-erregistroak.

   Gainera, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren enpresaburuek edo profesionalek eta zerga horren beste subjektu pasiboek ere hautatu ahal izango dute Bizkaiko Foru Aldundiaren

egoitza elektronikoaren bidez egitea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 40. artikuluko 1. zenbakian, 47. artikuluko 2. zenbakian, 61. artikuluko 2. zenbakian eta 62. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren erregistro-liburuak, araudi honen 39 duodecies artikuluan ezarritako baldintzetan hautatu ere.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 62. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, erregistro-liburu bakarrak egingo dira, eta bertan idatzohartuko dira zergaren aplikazio-lurraldean kokatutako establezimendu guztien eragiketak.

Fakturazio-erregistroak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez elektronikoki hornitzeko erabiliko da edo web-zerbitzu bat edo, halakorik badago, formulario elektroniko bat, zeina bat etorri behar den Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru-agindu baten bidez onartuko dituen erregistro-eremuekin.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudian araudi horren 62. artikuluko 6. zenbakiko pertsonei zein entitateei buruz egiten diren erreferentziak zenbaki honetan aipatzen diren pertsonei zein entitateei buruz egindakotzat joko dira, eta erregistro-liburuak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren egoitza elektronikoaren bidez egiteari buruz egiten diren erreferentziak, berriz, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteari buruzkotzat joko dira.

### 39 bis artikulua. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua.

1. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburu bat izan beharko dute, edozein dela ere arestian aipaturiko zergan haien etekina zehazteko erabiltzen den metodoa.

2. Betebehar bera edukiko dute jarduera ekonomikoren bat egiten duten errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeek ere, euren bazkideei, jaraunsleei, erkideei edo partaideei egin beharreko etekin-eratxikipena eragotzi gabe.

3. Artikulu honetako aurreko zenbakiko erregela bera aplikatuko zaie testamentu-ahalordea erabiltzearen zain egonik jarduera ekonomikoren bat egiten duten jarauntsiei ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiko 60. artikuluan etekinak eratxikitzeko ezarritako erregelak gorabehera.

4. Aurreko idatz-zatietan aipatutako zergapekoren batek hainbat jarduera egiten baditu, liburu bat bakarrik arteztu beharko du eta jarduera bakoitzeko eragiketak ondo identifikatuta ezarri beharko ditu bertan.

5. Eragiketa ekonomikoen liburua araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz arteztu behar da; egiten diren eragiketa ekonomiko guztiak erregistratu behar dira kapitulu hauetan sailkatuta:

   - Sarrerak eta emandako fakturak.
   - Gastuak eta jasotako fakturak.
   - Jarduerari lotutako ondasunak eta inbertsio-ondasunak.
   - Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuk.
   - Hornidurak eta aurrerakinak.

6. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua eramanez gero, betetzat joko da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duen abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuko 62. artikuluan ezarritako erregistro-liburuak eraman beharra, enpresaburuek, profesionalek eta BEZaren beste subjektu pasibo batzuek daukatena.

Araubide jakin batzuen menpeko jardueretarako (araubide erraztua; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko araubide berezia; baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia; bide elektronikoa erabiliz emandako zerbitzuei ezar dakiekeen araubide berezia), Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko atala bete beharko da eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan, zerga horren araudian araubide horietako bakoitzerako ezarritako berezitasun formalen arabera; horrez gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 5. artikuluko Bat atalaren e) letran aipatutako pertsonek egiten dituzten garraiobide berrien noizbehinkako emateak ere jaso egin beharko dira.

### 39 ter artikulua. Sarreren eta emandako fakturen kapitulua.

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen liburuko sarreren eta emandako fakturen kapituluan erregistratu behar dituzte euren jarduera ekonomikoan jasotzen dituzten sarrerak eta faktura edo beste frogagiriren bat eragiten duten eragiketa guztiak.

2. Oro har, sarrerak eta faktura edo beste frogagiriren bat eragiten duten eragiketak bereizita eta dataren araberako hurrenkeran erregistratu behar dira; erregistro bakoitzak elementu hauek eduki behar ditu gutxienez:

   - Idazpenaren zenbakia.

   - Eragiketaren data (egin den eguna).

   - Eragiketaren deskripzioa; kontabilitateko zer kontutan erregistratu behar den aipatu behar da, aplikatu beharreko kontabilitateko plan orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz.

   - Sartutako zenbatekoa, jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko. Sarrera jarduera bati baino gehiagori badagokie, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.

   - Jasandako atxikipenaren zenbatekoa. Atxikipena jarduera bati baino gehiagori badagokio, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.

   Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 63. artikuluan (emandako fakturen erregistro-liburuari buruzkoa) eskatzen diren datu guztiak aipatu behar dira. Hauexek dira datuok: eragiketa dokumentatzen duen fakturaren edo frogagiriaren zenbakia (behar denean, seriea ere bai); agiria eman den eguna, baldin eta eragiketa egin den egun berean eman ez bada; hartzailearen izendeiturak, sozietate-izena edo deitura osoa, eta beraren identifikazio fiskaleko zenbakia; eragiketen zerga-oinarria (Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta); beharrezkoa denean, zerga-tasa eta zerga-kuota.Kutxairizpidearen araubide bereziaren menpeko eragiketen kasuan, eragiketaren kobrantza-egunak (eragiketa partez edo osorik kobratu bada) adieraziko dira, eta kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz jasoko da; horrez gainera, banku-korrontearen zenbakia edo kobratzeko erabilitako bidea adieraziko da (eragiketa partez edo osorik kobratu den egiaztatzeko), bai eta faktura zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

3. Jarduera ekonomiko bat egiten duen zergapeko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatzen badu jardueraren etekin garbia zehazteko eta, jarduera horretarako, kobrantzen eta ordainketen irizpidea hautatu badu, kobrantza bakoitzaren datu hauek erregistratu behar ditu hura gertatzen den ekitaldian: zenbatekoa, data, eragiketaren erreferentzia, eta —behar denean— fakturaren zenbakia.

4. Fakturazioaren inguruko betebeharrei buruzko araudian xedatutakoaren arabera hartzailea identifikatu beharrik ez badago, aurreko 2. zenbakian aipatzen diren fakturak banaka jasobeharrean laburpen-idazpenak egin daitezke, baldin eta denak Kontabilitateko Plan Orokorreko kontuen taulako kontzeptu berekoak badira eta jarduera berari badagozkio. Halako idazpen batean datu hauek adierazi behar dira: data, idazpenean jasotako lehen eta

azken agirien zenbakiak, zerga-oinarri orokorra, zerga-tasa, eta egun berean zenbaki korrelatiboekin emandako fakturen guztirako kuota, eta jarduerak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin diren ala ez. Eragiketen guztirako zenbatekoa ezin da izan 6.000 euro baino gehiago, BEZa sartu gabe. Eragiketak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren arabera egin badira, eragiketaren kobrantza-egunak (eragiketa partez edo osorik kobratu bada) adieraziko dira, eta kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz jasoko da; horrez gainera, banku-korrontearen zenbakia edo kobratzeko erabilitako bidea adieraziko da (eragiketa partez edo osorik kobratu den egiaztatzeko), bai eta kobrantzari dagokion laburpen-idazpena zalantza barik identifikatzeko behar diren datuak ere.

5. Faktura bat hainbat idazpenetan jaso daiteke, baldin eta zerga-tasa desberdinak aplikatzen zaizkien eragiketak hartzen baditu.

6. Gainera, fakturazioaren inguruko betebeharrei buruzko araudian aipatzen diren faktura zuzentzaileak ere erregistratu behar dira: aurreko 2. zenbakian aipatutako datuak ez ezik zuzendutako fakturen identifikazio-datuak ere zehaztu behar dira.

7. Aurreko 2., 5. eta 6. zenbakietan ezarritako idazpenak nahikoak izan behar dira jarduera bakoitzari eta Kontabilitateko Plan Orokorreko kontuen taulako kontzeptu bakoitzari zenbat egotzi behar zaion jakiteko.

8. Fakturak sarrerak erregistratu ondoren egiten badira, sarrera horiek dagokien kapituluan duten idazpen-zenbakia adierazi beharko da.

### 39 quater artikulua. Gastuen eta jasotako fakturen kapitulua

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen liburuko gastuen eta jasotako fakturen kapituluan erregistratu behar dituzte euren jarduera ekonomikoan egiten dituzten gastuak eta faktura, aduana-agiria edo beste frogagiriren bat jasotzea eragiten duten eragiketa guztiak.

2. Oro har, gastuak eta faktura edo beste frogagiriren bat jaso beharra eragiten duten eragiketak bereizita eta dataren araberako hurrenkeran erregistratu behar dira; erregistro bakoitzak elementu hauek eduki behar ditu gutxienez:

   - Idazpenaren zenbakia.
   - Eragiketaren deskripzioa; kontabilitateko zer kontutan erregistratu behar den aipatu behar da, aplikatu beharreko kontabilitateko plan orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz.
   - Gastuaren zenbatekoa, jarduera ekonomikoaren etekina zehazteko.
   - Eragiketaren ondasuna eta jarduera.
   - Gastua jarduera edo ondasun bati baino gehiagori badagokio, bakoitzari zenbat egozten zaion argitu behar da.
   - Eragiketaren data (egin den eguna), behar izanez gero.

   Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 64. artikuluan (jasotako fakturen erregistro-liburuari buruzkoa) eskatzen diren datu guztiak aipatu behar dira. Hauexek dira datuok: faktura jasotzeari dagokion zenbakia; faktura eman den eguna; eragiketa egin den eguna (faktura eman den egunean egin ez bada, eta hala ezarrita badago fakturan); faktura eman behar izan duenaren izendeiturak, sozietate-izena edo deitura osoa, eta beraren identifikazio fiskaleko zenbakia; zerga-oinarria (Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta); beharrezkoa denean, zerga-tasa eta zerga-kuota. Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpeko eragiketen kasuan eta araubide horren menpekoak ez baina araubide horren menpeko eragiketen hartzaileak diren subjektu

pasiboen kasuan, datu hauek jaso beharko dira: eragiketaren ordainketa-eguna (ordainketa zati batena izan zein osoa izan), kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz adierazita, eta eragiketaren ordainketa partziala edo osoa egiteko erabilitako bidea.

3. Jarduera ekonomiko bat egiten duen zergapeko batek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua aplikatzen badu jardueraren etekin garbia zehazteko eta, jarduera horretarako, kobrantzen eta ordainketen irizpidea hautatu badu, ordainketa bakoitzaren datu hauek erregistratu behar ditu hura gertatzen den ekitaldian: eragiketaren zenbatekoa, data eta erreferentzia, eta —behar denean— fakturaren zenbakia.

4. Data berean jasotako faktura guztien laburpen-idazpena egin daiteke, baldin eta denak Kontabilitateko Plan Orokorreko kontuen taulako kontzeptu berekoak badira eta jarduera edo ondasun berari badagozkio, honako hauek adierazita: hornitzaile berak bidalitako fakturen lehen eta azken zenbakiak, hornitzaileak emandakoak; zerga-oinarrien guztirako batura eta guztirako zerga-kuota eta, horrez gainera, jarduerak kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpe dauden ala ez, baldin eta eragiketen guztirako zenbatekoa (BEZa sartu gabe) 6.000 euro baino gehiago ez bada eta faktura bakoitzean dokumentatutako eragiketen zenbatekoa 500 euro baino gehiago ez bada (BEZa sartu gabe). Kutxa-irizpidearen araubide bereziaren menpeko eragiketen kasuan, datu hauek jaso beharko dira: eragiketaren ordainketa-eguna (ordainketa zati batena izan zein osoa izan), kasuan-kasuan dagokion zenbatekoa bereiz adierazita, eta eragiketaren ordainketa partziala edo osoa egiteko erabilitako bidea.

5. Faktura bat hainbat idazpenetan jaso daiteke, baldin eta zerga-tasa desberdinak aplikatzen zaizkien eragiketak hartzen baditu.

6. Gainera, fakturazioaren inguruko betebeharrei buruzko araudian aipatzen diren faktura zuzentzaileak ere erregistratu behar dira: aurreko 2. zenbakian aipatutako datuak ez ezik zuzendutako fakturen identifikazio-datuak ere zehaztu behar dira.

7. Aurreko 4., 5. eta 6.zenbakietan ezarritako idazpenak nahikoak izan behar dira jarduera eta ondasun bakoitzari eta Kontabilitateko Plan Orokorreko kontuen taulako kontzeptu bakoitzari zenbat egotzi behar zaion jakiteko.

8. Gainera, gastuetan erregistratu behar dira enpresaburuek edo profesionalek Europar Batasunaren barruan egiten dituzten zergapeko ondasun-eskuraketek eragiten dituzten ondasun-emateen fakturak.

   Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97. artikuluko bat ataleko 4. zenbakian aipatzen diren fakturen edo kontabilitateko frogagirien idazpenak ere egin behar dira.

9. Aurreko zenbakiko lehenengo paragrafoan aipatzen diren fakturen kasuan, dokumentatutako ondasun-emateei dagozkien Batasunaren barruko ondasun-eskuraketen zerga-kuotak kalkulatu beharko dira, eta faktura horien idazpenean jaso.

   Halaber, aurreko zenbakiko bigarren paragrafoan aipatzen diren fakturen edo kontabilitateko frogagirien kasuan, agiri horietan dokumentaturiko ondasun-emateen edo zerbitzugintzen zerga-kuotak kalkulatu beharko dira, eta faktura edo kontabilitateko frogagiri horiei buruzko idazpenetan jaso.

10. Fakturak gastuak erregistratu ondoren jasotzen badira, gastu horiek dagokien kapituluan duten idazpen-zenbakia adierazi beharko da.

**39 quinquies artikulua. Jarduerara afektatutako ondasunen eta inbertsio-ondasunen kapitulua**

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko jarduerara afektatutako ondasunen eta inbertsio-gastuen kapituluan

erregistratu behar dituzte jarduerara afektatutako lotutako ondasunak eta inbertsio-ondasunak.

Eragiketak erregistratzeko, honako hauek izango dira jarduerara afektatutako ondasunak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudian ezarritako baldintza eta mugak kontuan hartuta: jarduera ekonomikoa egiten den ondasun eta higiezinak eta etekina lortzeko beharrezkoa den beste edozein ondare-elementu, ondasunok zergadunarenak izan, alokatuak izan, edo beste titulu edo eskubide bat dela medio jardueran erabiltzen badira ere.

2. Jarduerara afektatutako ondasunen eta inbertsio-gastuen kapituluan hauek ere erregistratu behar dira, behar bezala banakatuta: 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek egiten duten jarduerara afektatutako ibilgetu materialeko, ibilgetu ukiezineko eta higiezinetako inbertsioetako elementuak; ondasun bakoitzeko datu hauek adierazi behar dira gutxienez:

- Idazpenaren zenbakia.
- Ondasunaren deskripzioa, ondasuna behar bezala identifikatzen laguntzen duten datu guztiak adieraziz.
- Noiz hasi den erabiltzen eta bizitza baliagarria. Ibilgetu ukiezineko elementuen kasuan, elementua noiz jaso edo eskuratu den.
- Amortizazioari dagokionez ondasunak duen balioa, dagokion amortizazio-kuota eta, hala badagokio, metatutako amortizazioa.
- Ondasun higiezinen kasuan, katastroko erreferentzia.
- Ibilgailu automobilen eta beste garraiobide batzuen kasuan, matrikula.

Gainera, ondasunaren eta jardueraren arteko afektazioaren ehunekoa zehaztu behar da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako, eta ondasun edo eskubidearen bajaren berri eman behar da (noiz eta zergatik gertatu den azalduta).

3. Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, inbertsio-ondasunen ziozko kenkariak erregularizatu behar direnean Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 107-110 bitarteko artikuluetan (biak barne) xedatu den bezala, foru arau horretako 108. artikuluaren arabera inbertsiokotzat jotzen diren ondasunen datu hauek jasoko behar dira idazpenean, aurreko 2. puntuan azaldutakoez gainera:

   a) Kenkarien urteko behin betiko hainbanaketa, eta —behar den kasuetan— urteko erregularizazioa ere bai.

   b) Erregularizazio-aldian inbertsio-ondasunik eman bada, ondasunaren deskripzioa jaso behar da, hauek adierazita: identifikaziorako behar diren datu guztiak; ematearen berri ematen duen sarreren eta emandako fakturen kapituluko idazpenaren erreferentzia; ematearengatik aplikatutako kenkariaren erregularizazioa (BEZari buruzko Foru Arauko 110. artikuluan zehaztutako prozedurari jarraituz egina).

### 39 sexies artikulua. Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen kapitulua

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek ondoko eragiketak idaztohartu behar dituzte erregistro-liburuko Batasunaren barruko eragiketa jakin batzuen kapituluan:

   1. Ondasunak bidali edo jaso izana Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluko lehenengo idatzzatiko 7. zenbakiko b) letran aipatzen diren aditu txostenak edo lanak egiteko.

   2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 3. zenbakian eta 16. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren Batasunaren barruko ondasunen transferentziak eta eskuraketak, are 9. artikuluko 3. zenbakiko e), f) eta g) paragrafoetako salbuespenetan aipatzen direnak ere.

2. Aurreko zenbakian aipatzen diren Batasunaren barruko eragiketen idazpenetan datu hauek zehaztu behar dira:

   1. Eragiketa eta beraren data (egin den eguna).

   2. Eragiketako ondasunen deskripzioa; behar den kasuetan eskuraketaren faktura edo edukitza-titulua adierazi behar da.

   3. Eragiketari dagozkion beste faktura edo agiri batzuk.

   4. Hartzailearen edo bidaltzailearen identifikazioa: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketarako identifikazio-zenbakia, sozietatearen izena eta egoitza.

   5. Ondasunak irten edo heldu diren Batasuneko estatua.

   6. Eragiketak egiteko ezarritako epea, ezarri bada.

   7. Ondasunen egoera, Batasunaren barruko ematea edo eskuraketa gertatu arte.

**39 septies artikulua. Horniduren eta aurrerakinen kapitulua**

Lanbide-jarduerak egiten dituzten araudi honetako 39 bis artikuluan aipatutako zergapekoek hornidurei buruzko datu hauek idaztohartu behar dituzte erregistro-liburuko horniduren eta aurrerakinen kapituluan:

- Idaztoharraren zenbakia.

- Eragiketa nolakoa den: Hornidura edo aurrerakina.

- Noiz gertatu den hornidura edo noiz ordaindu den aurrerakina.

- Horniduraren edo aurrerakinaren zenbatekoa.

- Hornidura ordaindu edo aurrerakina jaso duenaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-deiturak (edo sozietatearen izena).

- Eragiketa islatzen duen fakturaren zenbakia, egonez gero.

**39 octies artikulua. Eragiketa ekonomikoen liburua arteztea**

1. Bitarteko informatikoen bidez kudeatuko da erregelamendu honetan arautzen en eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua. Liburua kudeatzeko, Ogasun eta Finantza Sailak laguntza-programa bat jarriko du zergadunentzat eskuragarri.

   Programa horrek sortuko du erregelamendu honen 46 bis artikuluan adierazitako informazio-adierazpenean eman beharreko informazioa.

2. Erregistroko idaztoharretan balioak eurotan eman behar dira. Fakturako kontu-unitatea edo dibisa euroa ez beste bat bada, kopurua eurotara ekarri behar da erregistro-liburuan idaztoharra egiteko.

3. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan oker materiala edo egitezkoa gertatuz gero, ordezko aitorpen bat aurkeztu beharko da zuzenketa egiteko.

### 39 nonies artikulua. Erregistroan idaztoharrak egiteko epealdiak

1. Erregistro-liburuan agertu beharreko eragiketak hiruhilekoka bildu behar dira; lehen hiruhilekoko eragiketen idaztoharrak apirilaren 25a baino lehen egin behar dira, bigarren hiruhilekoko eragiketenak uztailaren 25a baino lehen, hirugarren hiruhilekoko eragiketenak urriaren 25 baino lehen, eta azken hiruhilekoko eragiketenak hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen.

2. Hala ere, eragiketa batean fakturarik ematen ez bada edo faktura erraztua ematen bada, zergapekoak zazpi eguneko epealdia edukiko du eragiketa egiten denetik liburuan erregistratzeko, baldin eta epealdi hori aurreko idatz-zatikoa baino laburragoa bada.

3. 39 sexies artikuluko 1. idatz-zatian aipatzen diren eragiketen idaztoharrak ondasunak bidaltzen edo garraiatzen direnetik zazpi egun pasatu baino lehen egin behar dira.

### 39 decies artikulua. Erregistroko idaztoharrak zuzentzea

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatzen diren zergapekoek aurreko artikuluetako idaztoharretan egiten dituzten akats materialak zuzendu beharko dituzte.

   Zuzenketa hauek idaztohar edo idaztohar-multzo baten bidez egin behar dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaldia amaitutakoan. Zuzenketa egin ondoren idaztoharreko edo idaztohar- multzoko datuak nahikoa izan behar dira Zergaren likidazioaldian benetan sortutako eta jasandako kopurua kalkulatzeko.

   Sarrera edo gastua sortu duen eragiketa batean faktura eman edo jaso beharrik ez badago, eta gainerako kasuetan modu orokorrean, akatsa zuzentzeko idaztoharra aurreko artikuluko 1. Idatz-zatian ezarritako epealdietan egin behar da.

2. 39 quinquies artikuluko 3 idatz-zatian aipatzen diren inbertsio-ondasunei dagokienez, ondasun horiek eskuratzeagatik aplika daitezkeen kenkarien erregularizazioan ondasunen idaztoharren ondoan egin behar dira.

### 39 undecies artikulua. Informazio gehigarria

Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan eragiketa hauen berri eman behar da:

a) Administrazio publikoetako erakundeek ematen dituzten diru-laguntzak, sorospenak eta laguntzak, 42.2 artikuluko bigarren paragrafoan aipatutakoak.

b) Negozio-lokalen errentamenduak (araudi honetako 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako denak batera hartu behar dira kontuan). Honelakoetan errentatzaileak datu hauek adierazi behar ditu: Errentariaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendazio osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia; errentatutako higiezinaren katastroko erreferentzia edo zenbaki finkoa eta non dagoen jakiteko behar diren datu guztiak.

c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko emate izan edo izango diren ondasun higiezinen eskualdaketen kontraprestazio gisa jasotako kopuruak.

d) Ceuta eta Melillako Ekoizpen, Zerbitzu eta Inportazioaren gaineko Zergaren kargapeko eragiketak.

e) Nekazaritzako konpentsazioak ordaintzen dituzten enpresaburu edo profesionalen eragiketak, fakturazioaren inguruko betebeharrei buruzko araudian aipatzen den ordainagiria luzatu badute.

### 39 duodecies artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak elektronikoki egiteko hautua

Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen den hautua ekitaldi osoan zehar egin ahal izango da. Horretarako, zentsu-aitorpena aurkeztu beharko da, eta hautua egin ondoren hasten den lehen likidazio-aldian izango ditu ondorioak.

Hautu hori hurrengo urteetarako ere badela ulertuko da, harik eta uko egiten ez zaion arte.

Erregistro-liburuak sistema hori erabiliz egiteko hautua egiten dutenek gutxienez hautu hori egin duten urte naturalean zehar hornitu behar dituzte fakturazio- erregistroak.

Uko egiteko, Zerga Administrazioko organo eskudunari komunikatu behar zaio, horretarako zentsu-aitorpena aurkeztuz, eta ukoak ondorioak izango dituen urte naturalaren aurreko azaroan egin behar da komunikazio hori.

Hileko itzulketa-erregistroan inskribatuta dauden subjektu pasiboak erregistro horretatik kanpo geratzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 30. artikuluko 6. zenbakian ezarritakoa aplikatuz, ez dute izango erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko betebeharrik, hileko itzulketa-erregistrotik kanpo uzteko erabakia jakinarazi den likidazio-aldiaren lehenengo egunetik aurrera.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 163 septies artikuluan ezarritakoarekin bat utzi egiten bazaio erakunde- taldeen araubide berezia aplikatzeari, araubidea aplikatzeari uzten zaionetik aurrera nahitaez Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin beharko dira erregistro-liburuak.

Aurreko paragrafo bietan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta enpresaburu edo profesionalen likidazio-aldiak hil batekoa izaten jarraitzen badu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 71. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren arabera.

### 39 terdecies artikulua. Fakturazio-erregistroak elektronikoki igortzeko epeak.

1. Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan, fakturazio-erregistroak epe hauetan hornitu behar dira:

   a) Egindako fakturei buruzko informazioa faktura egin eta lau egun naturaleko epearen barruan hornitu behar da, hartzaileak edo hirugarren batek egindako fakturak direnean izan ezik; izan ere, azken kasu horretan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 164 artikuluko 2 zenbakian ezarritakoarekin bat, zortzi egun naturaleko epea egongo da informazio hori hornitzeko. Kasu batean zein bestean, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zergaren sortzapena gertatu aurreko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori. Hala ere, zergari loturik ez dauden, baina faktura egitea behar duten eragiketak direnean, azken epe hori zehazteko, eragiketa egin zen data hartuko da erreferentziatzat.

   b) Jasotako fakturei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da, faktura kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuta, eta, edozelan ere, eragiketei dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen.

      Inportazio-eragiketen kasuan, aduanan likidatutako kuota agerrarazten duen dokumentua kontabilitatean erregistratzen den egunetik zenbatuko dira lau egun natural horiek, baina, edozelan ere, eragiketoi dagokien likidazio-aldiaren osteko hileko 16a baino lehen hornitu behar da informazio hori.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 66. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren eragiketei buruzko informazioa ere lau egun naturaleko epean hornitu behar da, bidalketa edo garraioa hasten den unetik zenbatuta, edo, bestela, kasuan kasuko eragiketako ondasunak jasotzen diren unetik zenbatuta.

d) Egindako eta jasotako faktura zuzentzaileei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornitu behar da, faktura egin edo fakturaren kontabilitateko erregistroa, hurrenez hurren, egin zen egunetik zenbatuta.

   Hala ere, zuzenketaren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko abenduaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 114.Bi.1 artikuluan xedatutakoaren arabera hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gehitzen bada, aurreko b) letran jasotako fakturentzat ezarritakoa izango da epea.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 9.1.2.B artikuluan aipatzen den itzultzeko dokumentu elektronikoari buruzko informazioa bidaiariak jasandako kuotaren itzulketari dagokion zergaren zuzenketa sartzen den likidazio- aldiaren osteko hileko 16a baino lehen eman behar da.

Aurreko a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren lau eta zortzi egun naturaleko epeak zenbatzeko ez dira aintzat hartuko egun baliogabeak.

2. Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketei buruz hornitu beharreko informazioaren kasuan, aurreko paragrafoetan adierazitako epeetan hornitu beharko da informazio hori, eragiketoi araubide berezi hori aplikatu beharko ez balitzaie bezala, baina kontuan hartuta eragiketa horiei lotutako kobrantza edo ordainketa osoak edo partzialak egiten direnean ere zenbait datu hornitu beharko direla. Kobrantza eta ordainketei buruzko informazioa lau egun naturaleko epean hornituko da, kobrantza edo ordainketa egin zenetik zenbatuta.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiaren 70. artikuluan aipatzen diren erregistroko zuzenketan kasuan, zuzenketa horiek jasotzen dituzten fakturazio-erregistroak hornitu behar dira, hain zuzen, zergapekoa egin duen akatsaz ohartzen den aldia amaitu osteko lehenengo hileko 16a baino lehen.

**39 quaterdecies artikulua. Erregistro-liburuak elektronikoki egin baino lehenagoko aldia dela-eta eman beharreko informazioa.**

1. Urte naturaleko lehen eguna ez den beste batetik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkezten hasi diren subjektu pasiboek data hori baino lehenagoko aldiari dagozkion fakturazio-erregistroak (urte natural berekoak) bidali beharko dituzte. Erregistro horietan aldi horretan egin, eta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 63.3, 64.4 eta 66.2 artikuluetan araudi horren 62.6 artikuluan aipatutako pertsona eta entitateak ez direnentzat ezarritakoarekin bat, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion erregistro-liburuetan jaso behar diren eragiketak agertu beharko dira.

   Informazio hori ematen denean, adierazi beharko da subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkezteko betebeharra izan aurreko aldikoak direla eragiketa horiek, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 63. eta 64. artikuluetan aipatzen diren zehaztapen teknikoak, prozedura, formatua eta diseinua bete beharko dira. Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru agindu bidez zehaztuko dira alderdi horiek.

   Aldi horri dagozkion fakturazio-erregistroak bidaltzeko epea honako hau izango da: betebeharra sortzen den egunetik ekitaldi horretako abenduaren 31ra arte.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 65. artikuluan jasotako inbertsio-ondasunen erregistro-liburuan ekitaldi osoari dagozkion idatzoharrak jasoko dira.

3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 63.3 eta 64.4 artikuluetan aipatzen den tributuen arloko gainerako informazioan ekitaldi osoari dagozkion eragiketak agertu beharko dira.

# VI. TITULUA.
# INFORMAZIO BETEBEHARRAK.

## I. KAPITULUA.
## XEDAPEN OROKORRAK.

### 40. artikulua. Informazio betebeharren baterako alderdiak.

1. Egindako atxikipenen eta konturako sarreren laburpenak Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu behar zaizkio, beraiei buruzko arautegietan ezarritakoarekin bat etorriz, haietan jaso beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak ordainarazteko eskumena berak badauka.

   Baloreen errenten kobrantza kudeatzen duten edo haien gordailuzain diren erakundeek bidezko arautegiaren arabera atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak aurkeztu behar badituzte, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu behar dizkiote laburpenok, beraiei buruzko arautegietan ezarritakoarekin bat etorriz, halako erakundeak egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena berak badauka.

   Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo izaki hura Bizkaiko Foru Aldundiari ordaindu behar dioten erakundeek Ekonomi Ituneko 7.bat.c) eta 9.bat.lehena.a) artikuluetan aipatutako etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpenak aurkeztu behar dituzte, eta horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak tokiaz, moduaz eta epealdiaz ezartzen duenari lotu beharko zaizkio.

2. Legez ezarritako zergen arloko informazioaren inguruko betebehar orokorrak betetzeko aurkezten diren aitorpenak ondoko irizpideak kontuan hartuz aurkeztu behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, berariazko arautegia betetzeaz gainera:

   a) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, Bizkaiko Foru Aldundiak badauka enpresa eta lanbide jarduerak egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena.

   b) Jarduera ekonomikorik egiten ez duten zergapekoak, zerga egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badaukate.

### 41. artikulua. Informazio betebeharrak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan ezarritako informazio betebeharrak beraiei buruzko arauetan eta kapitulu honetan ezarritakoari lotuta bete behar dira.

2. Bai Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, bai atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak edo etekinak ordaintzen dituztenek, bai eta eragiketa ekonomikoetan, lanbide eragiketetan edo finantza eragiketetan parte hartzen duten edo bitartekari gisa aritzen direnek ere informazio orokorra eman behar dute berariazko arautegian, elkarren laguntzari buruzko araudian eta kapitulu honetan ezartzen denarekin bat etorriz.

   Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak aurkeztu beharreko aitorpenen ereduak onetsiko ditu, non eta zein epealditan aurkeztu behar diren zehaztuko du, eta aitorpenak zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian edo baliabide telematikoen bitartez zein kasutan aurkeztu behar diren ezarriko du.

3. Informazioa eman beharra zergen arloko betebeharren inguruko denetariko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga ordainketan eragina izan dezaketenak, eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak aurkezteko banako agindeiei erantzunez bete daiteke, nahiz eta Zerga Administrazioari aitorpen bidez eman beharrik eduki ez. Honelako kasuetan, zergapekoek agindeian bertan ezarritako moduan eta epealdian aurkeztu behar dute eskatutako informazioa. Informazioa lortzeko jarduketak datuak dituzten pertsonaren edo erakundearen

lokal, bulego edo egoitzetan egin daitezke edo zerga-ordainketan eragina duten datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak Zerga Administrazioari bidaltzeko agindeia eginez.

Informazioa lortzeko jarduketak administrazio-organo jardulearen ekimenez edo, legez ezarritako lankidetzetan, beste administrazio edo jurisdikzio organo batzuek eskatuta egin daitezke; beste estatu batzuek edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuek eskatuta ere egin daitezke, elkarren laguntzaren esparruan.

Hirugarrenei buruzko informazioa lortzeko banako agindeiak zergak ordainarazteko prozeduretan zein haietatik bereiz egin daitezke. Pertsona eta erakundeen zerga betebeharren inguruko agindeiek inolaz ere ez dute eragingo egiaztapen ez ikerketa prozedurarik.

5. Zergapekoei zergak aplikatzeko prozeduretan, haiei buruzko arauekin bat etorriz, bidaltzen zaizkien datu, txosten, aurrekari eta frogagiri eskaerak ez dira informazio agindeitzat hartuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoaren ondoreetarako.

## II. KAPITULUA.
## AITORPEN INFORMATIBOAK AURKEZTU BEHARRA.

### 1. ATALA.
### HIRUGARRENEKIN EGINDAKO ERAGIKETEI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN BEHARRA.

#### 42. artikulua. Hirugarrenekin egindako eragiketei buruzko informazioa eman behar dutenak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 92. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa edo profesional jardueraren bat egiten Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 92. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa edo profesional jardueraren bat egiten duten pertsona fisikoek eta juridikoek, publikoek zein pribatuek, eta foru arau horretako 34.3 artikuluan aipatutako erakundeek urtean zehar hirugarrenekin egindako eragiketei buruzko aitorpena aurkeztu behar dute.

   Honetarako, enpresa edo profesional jarduerak dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 5.bi artikuluan hala definitutako guztiak. Halaber, halakotzat hartuko dira foru arau horretako 5. artikuluko lehenengo idatzzatian enpresaburu edo profesional kalifikatutakoek egiten dituzten jarduerak, e) paragrafoan xedatutako salbuespenarekin.

   Jabetza Horizontalari buruzko ekainaren 21eko 49/1960 Legea aplikatzen zain erakundeek eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako gizarte izaerako erakundeek eta establezimendu pribatuek urtean hirugarrenekin egindako eragiketen aitorpenean sartu behar dituzte enpresa edo profesional jardueretatik kanpo egiten dituzten ondasun eta zerbitzu eskuraketak, nahiz eta halako jarduerarik egin ez.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 93. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan aipatutako pertsonek eta erakundeek enpresa eta lanbide jardueretatik kanpo egiten dituzten ondasun eta zerbitzu eskuraketak ere sartu behar dituzte hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenean, baita halako jarduerarik egiten ez badute ere.

   Administrazio publikoetako erakundeek, gainera, hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenean ondoko hauek sartu behar dituzte: aurrekontu orokorren kargura ematen edo administrazio publikoetakoak ez diren erakunde edo organismoen kontura kudeatzen dituzten diru-laguntzak, laguntzak edo sorospenak.

Lurralde historikoetako administrazioek, Estatuko Administrazioak, autonomia erkidegoek, erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta gainerako lurralde administrazio publikoetako erakundeek urtean hirugarrenekin egindako eragiketen laburpena aurkeztu behar dute; laburpenean identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen enpresa edo lanbide jardueren arlo bakoitzeko eragiketak multzokatuta ager daitezke edo, bestela, denak batera.

Administrazio publikoetako erakundeek urteko laburpen bat aurkezten badute identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen enpresa edo lanbide jardueren arlo bakoitzeko, idatz-zati honetan eskatzen diren datuak aitorpen guztietan adierazi behar dituzte.

Orobat, aurreko paragrafoan aipatutako erakundeek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Administraziokoek eta hari atxikitako erakunde autonomoek ez besteek, nahiz eta ez enpresa ez lanbide jarduerarik egin ez, urteko aitorpen bat aurkez dezakete identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen sail, atal edo organo berezi bakoitzeko pertsonekin egindako eragiketez.

3. Gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 92.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, sozietateek, elkarteek, profesionalen elkargoek eta, besteak beste, bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura ogibidesariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko eskubideak kobratzen dituzten erakundeek hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenean sartu behar dituzte etekin horiek.

**43. artikulua. Zer pertsona edo erakundek ez duten hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenik aurkeztu behar.**

Honako hauek ez dute urteko aitorpenik aurkeztu behar:

a) Espainiako lurraldean beren jarduera ekonomikoaren egoitzarik, establezimendu iraunkorrik edo zerga egoitzarik izan ez arren, Espainian enpresa- edo lanbide-jarduerak egiten dituztenak, edo, atzerrian eratutako errenta-eratxikipenaren araubideko erakundeen kasuan, Espainian presentziarik izan gabe jarduten dutenak.

b) Errenta-eratxikipenaren araubidean dauden pertsona fisikoek eta erakundeek ez dute goian aipatutako aitorpena aurkeztu behar Balio Erantsiaren gaineko Zergan araubide erraztu berezia, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia edo baliokidetasun-errekarguaren araubide berezia aplikatzen zaien jarduerengatik. Salbuespena: faktura eragiten duten eragiketak.

   Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide erraztuari heldutako subjektu pasiboek urtean hirugarrenekin egindako aitorpenean sartu behar dituzte Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 40. 1 artikuluan arabera jasotako fakturen erregistroliburuan idaztohartu behar diren ondasun eta zerbitzu eskuraketak.

c) Urte naturalean zehar beste pertsona edo erakunde batekin egindako eragiketetan guztira 3.005,06 euro gainditu ez dituzten zergadunak, edo, epe berean, honako kasu hauetan 300,51 euro gainditu ez dituztenak: hirugarrenen kontura lanbide-ordainsariak edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozkoak edo bazkideen, kideen edo elkargokideen konturako beste batzuk kobratzen.

d) Araudi honen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera aitortu behar ez diren eragiketak soilik egin dituzten zergapekoak.

e) Araudi honen 46 bis artikuluan ezarritakoaren arabera eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuan jasotako eragiketen berri eman behar duten zergapekoak, araudi honen 39 bis artikuluan ezarritakoak.

f) Araudi honen 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren zergapekoak.

### 44. artikulua. Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenaren edukia.

1. Araudi honetako 42. artikuluko lehenengo idatz-zatian aipatutako zergapekoek urteko eragiketen aitorpenean ondokoak sartu behar dituzte: egutegiko urtean egindako eragiketen guztirako zenbatekoa 3.005,06 eurotik gorakoa den pertsona eta erakunde guztiak, haien izaera edo jitea gorabehera.

   Eragiketa horiei buruzko informazioa hiruhilekoka banakatuta eman behar da. Horretarako, bereiz zenbatuko dira ondasun eta zerbitzuen emateak eta eskuraketak.

   Aurreko paragrafoetan ezarritakoaren ondoreetarako, eragiketatzat hartuko dira ondasun eta zerbitzuen emateak eta eskuraketak. Batzuetan zein besteetan, ohiko eragiketak, lantzean behingoak, higiezinekin egindako eragiketak eta itzuli behar ez diren dirulaguntzak, sorospenak eta laguntzak sartu behar dira.

   Urteko aitorpenean ondokoak sartu behar dira, hurrengo idatz-zatiko salbuespenak kontuan hartuta: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean eta hartatik salbuetsita ez dauden ondasun emateak eta eskuraketak eta zerbitzugintzak, bai eta zerga horren kargapean ez daudenak eta salbuetsita daudenak ere.

   Aseguru-erakundeek aseguru-eragiketak ezarri behar dituzte euren urteko aitorpenean. Horretarako, jasotako prima edo kontraprestazioen zenbatekoa eta ordaindutako kalte-ordainen edo prestazioena hartuko dira kontuan; eragiketa horiei inolaz ere ez zaie aplikatuko hurrengo idatz-zatiko a) paragrafoan xedatutakoa.

   Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan ezarritako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien subjektu pasiboek eta bertan sartzen diren eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek urte naturalean sortutako zenbatekoak zehaztu behar dituzte urteko aitorpenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 75. artikuluan ezarritako sortzapenaren erregela aintzat hartuta. Gainera, eragiketa horiek urte naturalean sortutako zenbatekoen aitorpenean ere ezarri behar dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 163 terdecies artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

   Idatz-zati honetako bigarren paragrafoan xedatutakoaren salbuespena: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan ezarritako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak egiten dituzten subjektu pasiboek eta Jabetza Horizontalari buruzko ekainaren 21eko 49/1960 Legea aplikatzen zaien erakundeek urteko konputua oinarritzat hartuta eman behar dituzte urteko aitorpeneko datu guztiak. Halaber, kutxa irizpidearen araubide berezian dauden eragiketen hartzaile diren subjektu pasiboek ere urteko konputua oinarritzat hartuta eman behar dituzte aurreko paragrafoan aipatutako eragiketa horien inguruko datu guztiak.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, ondoko eragiketak ez dira aitortu behar:

   a) Zergapekoek faktura egin edo eman beharra ekarri ez duten ondasun-emateak eta zerbitzugintzak, fakturan hartzailearen identifikazio- datuak ipini beharrik izan ez den ondasun emateak eta zerbitzugintzak, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko eskuratzaileak igorritako ordainagiria sinatu beharra eragin ez dutenak.

   b) Zergapekoen enpresa eta profesional jardueratik kanpo egindako eragiketak.

   c) Dohaineko ondasun-emateak, ondasun-eskuraketak eta zerbitzugintzak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean ez daudenak edo hartatik salbuetsita daudenak.

   d) Pertsona fisikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek enpresa eta profesional jardueretatik kanpo egindako ondasun- errentamenduak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargatik salbuetsita egonez gero.

e) Efektu tinbredunen edo estankatuen eta frankeo-zeinuen eskuraketak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 136.1.3.a) artikuluan ezarritako definizioaren arabera bildumarako objetutzat jotzen direnak alde batera utzita.

f) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatutako gizarte arloko erakundeek eta establezimenduek egindako eragiketak, beraien jardueraren sektorekoak izanez gero eta ondasun-emateak eta zerbitzugintzak Zergatik salbuetsita badaude. Horrek ez du eragozten araudi honetako 42. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritakoa.

g) Salgaien inportazioak eta esportazioak, eta zergapekoek Espainiako lurraldetik kanpoko establezimendu iraunkorretatik edo halako establezimenduetara egindako eragiketak. Salbuespenak: zergapekoaren egoitza Espainian egotea eta eragiketa egin den pertsonak edo erakundeak Espainiako lurraldeko establezimendu batetik jardutea.

h) Espainiako lurralde penintsularraren edo Balear uharteen eta Kanariar uharteen, Ceutaren edo Melillaren arteko bidalketak eragiten dituzten ondasun-emateak eta ondasun-eskuraketak.

i) Oro har, Zerga Administrazioari aldizka informazioa eman beharra eragiten duten eragiketak, baldin eta horren ondorioz atal honetan araupetutako aitorpenetan ez beste batzuetan sartzen badira, informazioa bera dela.

3. Araudi honetako 42.2 artikuluan aipatutako zergapekoek urteko eragiketen aitorpenean ondokoak sartu behar dituzte: enpresa eta profesional jardueretatik kanpo egindako ondasun edo zerbitzu eskuraketetan 3.005,06 €-ko kopurua gainditu duten pertsona eta erakunde guztiak, haien izaera edo jitea gorabehera, ondokoak izan ezik:

a) Salgaien inportazioak.

b) Espainiako lurralde penintsularraren edo Balear uharteen eta Kanariar uharteen, Ceutaren edo Melillaren arteko bidalketak eragiten dituzten ondasun-eskuraketak.

c) Artikulu honetako 2. idatz-zatiko e) eta i) paragrafoetan ezarritakoak.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 3. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren administrazio publikoetako erakundeek ondokoak sartu behar dituzte aitorpenean: diru-laguntzaren bat eman dioten pertsona eta erakunde guztiak, diru-laguntzaren zenbatekoa gorabehera. Nolanahi ere, kasu honetan aurreko idatz-zatiko i) paragrafoan ezarritako salbuespena aplikatuko da.

4. Araudi honetako 42.3 artikuluan aipatutako zergapekoek bertan aipatutako ordainketak sartu behar dituzte urtean hirugarrenekin egindako eragiketen aitorpenean, pertsona bakoitzari guztira egotzitako kopurua 300,51 euro baino gehiago izanez gero.

5. Araudi honetako 42.1 artikuluan aipatzen den aitortu beharrak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legea aplikagarri zaien erakundeei dagokienez, ez ditu barruan hartuko honako eragiketa hauek:

- Erabilera eta kontsumo komunitariorako edozein motatako erregaien eta energia elektrikoaren hornidura.

- Erabilera eta kontsumo komunitariorako ur hornidura.

- Gune eta elementu komunekin zerikusia duten ondasunak eta eskubideak aseguratzea xede duten aseguruen ondoriozkoak.

6. Araudi honetako 42.1 artikuluan aipatutako aitortu beharrak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 20.Hiru artikuluan aipatzen diren gizarte izaerako erakunde edo establezimendu pribatuei dagokienez, ez ditu barruan hartuko honako eragiketa hauek:

- Ur, argindar eta erregai hornidura.

- Aseguruen ondoriozko eragiketak.

**45. artikulua. Nola bete hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpena.**

1. Urtean hirugarrenekin egindako eragiketen aitorpenean datu hauek adierazi behar dira:

   a) Aitortzailearen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo deitura osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza.

   b) Aitorpenean sartutako pertsona edo erakunde bakoitzaren izen-deiturak edo sozietatearen izena edo deitura osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, edo, hala behar denean, eragiketa zein enpresaburu edo profesionalekin egin den, establezimendua dagoen Estatu kideak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako hari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

   c) Aitorpenaren egutegiko urtean pertsona edo erakunde bakoitzak egindako eragiketen guztirako zenbatekoa, eurotan.

   d) Negozio lokalen errentamenduak, alderdi euren arteko gainerako eragiketatik bereizita; nolanahi ere, araudi honetako 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako denak batera hartu behar dira kontuan. Honelako kasuetan, errentatzaileak datu hauek zehaztu behar ditu: errentarien izen-deiturak edo sozietate izena edo deitura osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta errentatutako higiezinak non dauden jakiteko behar diren katastroko erreferentziak eta beharrezko gainerako datu guztiak.

   e) Aseguru-erakundeek bereizita agertu behar dituzte aseguru- eragiketak. Horretarako, aseguruen arloko jardunean jasotako prima edo kontraprestazioen zenbatekoa eta ordaindutako kalteordainen edo prestazioena zehaztu behar dituzte. Hala ere, aseguru-eragiketak bereiz identifikatu behar badira ere, araudi honetako 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako haien zenbatekoa beste eragiketa guztienari batu behar zaio.

   f) Bidaia-agentziek bereiz adierazi behar dituzte besteren kontura bitartekari gisa aritzen diren zerbitzugintzak, hain zuzen ere urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuak onetsitako Fakturazio Betebeharrei buruzko Araudiko hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztenak.

      Halaber, bereiz adierazi behar dituzte garraio zerbitzuen jasotzaileei bidaiarien eta haien fardelen garraiorako besteren kontura egiten dizkieten bitartekaritza zerbitzuak, aurrean aipatutako hirugarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz.

   g) Bereizita aitortu behar dira sozietateek, elkarteek eta profesionalen elkargoek euren bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura egindako ogibidesarien edo jabetza intelektualaren edo industrialaren edo egilearen jabetzaren ondoriozko eskubideen kobrantzak, araudi honetako 42.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

   h) Aitorpenean ageri den pertsona edo erakunde bakoitzak esku-dirutan emandako 6.000 eurotik gorako zenbateko guztiak azaldu behar dira.

   i) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapeko emate izan edo izango diren ondasun eskualdaketen kontraprestazio gisa jasotako kopuruak zehaztu behar dira, alderdi eurek egindako bestelako eragiketatik bereizita.

j) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kutxa irizpidearen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak zehaztu behar dira, alderdi eurek egindako bestelako eragiketetatik bereizita. Eragiketa horiek honako irizpide hauen arabera hartu behar dira kontuan:

   - Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 75. artikuluan dagoen sortzapenaren erregela orokorraren arabera sortzen diren unean, eragiketa horiei araubide berezia aplikagarri izan ez balitzaie bezala.

   - Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 163 terdecies artikuluan dauden irizpideekin bat etorriz osorik edo zati batean sortzen diren unean, dagozkien zenbatekoen arabera.

k) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 84.1.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz subjektu pasiboa hartzaile den eragiketak alderdi euren artean egindako beste eragiketetatik bereiz adieraziko dira.

l) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren eranskineko bosgarren idatz-zatian definitutako aduana-araubideez bestelako gordetegien araubideari atxikita dauden edo atxikitzekoak diren ondasunekin zerikusia izateagatik Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaindu beharretik salbuetsi diren eragiketak alderdi euren artean egindako beste eragiketetatik bereiz adieraziko dira.

2. Pertsona edo erakunde bakoitzarekin egindako eragiketen guztirako zenbatekoa zehazteko irizpide hauek aplikatuko dira:

   a) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kargapean eta hartatik salbuetsita ez dauden eragiketetan, kontraprestazioen guztirako zenbatekoa adierazi behar da, zerga horren zioz jasanarazitako edo jasandako kuotak eta errekarguak barne.

   b) Ondasunaren eskualdatzaileari edo zerbitzuaren egileari, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari buruzko araubide bereziaren arabera, konpentsazioren bat jasotzeko eskubidea sortarazi dioten eragiketetan, kontraprestazioen guztirako zenbatekoa adierazi behar da, jasotako edo ordaindutako konpentsazioak gehituta.

      Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 84. artikuluko lehenengo idatz-zatiko bigarren paragrafoan aipatutako eragiketetan, kontraprestazioen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

   c) Atal honetan xedatutakoaren ondoreetarako, hauxe izango da kontraprestazioaren guztirako zenbatekoa: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 78, 79 eta 80. artikuluetan zerga oinarria kalkulatzeko arauak aplikatzearen emaitzako kopurua, Zergaren kargapean egon ez edo hartatik salbuetsita egon eta hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenean sartu behar diren eragiketak barne. Nolanahi ere, artikuluko honetako 4. idatz-zatian xedatutakoa bete behar da.

3. Bitartekaritza eta agentzia edo komisioko eragiketetan, agenteak edo komisiodunak besteren izenean dihardueneanean, zerbitzugintzei dagozkien kontraprestazioen guztirako zenbateko banakatua adierazi behar da aitorpenean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zioz jasanarazitako edo jasandako kuotak barne.

   Agenteak edo komisiodunak bere izenean jardun badu, ondasunak edo zerbitzuak berak jaso, eman edo egin dituela pentsatuko da, eta ondorioz haien kontraprestazio, kuota eta errekarguen guztirako zenbatekoa aitortu behar da.

4. Artikulu honetan 2.c) idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorriz, eragiketen guztirako zenbatekoa garbi aitortu behar da, hau da, itzulketak, deskontuak eta hobariak kontuan hartu gabe eta egutegiko urtean bertan ondoregabetutako eragiketak zenbatu gabe. Gainera, kontuan eduki behar dira egutegiko urtean prezioan gertatutako aldakuntzak.

Kaudimengabeziaren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 80. artikuluko hirugarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera, atal honetan araupetutako aitorpenaren egutegiko urtean zerga horren oinarria aldatu bada, aitortu beharreko eragiketen guztirako zenbatekoa kalkulatzean kontuan eduki behar dira aldaketak.

### 46. artikulua. Aldi egozketarako irizpideak.

1. Urteko aitorpenean zergapekoak aitorpenaren egutegiko urtean egin dituen eragiketak agertu behar dira.

   Horretarako, hona zeren arabera ezarriko den noiz eginak diren eragiketak: eragiketok egiaztatzeko faktura edo kontabilitateko agiria erregistroan jaso behar den epean, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 69. artikuluan ezarritakoaren arabera.

   Aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko j) letrako hirugarren zenbakian aipatzen den Balio Erantsiaren gaineko Zergako kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarri zaien eragiketak, baina, euren sortzapen osoa edo partziala gertatzen den egutegiko urtean adieraziko dira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 163 terdecies artikuluan dauden irizpideei jarraituz, dagozkien zenbatekoekin.

2. Bestalde, 45. artikuluko 4. zenbakian ezarritako kasuetan, hirugarrenekin egindako eragiketa bati berez dagokion urteko aitorpenaren urte naturalean barik beste batean gertatuz gero kasuok, aldaketa eragin duen inguruabarra gertatu den urte naturaleko aitorpenean sartu behar dira. Horretarako, aldaketa horiek kontuan hartuta jasoko da aitorpenean pertsona edo erakunde batekin egindako eragiketen zenbateko osoa.

   Halaber, 45. artikuluko 4. zenbakian aurrez ikusiriko kasuetan, eragiketa bat berez jaso behar den hiruhileko naturalean barik beste batean gertatuz gero kasuok, aldaketa eragin duen inguruabarra gertatu den hiruhileko naturalari dagokion atalean sartu behar dira.

3. Bezeroen eta hornitzaileei zein bestelako hartzekodunei emandako aurrerakinak urteko aitorpenean agertu beharreko eragiketak dira. Gero, eragiketa egiten denean, eragiketaren guztirako zenbatekoa adierazi behar da aitorpenean, baina aurretik aitortutako aurrerakinaren zenbatekoa kenduta, baldin eta gutxipenaren emaitzako kopurua, pertsona edo erakunde berarekin egindako gainerako eragiketak batuta, 44.1. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoa baino gehiago.

4. 42.2. artikuluko bigarren paragrafokoan aipatutako zergapekoek emandako diru-laguntzak, sorospenak eta laguntzak ordainketa-agindua luzatu den egunean ordaindutzat joko dira. Ordainketa-agindurik eman ez bada, ordainketa egin denean ordaindutzat joko dira.

5. 45.1.h) artikuluan aipatutako eskudirutako ko p uruak ezin badira sartu eragiketak egin diren egutegiko urteko aitorpenean, aurkeztu ondoren jaso direlako edo 6.000 euroko zenbatekoa gainditu ez delako, zergapekoek bereizita sartu beharko dituzte kobrantza gertatu edo 6.000 euroko zenbatekoa gainditu denaren hurrengo urteko aitorpenean.

## 1. BIS ATALA.
## ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO-LIBURUKO EDUKIAREN BERRI EMAN BEHARRA

### 46. bis artikulua. Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko edukiaren berri eman beharra

1. Araudi honetako 39 bis artikuluan aipatzen diren zergapekoek artikulu horretan aipatzen den eragiketa ekonomikoen erregistro- liburuko edukiaren berri eman behar dute aitorpen informatibo baten bidez.

2. Aitorpen horretan bertan eman behar dute araudi honetako 45. artikuluko 1. zenbakiko h) letrako eragiketen berri, halakorik bada.

3. Urte bateko informazioa biltzen duen aitorpen informatiboa hurrengo urteko otsailean aurkeztu behar da, eta aurkeztu ere baliabide telematikoen bidez nahitaez.

## 2. ATALA.
## ZERGA-PLANGINTZAKO MUGAZ GAINDIKO MEKANISMOEN INFORMAZIO-BETEBEHARRAK.

### 47. artikulua. Plangintza fiskaleko mekanismo jakin batzuei buruzko informazioa emateko betebeharra.

1. Betebehar honen ondorioetarako zerga bitartekaritzat hartu ziren pertsona edo erakundeek, erregelamendu honen 47.bis artikuluan ezarritakoarekin bat, edo hala badagokio, 47.ter artikuluan jasotzen diren zergadun interesdunek, artikulu honen 2. atalean aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismoak jakinarazi beharko dizkiote zerga administrazioari, hurrenez hurren esku hartzen edo parte hartzen dutenak, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauean, 77/799/EE zuzentaraua indargabetzen duen zerga esparruko administrazio lankidetzari buruzkoan, IV. eranskinean, zerga arloko administrazio lankidetzari buruzkoan, jasotzen diren ezaugarrietako bat betetzen bada.

2. Aitortzeko zerga plangintzako mekanismotzat hartuko da jakinaraztera behartu eta baldintza guztiak betetzen dituzten mugaz gaindiko erabaki, negozio juridiko, eskema edo eragiketa guztiak.

   Ondorio horietarako, mekanismo batek zenbait mekanismo ere barne hartuko ditu, eta mekanismo bat fase bat edo haren zati batez osatuta egon daiteke.

   Ez dira banakako mekanismotzat hartuko aitortu behar diren mekanismoak formalizatzearen ondorioz egindako gastuak, banakako tratamendua izatera behartzen duen izaera ez badute. Hala ere, azken mekanismo horren edukitzat har daiteke.

3. Zerga administrazioan aitortu beharko dira mugaz gaindikotzat hartzen diren mekanismo guztiak, 2011/16/EB Zuzentarauko IV. eranskinean, erregelamendu honetan garatutako baldintzetan, jasotzen diren ezaugarrietako bat betetzen bada.

   Informazio betebehar honen ondorioetarako mugaz gaindiko mekanismotzat hartuko dira Estatu kide batean baino gehiagotan edo Estatu kide batean eta hirugarren zerga jurisdikzio batean eragiten dutenak, baldintza hauetako bat betetzen bada:

   a) Mekanismoan parte hartzen duten pertsona edo erakunde guztiak jurisdikzio bereko egoiliar fiskalak ez izatea.

   b) Mekanismoan parte hartzen duen pertsona edo erakunde bat baino gehiago jurisdikzio bereko egoiliar fiskalak izatea.

   c) Mekanismoan parte hartzen duten pertsona edo erakunde batek edo batzuek beste jurisdikzio fiskal batean jarduera ekonomia izatea, jurisdikzio horretan kokatuta dagoen establezimendu iraunkor baten bidez, eta mekanismoa establezimendu iraunkor horren jarduera ekonomiko osoa edo haren zati izatea.

   d) Mekanismoan parte hartzen duten pertsona edo erakunde batek edo batzuek beste jurisdikzio batean egiten jarduera, zerga ondorioetarako egoiliarrak izan gabe, edo jurisdikzio horretan kokatuta dagoen establezimendu iraunkorra sortu gabe, mekanismoa jarduera ekonomiko horren zati bat edo jarduera osoa bada.

   e) Mekanismo horrek ondorioak izatea informazio trukaketa automatikoan edo benetako titulartasunaren identifikazioan.

4. Ezaugarri bereizgarritzat hartuko dira Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauko IV. Eranskinean jasotakoak, Erregelamendu honetan garatutako baldintzen arabera.

5. Artikulu honetan araututako informazio betebeharra bakarrik aplikatuko da Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauko 2. artikuluan aipatzen diren zergekin loturikoetan.

**47 bis artikulua. Bitartekari gisa aitorpena aurkeztu behar duten pertsona edo erakundeak**

1. Erregelamendu honetako 47 quater artikuluan jasotako kasuetako bat betetzen denean, bitarteko pertsona edo erakunde gisa aurkeztu beharko dute aitorpena:

   a) Informazioa jakinarazten duen edo haren gauzatzea kudeatzen duen mugaz gaindiko mekanismo bat diseinatu, komertzializatu, antolatu edo eskura jartzen duten pertsona edo erakunde guztiak.

   b) Zuzenean edo beste pertsona batzuen bidez, laguntza edo aholkularitza emateko konpromisoa hartu duela dakien, edo arrazoiz, hartu duela uste den pertsona edo erakundea, informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismo bat gauzatzeko edo haren gauzatzea kudeatzeko diseinu, komertzializazio, antolaketa edo esku jartzearekin loturikoa.

2. Ez dute aitorpenik aurkeztu beharko pertsona edo erakunde bitartekariek, inguruabar hauetako batean badaude:

   a) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko 8 bis ter artikuluaren 5. atalean aipatzen den sekretu profesionaleko betebeharra dela eta, edozein dela garatzen duen jarduera, Zuzentarau honetan ezarritako mugaz gaindiko mekanismo bat gauzatzeko edo haren gauzatzea kudeatzeko, diseinu, komertzializazio, antolaketa edo eskura jartzeari buruzko aholkuak eman badituzte, mekanismo hori, aplikatzeko arautegiari egokitzen zaion ebaluatzeko helburu bakarrarekin, ezartzea saiatu edo ezartzen lagundu gabe, Bizkaiko zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

   Lanbide sekretupean dagoen zergapekoa hori egitetik salbuetsiko da zergapeko interesdunak dudarik gabe jakinarazitako baimen bidez.

   Kasu horretan, salbuetsitako pertsona edo erakunde bitartekariak, informazio betebeharra sortu eta hurrengo egunetik aurrera, bost eguneko epean jakinarazi beharko die inguruabar hori, mekanismoan esku hartzen duten beste pertsona edo erakunde bitartekari batzuei eta beste zergadun interesdun batzuei, Bizkaiko zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita bosgarren xedapen gehigarriaren 1, atalean jasotzen den jakinarazpenaren bidez.

   Jakinarazpenaren edukia bat etorriko da Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru agindu bidez onartzen den ereduarekin.

   b) Pertsona edo erakunde bitartekari bat baino gehiago egonda, aitorpena haietako batek aurkeztu badu.

   Salbuetsitako pertsona edo erakunde bitartekariak froga fede-emailea gorde beharko du, aitorpena aurkeztean, beste pertsona edo erakunde bitartekari zergadun batzuek legez aplikatzeko arauen arabera aurkeztu duela egiaztatzen duena.

   Ondorio horietarako, froga fede-emailetzat hartuko da martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren, Bizkaiko zergei buruzkoaren, hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 2. atalarekin loturiko jakinarazpena.

   Aitorpena aurkeztu duen pertsona edo erakunde bitartekariak, aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita bost eguneko epea izango du mekanismoan esku hartzen duten beste pertsona edo erakunde bitartekari batzuei jakinarazteko. Jakinarazpenaren edukia bat etorriko da Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru agindu bidez onartzen den ereduarekin.

### 47 ter artikulua. Zergadun interesdun gisa, aitorpena aurkeztu behar dutenak

1. Aitorpena aurkeztu behar du, zergadun interesdun gisa, informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismo bat gauzatzeko, eta gauzatuko duen edo haren lehen fasea gauzatu duen mekanismo bat eskura jarri zaion edozein pertsonak edo erakundek, betiere aitorpena aurkeztu behar duen pertsona edo erakunde bitartekaririk ez badago.

2. Aitorpena aurkeztu behar duen zergadun interesdun bat baino gehiago badago, zerrenda honetako lehen postuan agertzen den pertsona edo erakundeak egingo du:

   1) Pertsona edo erakunde bitartekariarekin informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoa erabaki zuena.

   2) Mekanismo horren gauzatzea kudeatzen duena.

   3) Aitorpena atal honen 2. zenbakian ezarritakoaren arabera aurkeztu behar duen zergadun interesduna, betebehar horretatik salbuetsita geratuko da aitorpen hori beste zergadun interesdun batek aurkeztu duela frogatzen badu.

   Ondorio horietarako, froga fede-emailetzat hartuko da martxoaren 10ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren, Bizkaiko zergei buruzkoaren, hogeita laugarren xedapen gehigarriaren 2. atalarekin loturiko jakinarazpena.

   Aitorpena aurkeztu duen zergadun interesdunak beste zergadun interesdun batzuei jakinarazi beharko die, bost eguneko epean, aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Jakinarazpenaren edukia bat etorriko da Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru agindu bidez onartzen den ereduarekin.

### 47 quater artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena

1. Jakinarazi behar duenak, bai bitartekariak, bai zergadun interesdunak, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu beharko dio aitorpena, baldin eta, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauan (fiskalitatearen arloko administrazio-lankidetzari buruzkoa) eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 46 Bi artikuluan (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua) kasu bakoitzerako ezarritako lotura-irizpideak aplikatzearen ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundia eskuduna bada lurralde zioengatik.

2. Bereziki, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu beharko dio aitorpena, azken hori dagokionean informazioa emateko betebeharra betetzen dutenen behartutakoen enpresa- edo lanbide-jarduerak egiaztatu eta ikertzeko eskumena, hurrengo kasuetan:

   a) Informazioa ematera behartutako pertsona edo entitatea bitartekaria bada, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu beharko dio aitorpena, aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, ondoren zehazten diren konexio irizpideetako bat hurrenkera honetan betetzen denean:

      1) Bitartekaria egoiliar fiskal izatea lurralde espainiarrean.

      2) Bitartekariak lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor batetik egitea mekanismo horri dagozkion bitartekaritza zerbitzuak.

      3) Pertsona edo entitate bitartekaria lurralde espainiarrean eratua izatea edo Espainiako legeriaren arabera jardutea.

      4) Pertsona edo entitate bitartekaria zerbitzu juridiko, fiskal edo aholkularitzakoekin erlazionatuta dagoen Espainiako elkargo edo elkarte profesional batean erregistratuta egotea.

Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluko 3. Apartatuan adierazitako konexio irizpideetako bat beste Estatu kide batean betetzen bada eta horrek informatzeko obligazio anizkoitza badakar, pertsona edo entitate bitartekariak ez du izango zertan aurkeztu aitorpena Bizkaiko Foru Aldundian hura beste Estatu kidean aurkeztu dela modu fede-emailean frogatzen duenean.

b) Informazioa ematera behartutakoa zergapeko interesduna bada, Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu beharko dio aitorpena, atal honetako lehenengo paragrafoan xedatutakoaz gain, ondoren zehazten diren konexio irizpideetako bat hurrenkera honetan betetzen denean:

1) Zergapeko interesduna egoiliar fiskal izatea lurralde espainiarrean.

2) Zergapeko interesdunak establezimendu iraunkor bat edukitzea lurralde espainiarrean, eta establezimendu hori izatea mekanismoaren onuraduna.

3) Zergapeko interesdunak lurralde espainiarrean jasotzea errentak edo sortzea irabaziak, eta mekanismoa errenta edo irabazi horiekin erlazionatuta egotea.

4) Zergapeko interesdunak jarduera bat egitea lurralde espainiarrean, eta mekanismoa jarduera horren barruan sartuta egotea.

Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter artikuluko 7. Apartatuan adierazitako konexio irizpideetako bat beste Estatu kide batean betetzen bada eta horrek informatzeko obligazio anizkoitza badakar, zergapeko interesdunak ez du izango zertan aurkeztu aitorpena Bizkaiko Foru Aldundian hura beste Estatu kidean aurkeztu dela modu fedeemailean frogatzen duenean.

### 47 quinquies artikulua. Zerga plangintzako zenbait mekanismoren aitorpenaren edukia edo hura sortzea

1. Plangintzako mugaz gaindiko zenbait mekanismo aitortzeko betebeharrean, hala badagokio, datu hauek jaso beharko dira:

a) Pertsona edo erakunde bitartekarien eta zergadun interesdunen identifikazioa, izena, jaiotze-data eta jaiolekua (pertsona fisikoa bada), egoitza fiskala, helburua eta identifikazio fiskaleko zenbakia barne; eta hala badagokio, zergadun interesdunaren enpresa kideak diren pertsona edo erakundeena ere bai.

Ondorio horietarako, «enpresa elkartuak» izango dira Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3. artikuluko 23) puntuan ezarritako definizioarekin bat datozenak.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren IV. eranskinean jasotzen diren ezaugarri lotesleei (mekanismoa aitortzeko betebeharra ezartzen dutenei) buruzko informazio xehatua, Erregelamendu honen 47 sexies artikuluan garatutako baldintzen arabera. Baita, hala badagokio, lehen aldiz aitorpena egin den zerga administrazioak mekanismoari esleitutako erreferentzia zenbakia ere.

c) Informazioa jakinarazi behar den mugaz gaindiko mekanismoaren edukiaren laburpena. Zergetan eragina duen mekanismoaren datuak ere barne hartuko ditu.

Hala badagokio, normalean ezaguna den izenaren erreferentzia eta jarduera ekonomikoen edo dagozkien mekanismoen deskribapen abstraktua jasoko beharko dira.

Ez dira inola ere jakinarazi beharko ondarezkoak ez diren datu pribatuak, horiek jakinarazteak langile eta senideen ohorearen eta bizitza pribatuaren aurka egitea ekartzen badu; ez eta datu konfidentzialak ere, merkataritza, industria edo lanbide sekretu baten, edo merkataritza prozedura baten berri ematea, edo interes publikoaren aurkako informazioa adieraztea ekartzen badu.

d) Informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoa gauzatzeko lehen fasea egin den edo egingo den data, eta, artikulu honen 4. atalean ezarritakoaren arabera, informazioa jakinarazteko beharra sortzen den data.

e) Informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoaren oinarria osatzen duten nazioko eta atzerriko xedapenen informazio xehatua.

f) Informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoaren ondoriozko zerga eraginaren balioa.

   Espainiako lurraldean zerga eraginaren baliotzat hartuko da, zerga zor gisa, aitortutako mekanismoan sortutako emaitza, eta hala badagokio, Erregelamendu honen 47 sexies artikuluan ezarritakoaren arabera, zehaztutako zerga aurrezkia barne hartu beharko du.

g) Parte hartzen duten zergadun interesdunen eta aitortzen den mekanismoan esku hartzen duten pertsona edo erakunde bitartekarien bizileku Estatua zehaztea, eta informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoak eragin ditzakeen beste edozein Estatu kide.

h) Informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismo horrek eragin dezakeen Estatu kide bateko edozein pertsona zehaztea, pertsona hori zer Estatu kideri lotuta dagoen adieraziz.

2. Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Lege Orokorrak bere hogeita hirugarren xedapen gehigarriko laugarren atalean ezarritakoaren ondorioetarako, datu multzoak dira aurreko 1. ataleko letra bakoitzean aipatzen diren informazioak, aitortu behar den mekanismo bakoitzarekin lotuta daudenak.

3. Informazioa emateko betebeharra honako baldintza hauetan sortuko da:

a) Kontseiluaren 2011/116/EB Zuzentarauko IV. eranskinaren II. zatian, A letrako 3. atalean, aipatzen den mekanismo normalizatuan nortasun ezaugarriaren kasuan, informazioa komunikatu behar duen mugaz gaindiko mekanismo bat exekutatzeko eskuragarri jartzen den egunaren biharamunean.

   Eskura jarri dela hartuko da, pertsona edo erakunde bitartekariak eta zergadun interesdunak, Kontseiluaren 2011/116/EB zuzentarauaren 3. artikuluko 21). atalean ezarritakoaren arabera, lehenengoa pertsona edo erakunde bitartekaritzat hartzea ezarri duen zerbitzu ematea behin betiko onartzen duenean.

   Aurreko paragrafoan aipatzen den eskura jartzea frogatzeko, zuzenbidean onartzen den edozein baliabide onar daiteke, Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak bere 103. artikuluan ezarritakoaren arabera. Zehazki, honako agiri hauek: eskari eta onarpen orriak, txostenak eta fakturak.

b) Normalizatuak diren baina gauzatzeko aldaketa handiak behar dituzten agiriak edo egitura dituzten mekanismoen kasuan, informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoa gauza daitekeen egunaren hurrengoa.

   Mekanismoa gauza daitekeela ulertuko da, zenbaki honetako aurreko paragrafoan aipatzen den aldaketa handia behin eginda, zergadun interesdunaren esku jartzen denean, betiere atal honetako a) letrako bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

c) Letra honen aurreko zenbakietan aipatzen diren kasuetan ez dauden mekanismoei dagokienez, informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoa gauzatzeko lehen fasea egindakoan.

   Mekanismo bat gauzatzeko lehen fasea burututzat hartuko da praktikan jartzen denean, eragin juridiko edo ekonomikoren bat sortuz.

4. Aurreko 3. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, erregelamendu honen 47 bis.1.b) artikuluan aipatzen diren bitartekarien kasuan, betebeharra sortuko da zuzenean edo beste pertsona batzuen bidez laguntza, sorospena edo aholkularitza eman zuten egunaren biharamunean.

5. Aitorpena aurkeztera behartuta dagoen pertsona edo erakundea erregelamendu honen 47 bis 2. a) artikuluan aipatzen den egoera gertatzen delako bada, betebeharra sortu dela ulertuko da komunikazioa manu horretan aipatzen den epean jasotzen duenean.

6. Dagokion aitorpen eredua onartzen duen Foru Aginduak ezarriko du aurkezteko epea, eta artikulu honen lehen atalean aipatzen den informazioa eta beste edozein datu garrantzitsu jasoko ditu.

### 47 sexies artikulua. Ezaugarriak

1. Foru Dekretu honen 47.1. artikuluan aipatzen diren ezaugarriak Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren IV. eranskinak arautuko ditu, arau bidez ezarritako espezialitateak jasota.

2. Onura nagusiaren irizpide hori betetzat hartuko da pertsona batek mekanismotik zentzuz itxaron ditzakeen eragin nagusia edo eragin nagusietako batzuk, zerga aurrezkia lortzea denean, faktore eta inguruabar guztiak kontuan hartuz.

   Ondorio hauetarako, zerga aurrezkia izango da, aitortu behar den mugaz gaindiko mekanismoa egingo balitz, egokituko litzaiokeen zerga oinarriaren edo kuotaren edozein minorazio, zerga zorrari dagokionez, haren sortzapenean gertatzen den aldea barne hartuz, edo mekanismo hori eginez, zerga egitatea osorik edo partzialki egitea saihesten denean. Halaber, zerga aurrezkitzat hartuko da etorkizunean konpentsatu edo ken daitekeen beste edozein kreditu fiskal, oinarri, kuota edo kenkariak sortzea.

   Mekanismoan, 2011/16/EB Zuzentarauko 3. artikuluaren 23) atalean aipatzen diren enpresa bazkidetzat hartzen diren pertsonak edo erakundeek parte hartzen badute, atal honen ondorioetarako, zerga aurrezkia dagoela esango da aurreko paragrafoan aipatzen diren erakunde bazkideen eraginak kontuan hartuz, zerga jurisdikzioa edozein izanagatik ere.

   Onura nagusiaren irizpidea A kategoriako ezaugarri orokorretan, B kategoriako eta C kategoriako, 1. ataleko, b) letrako, i) ataleko berariazko ezaugarrietan, eta Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauko IV. eranskinaren c) eta d) letretan bete beharko da.

3. Onura nagusiaren irizpideari lotutako ezaugarri orokorrei dagokienez, honako hau ezartzen da:

   a) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauko IV. eranskinaren A kategoriako 2. atalean aipatzen den ezaugarriari dagokionez, mekanismoaren zerga aurrezkiarekin loturako ordainsariak jasotzeari buruzkoa, betetzen dela ulertuko da, ordainsarien eta zerga aurrezkiaren arteko lotura osoa edo partziala dela kontuan hartu gabe.

   b) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren A kategoriako 3. atalean aipatzen den ezaugarriari dagokionez, mekanismo normalizatutzat hartuko da Zuzentarau horren 3. artikuluko 24). atalean zehaztutako mekanismo komertzializagarria.

4. Mugaz gaindiko eragiketei lotutako ezaugarri espezifikoei dagokienez, honako hau ezartzen da:

   a) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren C. kategoria lehen atalean aipatzen diren berariazko ezaugarrietan, enpresa bazkideen arteko mugaz gaindiko ordainketen kengarritasunari buruzkoetan, «mugaz gaindiko ordainketetan» mugaz gaindiko gastuak barne hartuko dira, ordainketa egin den edo ez kontuan hartu gabe.

Ordainketa bi enpresa bazkideren artean egiten dela hartuko da, ezaugarriaren baldintzen arabera, baldin eta araudiak ezarritako gainerako baldintzak betez, ordainketa pertsona edo erakunde baten edo batzuen bidez zeharka egiten bada.

Mugaz gaindiko ordainketaren hartzailetzat hartuko da ordainketen zeharkako pertsona edo erakunde hartzailea, zergei dagokionez, pertsona edo erakunde hartzaileari egotzi bazaizkio, zerga araubide hauen arabera: zerga gardentasuna, errenta egozpena edo horien baliokideak.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren IV. eranskineko C kategoriaren barruan, 1. atalean, b) letran, i) tartean, pertsona edo erakunde hartzaileak sozietateen gaineko zergarik ez aplikatzeari edo zero edo ia zero tasako sozietateen gaineko zerga aplikatzeari buruzkoan, arau hauen arabera ezarriko da ezaugarria:

   1) Sozietateen gaineko zergatzat hartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoan eskatzen den sozietateen gaineko zergaren berdina edo antzekoa den edozein zerga.

   2) Zero tasa edo ia zerokoa aplikatzen dela hartuko da hartzailea bizi den herrialdeak edo lurraldeak % 1 baino txikiagoa den zerga maila ezartzen duenean.

c) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauaren IV. eranskinaren C kategorian, 1. atalean, b) letran, ii) tartean jasotzen den ezaugarriaren ondorioetarako (hau da, ELGAren arauen arabera, hartzailea lankidetzan aritzen ez den jurisdikzio batean bizitzeari dagokionez), «hirugarren herrialdeetako jurisdikzio ez laguntzailetzat» hartuko dira Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/20005 Foru Arauaren hogeita laugarren xedapen gehigarriak «jurisdikzio ez laguntzaile» gisa aipatzen dituen herrialde, lurralde eta araubideak.

d) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren C kategoriako 1. ataleko, d) letrako ezaugarriari dagokionez, ez da lehentasunezko zerga araubidetzat hartuko Europar Batasunak zuzenbidearen arabera onartu duena.

e) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauaren, eragindako jurisdikzioen artean balioaren alde handia duten aktiboen transferentzia barne hartzen duten mekanismoei buruzkoaren, IV. eranskinaren C kategoriako 4. atalaren berariazko ezaugarria, arau hauen arabera ezarriko da:

   1) Ez dira barne hartuko balioen aldearen ondorioz gertatu diren alde esanguratsuak, kontabilitate ondorioetarako bakarrik, eta ez zerga ondorioetarako.

   2) Alde handitzat hartuko da bi jurisdikzioen zerga balioen artean % 25 baino handiagoko aldea.

5. Informazioaren truke automatikoari eta benetako titulartasunari buruzko ezaugarri espezifikoei dagokienez, honako hau ezartzen da:

   a) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren D kategoriko ezaugarrien araubide juridikoa, nahitaezko informazio betebeharreko arauen arabera hartuko da, informazioa jakinarazteko estandar erkidean jasotzen diren saiheste mekanismoei eta lurraldez kanpoko egitura opakuei, eta Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen oharrari lotzeko.

   b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauko IV. eranskinaren D kategoriako 1. atalean aipatzen den ezaugarria betetzen dela hartuko da, finantza kontuei buruzko informazioa hornitzeko betebeharrari (Bizkaiko zergei buruzkoaren martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian; urriaren 11ko 151/2016 Foru Dekretuan, zenbait finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga bizilekua identifikatzeko, eta elkarrekiko laguntzaren esparruan, haiei buruzko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenean, edo Europar Batasuneko Estatu kideen artean edo hirugarren herrialdeekin «finantza kontuei» buruzko informazio

trukaketa automatikoari buruzko beste edozein erabaki baliokidean) kaltetzen dion mekanismo batean, edo legedi edo erabaki horiek ez egiteaz baliatzen den beste batean. Mekanismo horiek, Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren D. kategoriako 1. atal horretan aipatzen den ezaugarrietatik bat gutxienez izan beharko dute.

Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren D kategoriako 1. atalaren e) letran jasotzen den ezaugarria, «finantza kontuei» buruzko informazioaren trukaketa automatikoaren arabera, kontrola duten kontuen titular edo pertsona bati edo batzuei buruzko informazio falta kentzen duten edo kendu nahi duten erakundeak, tresnak edo egitura juridikoak erabiltzeari buruzkoa dela hartuko da.

c) Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko IV. eranskinaren D kategoriako 2. atalean aipatzen den ezaugarria betetzen dela hartuko da, titulartasun formal edo erreal ez gardeneko kate bat ekartzen duen mekanismo batean, betiere aipatutako ataleko a), b) eta c) letretan hurrenez hurren jasotzen diren baldintza guztiak betetzen badira.

6. Transferentzia prezioei buruzko ezaugarri espezifikoei dagokienez, eta Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren IV. eranskineko E kategoriako 3. paragrafoan aipatzen den ezaugarriari dagokionez (ustiapenaren emaitza gutxitzea dakarten talde bereko pertsonen arteko funtzio, arrisku edo aktibo transferentziak dakartzan mekanismoari buruzkoa), talde bereko pertsonatzat hartuko dira Kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauko 3. artikuluaren 11). atalean jasotzen diren pertsonak, aipatutako artikuluaren 23). Atalean ezarritakoaren arabera, enpresa bazkidetzat hartzen badira.

   Oro bat ulertuko da ez dela gertatzen Kontseiluaren 2011/16/EB Direktibaren IV. eranskineko E kategoriako 2. apartatuko zantzu bereizgarria –balioztatzen zailak diren aktibo inmaterialen eskualdaketa dakarren mekanismo bati buruzkoa–, baldin eta mekaniskoaren balioak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 45. artikuluaren 3. apartatuan ezarritako balioztatze-akordioetako baten bidez zehaztu badira eta akordio hori inmaterialen edo haien ondoriozko errenten balioztapenari edo kalifikazioari buruzkoa bada.

### 47 septies artikulua. Mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarrien eguneratzeari buruzko informazio betebeharra

1. Pertsona edo erakunde bitartekariek, kontseiluaren 2011/16/EB zuzentarauaren 3. artikuluaren 24) atalean aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarrien datuen eguneratzeari buruzko hiru hilez behingo aitorpena aurkeztu beharko dute, betiere aldez aurretik mugaz gaindiko mekanismo gisa aitortu badira.

   Artikulu honetan aipatzen den aitorpena aurkezteak Erregelamendu honen 47. artikuluan aipatzen den aitorpena aurkezteko betebeharra salbuetsiko du, jatorriz aitortutako mekanismoaren ondoren eskura jarritako mugaz gaindiko mekanismo komertzializagarri bakoitzeko.

2. Aitorpenean datu hauek jaso beharko dira:

   a) Lehen aitorpenean mekanismoari esleitutako erreferentzia zenbakiaren bidez jatorriz aitortutako mugaz gaindiko mekanismoaren identifikazioa.

   b) Pertsona edo erakunde bitartekarien eta zergadun interesdunen identifikazioa, Erregelamendu honen 47 quinquies1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

   c) Jakinarazi behar den mugaz gaindiko mekanismoa gauzatzeko lehen fasea egin den edo egingo den data, eta mekanismo komertzializagarria eskura jarri den data.

   d) Parte hartzen duten zergadun interesdunen eta aitortzen den mekanismoan esku hartzen duten pertsona edo erakunde bitartekarien bizileku Estatua zehaztea, eta

informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismoak eragin ditzakeen beste edozein Estatu kide.

e) Informazioa jakinarazi behar duen mugaz gaindiko mekanismo horrek eragin dezakeen Estatu kide bateko edozein pertsona zehaztea, pertsona hori zer Estatu kideri lotuta dagoen adieraziz.

3. Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Lege Orokorrak bere hogeita hirugarren xedapen gehigarriko laugarren atalean ezarritakoaren ondorioetarako, datu multzoak dira aurreko 2. ataleko letra bakoitzean aipatzen diren informazioak, betiere aitortu beharreko mekanismoarekin lotutako eguneraten bakoitzari dagokionez.

4. Dagokion aitorpen eredua onartzen duen Foru Aginduak ezarriko du aurkezteko epea, eta aurreko atalean aipatzen den informazioa eta informazio hori zehazteko beste edozein datu garrantzitsu jasoko ditu.

**47 octies artikulua. Plangintzako mugez gaindiko mekanismoen erabileraren informazio betebeharrra**

1. Zergadun interesdunak, aldez aurretik aitortu behar izan dituen mugaz gaindiko mekanismoen erabilerari buruzko urteko aitorpena aurkeztu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB zuzentarauean, zerga arloko administrazio lankidetzari buruzkoan, eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen Bi ataleko 46. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Ituna onartzen duenean, kasu bakoitzerako ezarritako loturako irizpideak aplikatuz, eta lurraldea kontuan hartuz, Bizkaiko Foru Aldundia eskumeneko erakundea bada.

2. Aitorpenean datu hauek jaso beharko dira:

a) Pertsona edo erakunde bitartekarien eta zergadun interesdunen identifikazioa, Erregelamendu honen 47 quinquies 1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Lehen aitorpenean mekanismoari esleitutako erreferentzia zenbakiaren bidez jatorriz aitortutako mugaz gaindiko mekanismoaren identifikazioa.

c) Mugaz gaindiko mekanismoa erabili den data.

d) Mekanismoa erabiltzean aldatu den edozein datu, jatorrizko aitorpenean jasotzen direnekin lotutakoa.

e) Mekanismotik eratorritako zerga eraginaren balioa, aitorpena aipatzen den urtean.

Espainiako lurraldean zerga eraginaren baliotzat hartuko da, zerga zor gisa, aitortutako mekanismoan sortutako emaitza, eta hala badagokio, Erregelamendu honen 47 sexies 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, zehaztutako zerga aurrezkia barne hartu beharko du.

3. Dagokion aitorpen eredua onartzen duen Foru Aginduak ezarriko du aurkezteko epea, eta aurreko atalean aipatzen den informazioa eta informazio hori zehazteko beste edozein datu garrantzitsu jasoko ditu.

4. Bizkaiko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Lege Orokorrak bere hogeita hirugarren xedapen gehigarriko laugarren atalean ezarritakoaren ondorioetarako, datu multzoak dira aurreko 2. ataleko letra bakoitzean aipatzen diren informazioak, aitortu behar den mekanismoaren erabilera bakoitzarekin lotuta daudenak.

## 47 nonies artikulua. Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoen aitorpenetik lortutako informazioaren emaitzak

Bizkaiko Foru Aldundiak, informazio gisa, aitortu diren zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo garrantzitsuenak argitaratuko ditu bere egoitza elektronikoan, eta hala badagokio, araubideari eta kasu bakoitzean dagokion zerga sailkapen edo kalifikazioari buruzko informazioa.

## 3. ATALA.
## FINANTZA KONTU, ERAGIKETA ETA AKTIBOEZ INFORMATU BEHARRA.

## 48. artikulua. Kreditu erakundeetako kontuei buruzko informazioa eman beharra.

1. Kreditu erakundeek eta indarreko arautegiarekin bat etorriz banku edo kreditu trafikoan diharduten gainerako erakundeek urteko aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute Espainiako lurraldeko zein kanpoko establezimenduetan zabalik edo hirugarrenen baliagarri jarrita dituzten kontu guztiei buruz.

   Espainiako lurraldetik kanpoko establezimenduetan irekitako kontuei dagokienez, ez dago informaziorik eman beharrik Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona eta erakunde ez-egoiliarrez.

2. Zerga Administrazioari datu hauek eman behar zaizkio: kontu guztien identifikazio osoa; kontuen titular edo onuradun diren edo haietan baimenduta dauden pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendazio osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia; abenduaren 31n eduki dituzten saldoak eta urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa; eredua onesten duen foru aginduak ezartzen duen informazioa zehazteko behar diren gainerako datu guztiak.

   Aitorpenean kontu korronte, aurrezko kontu, eperako ezarpen, kreditu kontu eta bestelako denetariko kontu guztiei buruzko informazioa agertu behar da, modalitatea eta izena gorabehera eta ordainketarik, atxikipenik edo konturako sarrerarik izan denez kontuan hartu gabe.

   Aitorpenaren urtean kontuen titular edo onuradun edo haietan baimendu izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izendazio osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak adierazi behar dira.

## 48 bis artikulua. Elkarren laguntzaren eremuan finantzakontuei buruzko informazioa eman beharra.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 1. artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoan eta 17. artikuluko 5. zenbakian xedatutakoarekin bat, finantza-erakundeek euretan irekitako finantza-kontuei buruzko informazio-aitorpen bat aurkeztu beharko dute, baldin eta kasuan kasu aplikatu beharreko elkarren laguntzari buruzko arautegian zehaztutako inguruabarrak gertatzen badira.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko kontuei dagokienez eta kontuan hartuta zer ezartzen duen elkarren laguntzari buruzko arautegiak, finantza-erakundeek identifikatu egin behar dute arautegi horrek ezarritakoaren arabera finantza-kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza edo (hala denean) nazionalitatea. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez xedatzen denarekin bat egingo da identifikazioa.

3. Eman beharreko informazioa elkarren laguntzari buruzko arautegian ezarritakoa izango da, eta, betiere, honako hau: kontuen identifikazio osoa eta aurreko zenbakian aipaturiko pertsonen izen-abizenak edo sozietate-izena edo izen osoa eta (hala denean) identifikazio fiskaleko zenbakia edo antzekoa.

4. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak dagokion aitorpeneredua onartuko du.

**49. artikulua. Maileguei eta kredituei eta eskudirumugimenduei buruzko informazioa eman beharra.**

Kreditu erakundeek eta indarreko arautegiarekin bat etorriz banku edo kreditu trafikoan diharduten gainerako erakundeek urteko aitorpen informatibo hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Emandako kreditu eta maileguetatik abenduaren 31n 6.000 eurotik gorako saldoa eduki dutenei buruzko aitorpena; aitorpenean kreditu eta mailegu bakoitzaren titularraren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendazio osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar dira.

b) Eskudirutan egiten diren 3.000 eurotik gorako ezarpen, baliatze eta kobrantzei buruzko aitorpena, bitarteko fisiko edo elektronikoa eta moneta (euroa zein besteren bat) gorabehera.

Aitorpen informatibo honetan ez dira sartuko 52. artikuluan ezarri t a koaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi beharreko eragiketak.

Aitorpenean eragiketa bakoitzaren zenbatekoa adierazi behar da eurotan, zer izan den zehaztu behar da (ezarpena, baliatzea edo kobrantza), data jarri behar da, nork egin duen argitu behar da eta kargua edo ordainketa egin den kontuaren zenbakia adierazi behar da; horiez gainera zerga eredua onetsi duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak eman daitezke.

**49 bis artikulua. Kreditu edo kargu txartelen bidez egindako kobrantzei buruzko informazioa eman beharra**

Bankuek eta kreditu erakundeek eta indarreko arautegiarekin bat etorriz Espainian egoiliartutako enpresariei eta profesionalei kreditu eta kargu txartelen bidezko kobrantzak kudeatzeko zerbitzua egiten dieten gainera ko erakundeek kobrantza sistema horri atxikitako enpresariek eta profesionalek urtean egindako eragiketen aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute, kobrantzen guztirako zenbatekoa 3.000 euro baino gehiago izanez gero.

Aitorpenean enpresari edo profesional bakoitzaren identifikazio osoa adierazi behar da, bai eta sisteman jarduteko erabiltzen duen merkataritza zenbakia, urtean fakturatutako zenbatekoa eta kobrantzak egiteko erabiltzen duen kontua ere; horiez gainera zerga eredua onetsi duen foru aginduan ezarritako informazioa zehazten lagundu dezaketen datu guztiak eman daitezke.

**50. artikulua. Balore, aseguru eta errentei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Balore higigarriak gordailatuta dituzten erakundeek ondoren zehaztuko den informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari, urteko aitorpena aurkeztuta:

    a) Abenduaren 31n merkatu antolatuetan negoziatutako erakunde juridikoen kapital sozialaren edo funts propioen akzio edo partaidetzen titular izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak. Gainera, titular bakoitzak duen akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira, eta haien balio nominala eta haien balioa ere bai; zeinak arau hauen arabera konputatuko baita:

        - Merkatu antolatuetan negoziatutako erakundeen kapital sozialaren edo funts propioen akzioak eta partaidetzak, inbertsio kolektiboko erakundeenak izan ezik, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez eman behar zaien balioaren arabera konputatuko dira.

        - Merkatu antolatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoek jaulki baina oraingoz kotizazio ofizialean onartuta ez dauden akzio berriak harpidetzen badira, akzio horien balioa honako hau izango da: akzio horiei Ondarearen gaineko Zergari dagokionez eman behar zaien balioa.

- Ordaintzeko dauden kapital-zabalkuntzei dagokienez, akzioen balioztatzea aurreko arauei jarraituz egingo da, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia subjektu pasiboaren zor moduan sarturik.

b) Abenduaren 31n merkatu antolatuetan kotizatzen duten kapital propioak hirugarrenei laga zaizkiela adierazten duten baloreen titular izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak. Gainera, titular bakoitzak duen baloreen kopurua eta motak zehaztu behar dira, eta haien balioa ere bai (aurreko letran ezarritakoaren arabera konputatuko da).

2. Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen erakunde kudeatzaileek, Espainiako erakunde merkaturatzaileek eta zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten erakunde kudeatzaileen ordezkariek honako datu hauek eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, urteko aitorpena aurkeztuta: abenduaren 31n inbertsio kolektiboko erakundeen kapitaleko edo ondare-funtseko akzio edo partaidetzen edo Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen titular izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak.

   Horiez gainera, titular bakoitzak duen akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira eta, behar izanez gero, zein taldetakoak diren ere bai; abenduaren 31n izan duten likidazio-balioa ere adierazi behar da. Espainiako inbertsio kolektiboko erakundeen akzioen edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzen badira edo Europako arrisku-kapitaleko funtsak, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsak edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsak merkaturatzen badira, ez-egoiliar diren beste batzuen kontura akzio-partaidetzon titular ageri den atzerriko erakunde merkaturatzaileak eman behar du informazioa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onetsi zuen 2014ko apirilaren 15eko 48/2014 Foru Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoarekin bat etorriz. Hala ere, sozietate kudeatzaileak edo inbertsio-sozietateak erantzukizuna eduki dezake Zerga Administrazioarekin, xedapen gehigarri bakar horretan xedatutakoaren arabera.

   Inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak bigarren mailako merkatu batean edo baloreak negoziatzeko sistema antolatu batean negoziatzeko onartuta badaude, akzioak edo partaidetzak gordailatuta dituen erakundeari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako informazio-betebeharra.

3. Aseguru-erakundeek —Espainian zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratutako aseguru-erakundeek barne— eta finantza-erakundeek urteko aitorpena aurkeztu behar dute honako informazio honekin:

   a) Abenduaren 31n bizitza-aseguru baten hartzaile izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia; egun horretako erreskate-balioa ere adierazi behar da.

   b) Kapital bat (dirua, ondasun higigarriak zein higiezinak) ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako zein biziarteko errenta baten onuradun izan diren guztien izen-deiturak eta identifikazio fiskaleko zenbakia; errenta horrek egun horretan duen kapitalizazio-balioa adierazi behar da.

   Bizitza-aseguruak Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen-egunean izan duten erreskate-balioaren arabera konputatuko dira.

   Kapital bat (dirua, ondasun higigarriak zein higiezinak) ematearen ondorioz eratutako aldi baterako edo biziarteko errentak Ondarearen gaineko Zergaren sortzapen-egunean izan duten kapitalizazio-balioaren arabera konputatu behar dira, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan pentsioak eratzeari buruz ezarritako erregelak aplikatuta.

**51. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi ez den kontuen edo bestelako eragiketen titularrei buruzko informazioa eman beharra.**

1. 38.3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kreditu erakundeek hiru hilean behin identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi ez edo artikulu hartan ezarritako epealdiaz kanpo adierazi duten titularren kontu eta eragiketen berri eman behar diote Zerga Administrazioari, are kontuak edo eragiketak ezeztatu badira ere.

2. Aitorpenean datu hauek adierazi behar dira, gutxienez:

   a) Aitorpeneko pertsona edo erakunde bakoitzaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendazio osoa, helbidea eta, beharrezkoa izanez gero, identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Kontuaren edo eragiketaren izaera edo mota eta zenbakia, eta saldoa edo zenbatekoa.

**52. artikulua.-Kreditu erakundeen txekeen igorpenaren berri eman beharra.**

1. 38.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kreditu erakundeek urtero eskudiruaren, ondasunen, baloreen edo beste txeke batzuen kontra emandako txekeei buruzko informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari. Banku kontuen kontra emandakoak betebehar honetatik salbu daude.

   Halaber, kreditu erakundeek eman eta kontuan gabe eskudirutan ordaindutako txekeei buruzko informazioa ere eman behar diote, bai eta beste pertsona batek emandako 3.000 eurotik gorako txekeei buruzko informazioa ere.

2. Horretarako, kreditu erakundeek ondoko datuak jasotzen dituen aitorpena aurkeztu behar dute:

   a) Txeke bakoitzaren hartzailearen edo, bestela, dirua kobratu duten pertsonaren izen-deiturak edo erakundeen izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Txeke bakoitzaren serie zenbakia eta zenbatekoa; erakundeak emandako txekeak eta ordainduak bereiztu behar dira. Gainera, beste kreditu erakunde batzuek eta beste pertsona batzuek emandako 3.000 eurotik gorakoak ere bereiztu behar dira.

**53. artikulua. Finantza aktiboekin egindako eragiketa jakin batzuei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Ondoren azalduko direnek finantza aktiboekin egindako eragiketa jakin batzuen urteko aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, eta aurkeztu ere artikulu honetan ezarritakoari lotuta:

   a) Fede-emaile publikoek, talde inbertsioko erakundeen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku-kapitaleko funtsen, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio-funtsen erakunde kudeatzaileek, inbertsio-funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituzten erakundeek, krediturako finantza-erakunde eta -establezimenduek, baloreen sozietate eta agentziek, gainerako finantza-bitartekariek eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek, Pertsona Fisikoen gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko foru-arauetan eta arlo honetako xedapenak ezarri dituzten gainerako arau guztietan ezarritakoarekin bat etorriz.

   b) Merkatu antolatuetan kotizatzen ez duten tituluak edo izendun baloreak jaulkitzen dituzten erakundeek jaulkitze eragiketei dagokienez, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 109. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta eperakoen eta aukeren merkatuetako sozietate artezkariek halako merkatuetan egindako eragiketei dagokienez, finantza bitartekariez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak kudeatzen dituen Sozietateak eta idaztoharren bidez agertarazten den Herri Zorra harpidetu, eskualdatu eta itzultzen lan egiten duten erakunde kudeatzaileek eragiketa horiei dagokienez, eta, behar denean, haien etekinei ere bai.

2. Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharra betetzeko, eragiketa batean talde inbertsioko erakundeen sozietate kudeatzaile batek edo kapital aldakorreko inbertsioko sozietate batek (aurreko 1.a idatz-zatia) edo 1.b) idatz-zatian aipatutako erakundeetako batek hartu badu parte fedemaile edo finantza bitartekariekin batera (1.a idatz-zatia), aitorpen informatiboa fedemaileak edo finantza bitartekariak aurkeztu behar du.

   Atzerrian jaulkitako baloreen eta atzerrian eratutako tresna eratorrien kasuan, ondokoek aurkeztu behar dituzte aitorpenak: baloreak Espainian merkaturatu dituzten erakundeek eta zerbitzugintza askearen araubidean ari diren erakunde kudeatzaileen ordezkariek edo, bestela, baloreak Espainian gordailatu dituzten erakundeek.

   Harpidetza-eskubideei dagozkien eragiketen kasuan, balore horien Espainiako entitate gordailuzainak egin beharko du aitorpena, edo, halakorik ez badago, eragiketan esku hartu duen finantza-bitartekariak edo fede-emaile publikoak.

3. Aurreko 1. idatz-zatian aipatutako informazio betebeharrak Espainiako lurraldetik kanpo egindako eragiketak eta kontratuak hartzen ditu, baldin eta Espainiako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra duen bitartekari batek, bere kabuz edo besteren kontura, parte hartu badu.

4. 1. idatz-zatian aipatutako zergapekoek eragiketetan parte hartu duten subjektuen identifikazio osoa jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari, datu hauek zehaztuta: nola hartu duten parte, partaidetzaren ehunekoa, izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendazio osoa, egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta eragiketa bakoitzeko efektu publiko, balore, titulu eta aktiboen mota eta kopurua, eta eragiketaren zenbatekoa, data eta, beharrezkoa denean, etekina edo emaitza.

5. Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharra atxikipenaren kargapeko eragiketei dagokienez betetzat joko da atxikipenen urteko laburpena aurkeztuz gero.

6. 4. idatz-zatian ezarritako informazioa eman beharra gorabehera, mailegatuko baloreak negoziatzen diren merkatuan ari diren erakundeek edo bertako konpentsazio eta likidazio sistemako kideek, baloreak mailegatzeko eragiketetan bitartekari lanak egiten dituzten edo haietan parte hartzen duten finantza erakundeek eta Baloreen Erregistro, Konpentsazio eta Likidazio Sistemak kudeatzen dituen Sozietateak edo, bestela, Baloreen Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 31. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako baloreak negoziatzeko merkatu edo sistema antolatuetako erregistro, konpentsazio eta likidazio lanak egiten dituen erakundeak 2004ko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatian aipatutako informazioa eman behar diote Zerga Administrazioari.

**53 bis artikulua. Atzerrian dauden finantza-erakundeetako kontuei buruzko informazioa eman beharra**

1. Bai Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo erakunde ez-egoiliarrek lurralde horretan dituzten establezimendu iraunkorrek, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeek ere urteko aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute banku- edo kreditu- trafikoan diharduten erakundeetan irekita dauden atzerriko kontu guztiei buruz, baldin eta arestian aipatutako pertsona edo erakundeak badira kontuon titularrak, edo ordezkari, baimendu edo onuradun gisa agertzen badira kontuotan, edo kontuon gaineko xedatze-ahalmena badute, edo kontuon titular errealak badira hurrengo lerroaldean xedatzen denaren arabera. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izan behar da.

Betebehar bera izango dute aitorpenari dagokion urteko edozein unetan kontuon titular, ordezkari, baimendu edo onuradun izan direnek, kontuon gaineko xedatze-ahalmena izan dutenek nahiz kontuon titular erreal izan direnek.

Horretarako, honako hauek joko dira titular errealtzat: Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen denarekin bat titular errealtzat jotzen direnak, 2. zenbaki horretan aipatzen diren pertsona edo tresnen izenean dauden kontuei dagokienez, haien egoitza atzerrian badago edo atzerrian eratu badira.

2. Bizkaiko Foru Ogasunari datu hauek eman behar zaizkio:

   a) Banku- edo kreditu-erakundearen sozietate-izena edo izen osoa eta haren helbidea.

   b) Kontuen identifikazio osoa.

   c) Kontuok zein egunetan ireki edo kitatu diren edo, bestela, baimena zein egunetan eman edo ezeztatu den.

   d) Kontuen saldoak, abenduaren 31n, eta urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoa.

   Honako hauei buruzko informazioa eman behar da: kontu korronteak, aurrezki-kontuak, eperako ezarpenak, kreditu-kontuak eta diruzko beste edozein kontu edo gordailu, haien modalitatea edo izena edozein dela ere, nahiz eta ordainsaririk jaso ez.

3. Abenduaren 31ko saldoei eta urteko azken hiruhilekoko batez besteko saldoari buruzko informazioa honako honek eman behar du: Egun horretan kontuaren titular, ordezkari, baimendu edo onuraduna denak, edo kontuon gaineko xedatze-ahalmena duenak edo titular errealtzat jotzen denak.

   Gainerako titular, ordezkari, baimendu edo onuradun, xedatze- ahalmendun edo titular errealek, berriz, adierazi behar dute kontuok zer saldo zuten izaera hori galdu zuten egunean.

4. Artikulu honetan ezartzen den informazioa emateko beharra ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

   a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluan aipatzen diren erakundeak titular dituzten guztiak.

   b) Kontuon titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak nahiz ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Kontuok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta identifikatuta, gainera, haien zenbakiaren, irekita dauden kreditu-erakundearen eta sukurtsalaren nahiz kokatuta dauden herrialde edo lurralderen arabera.

   c) Kontuon titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar diren pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Kontuok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta identifikatuta, gainera, haien zenbakiaren, irekita dauden kreditu-erakundearen eta sukurtsalaren nahiz kokatuta dauden herrialde edo lurralderen arabera.

   d) Kontuon titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako erakundeak, baldin eta kontuok egoitza Espainian duten kreditu-erakundeen atzerriko establezimenduetan irekita badaude eta erakundeok kontuoi buruzko informazioa eman behar badute araudi honetako 48. artikuluarekin bat, betiere kontuon kontuoi buruzko informazioa eman ahal izan bada kontua kokatuta dagoen herrialdeko araudiaren arabera.

e) Ez da egongo kontuei buruzko informazioa eman beharrik, baldin eta kontuon abenduaren 31ko saldoen (artikulu honetako 2.d) letran aipatzen dira) batera, ez bada 50.000 euro baino handiagoa eta gauza bera gertatzen bada artikuluko zenbaki berean aipatzen diren batez besteko saldoei dagokienez. Baterako muga bi horietako edozein gaindituz gero, kontu guztiei buruzko informazioa eman beharko da.

5. Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 4. zenbakiko e) letran aipatzen diren baterako saldoak 20.000 euro baino gehiago hazi badira aurreko aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten saldoekin alderatuta.

   Edozelan ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da artikulu honetako 3. zenbakiko azken lerroaldean zehazten diren kasuetan, bertan aipatzen diren kontuei dagokienez.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartuko du bai zer aitorpen- eredu aurkeztu behar den, bai aitorpen hori non eta zer epetan aurkeztu behar den, bai eta, hala badagokio, behar hori zer kasu eta baldintzatan bete behar den edo ordenagailuan zuzenean irakur daitekeen euskarrien bidez edo bitarteko telematikoen bidez.

6. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari dagokionez, datu-multzo ezberdinak dira aurreko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren informazioak, erakunde eta kontu bakoitzerako.

   Ondorio bererako, datutzat hartuko da aurreko 2. zenbakiko c) eta d) letretan aipatzen diren data eta saldo bakoitza, bai eta aurreko 3. zenbakiko azken lerroaldean aipatzen den saldoa ere, kontu bakoitzerako.

**53 ter artikulua. Atzerrian gordailatuta edo kudeatuta dauden edo atzerrian lortu diren balore, eskubide, aseguru eta errentei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Bai Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo erakunde ez-egoiliarrek lurralde horretan dituzten establezimendu iraunkorrek, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeek ere ondasun eta eskubide jakin batzuei buruzko informazioa eman behar diote Bizkaiko Foru Ogasunari, urteko aitorpen informatibo baten bidez, baldin eta ondasun-eskubideon titularrak badira edo Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen denarekin bat ondasun-eskubideon titular errealtzat jotzen badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izango da, eta honako ondasun-eskubide hauen gainekoa:

   a) Edozein motatako erakunde juridikoetako partaidetza ordezkatzen duten baloreak edo eskubideak.

   b) Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzen duten baloreak.

   c) Edozein tresna juridikori kudeaketa edo administraziorako emandako baloreak, fideikomiso eta trust edo ondare-masei emandakoak barne, baldin eta halakoek nortasun juridikorik izan ez arren trafiko ekonomikoan jardun badezakete.

2. Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

   a) Erakunde juridikoaren zein hirugarren lagatzailearen sozietate-izena edo izen osoa, edo tresna edo harreman juridikoaren identifikazioa, kasu bakoitzean dagokiona, bai eta haien helbidea ere.

   b) Erakunde juridikoen kapitaleko edo funts propioetako partaidetza ordezkatzen duten baloreek edo eskubideek urte bakoitzeko abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, informazioa eman behar duena titular den akzio eta partaidetzen zenbakia eta mota jaso behar da, bai eta haien guztien balioa ere.

c) Kapital propioak hirugarrenei lagatzea ordezkatzen duten baloreek abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, informazioa eman behar duena titular den baloreen zenbakia eta mota jaso behar da, bai eta haien balioa ere.

d) Kasuan kasuko tresna juridikoari emandako baloreek abenduaren 31n duten saldoa.

Informazio horretan, jaso behar da emandako baloreen zenbakia eta mota jaso behar da, bai eta haien balioa ere.

Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko b), c) eta d) letretan aipatzen diren balore eta eskubideen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, titular edo titular erreal izateari utzi zioten egunari buruzko informazioa eman behar dute.

3. Aurreko 1. zenbakian zehazten diren zergapekoek atzerriko inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzio eta partaidetzen gaineko informazioa eman behar diote Bizkaiko Foru Ogasunari, urteko aitorpen bat aurkeztuz, halakoen titularrak badira edo halakoen titular errealtzat jo badaitezke Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen denarekin bat.

Informazio horretan hauek jaso behar dira: batetik, inbertsio kolektiboko erakundearen sozietate-izena edo izen osoa eta haren helbidea; bestetik, akzio eta partaidetzen zenbakia eta mota —hala badagokio, zein konpartimentutakoak diren ere bai—, eta, azkenik, akzio-partaidetza horiek abenduaren 31n duten likidaziobalioa.

Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan akzio-partaidetza horien titular edo titular erreal titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, titular edo titular erreal izateari utzi zioten egunari buruzko informazioa eman behar dute.

4. Aurreko 1. zenbakian zehazten diren zergapekoek informazioa eman behar diote Bizkaiko Foru Ogasunari, urteko aitorpen baten bidez, honako hauei buruz:

a) Zergapekoak abenduaren 31n hartzaile diren bizitzaedo baliaezintasun-aseguruak, aseguru-erakundea atzerrian badago; egun horretako erreskate-balioa ere adierazi behar da.

b) Atzerrian dauden erakundeei kapitala, eduki ekonomikodun eskubideak edo ondasun higiezin zein higigarriak emateaæren ondorioz zergapekoak abenduaren 31n onuradun diren aldi baterako edo biziarteko errentak; egun horretako kapitalizazio-balioa adierazi behar da.

Aurreko a) eta b) letretako kasuetan, aseguru-erakundea identifikatu behar da: haren sozietate-izena edo izen osoa eta helbidea eman behar da.

5. Artikulu honetan ezartzen den informazioa emateko beharra ez da bete beharko honako kasu hauetan:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluan aipatzen diren erakundeetariko baten bat denean zergapekoa.

b) Zergapekoa Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliarra den pertsona juridiko edo erakunde bat bada edo ez-egoiliarren establezimendu iraunkor bat bada, eta haien kontabilitatean

modu indibidualizatuan erregistratuta badaude artikulu honetan aipatzen diren balio, eskubide, aseguru eta errentak.

c) Aurreko 2. zenbakiko b), c) eta d) letretako bakoitzean aipatzen diren balioen, 3. zenbakian aipatzen den likidazio-balioaren, 4. zenbakiko a) letran aipatzen den erreskate-balioaren eta 4. zenbakiko b) letran aipatzen den kapitalizazio-balioaren batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa. Baterako muga hori gainditzen bada, titulu, aktibo, balore, eskubide, aseguru edo errenta guztien berri eman beharko da.

6. Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 5. zenbakiko c) letran aipatzen diren balioen batura 20.000 euro baino gehiago hazi bada aurreko aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten balioarekin alderatuta.

   Edozelan ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da artikulu honetako 2. zenbakiko azken lerroaldean nahiz 3. zenbakiko azken lerroaldean zehazten diren kasuetan, haien gaineko titulartasuna abenduaren 31an iraungita zegoen balore, eskubide, akzio eta partaidetzei dagokienez.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartuko du bai zer aitorpen- eredu aurkeztu behar den, bai aitorpen hori non eta zer epetan aurkeztu behar den, bai eta, hala badagokio, behar hori zer kasu eta baldintzatan bete behar den edo ordenagailuan zuzenean irakur daitekeen euskarrien bidez edo bitarteko telematikoen bidez.

7. Artikulu honetako zenbakietan aipatzen diren balorazioak Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauan ezarritako erregelen arabera kalkulatuta eman behar dira, baina ondorio horietarako ez da aplikatzekoa foru arau horretako 18. artikuluko Bat zenbakiko bigarren lerroaldean ezartzen dena, baldin eta kontabilitateak ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen benetako egoera islatzen badu.

8. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari dagokionez, aurreko 2. zenbakiko a) letran nahiz 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren erakunde juridikoak, hirugarren lagatzaileak, tresna edo harreman juridikoak, inbertsio kolektiboko erakundeak eta aseguru-erakundeak hartuko dira datu-multzotzat.

   Ondorio bererako, datutzat hartuko da artikulu honetako aurreko zenbakietako bakoitzean ondare-elementu indibidualizatu mota bakoitzerako eskatzen den informazioa, jarraian adierazten denarekin bat:

   a) 2. zenbakiko b) letran, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

   b) 2. zenbakiko c) letran, balore mota bakoitzeko.

   c) 2. zenbakiko d) letran, balore mota bakoitzeko.

   d) 3. zenbakian, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

   e) 4. zenbakiko a) letran, bizitza-aseguru bakoitzeko.

   f) 4. zenbakiko b) letran, aldi baterako edo biziarteko errenta bakoitzeko.

Datutzat joko da, halaber, 2. zenbakiko azken lerroaldean aipatzen diren saldoetako bakoitza, balore mota bakoitzeko, eta 3. zenbakiko azken lerroaldeko saldoetako bakoitza, akzio eta partaidetza mota bakoitzeko.

## 4. ATALA.
## ESTATUAREN ZOR PUBLIKOAREKIN, LEHENTASUNEKO PARTAIDETZEKIN ETA BESTE ZOR TRESNA BATZUEKIN EGINIKO ERAGIKETA JAKIN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN BEHARRA.

### 54. artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Zerga Administrazioari araudi honetako 53. artikuluan aipatutako informazioa eman behar diotenek lehentasuneko partaidetzen eta beste zor tresna batzuen inguruko eragiketei buruzko informazioa eman behar dute. Horien araubidea Inbertsio Koefizientei, Norberaren Baliabideei eta Finantza Bitartekarien Informazio Betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legeko bigarren xedapen gehigarrian eta 2004ko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko lehenengo xedapen gehigarrian ezarri da. Eman beharreko informazioa araudi honetako 53.4. artikuluan zehaztutakoa izango da, baina informazioa behar dutenekin lehentasuneko partaidetzen eta beste zor tresna batzuen inguruan egindako eragiketei buruz.

2. Artikulu honetan ezarritako informazio betebeharrari araudi honetako 53.5. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaio.

### 55. artikulua. Estatuaren Zor Publikoarekin, lehentasuneko partaidetzekin eta beste zor tresna batzuekin eginiko eragiketa jakin batzuei buruzko informazioaren araudia.

1. Honako etekin hauei aplikatuko zaie artikulu honetan xedatzen dena:

   a) Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuan negoziatu diren Estatuaren Zor Publikoaren baloreen interesak, bai eta deskontuarekin jaulkiriko zein gerora bereizitako izaera bereko baloreetatik eratorritako beste etekin batzuk ere.

   b) Inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta finantza-bitartekarien informazio-betekizunei buruzko 1985eko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian arautzen diren baloreen interesak, bai eta xedapen horretan ezarririko zortresnetatik eratorritako etekinetatik hamabi hilabete edo gutxiagoko eperako eta deskontuarekin jaulki direnak.

2. Estatuaren Zor Publikoari dagokionez, jaulkitzaileak edo haren ordainketa-agente baimenduak azpian zerrendatzen direnen aldeko hirugarrenen kontuetan erregistraturiko baloreen etekinak ordainduko dizkie, osorik, Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuko erakunde kudeatzaileei eta beren egoitza atzerrian duten baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako sistemen erakunde kudeatzaileei (baldin eta, bigarren horiek, hitzarmen bat sinatua badute egoitza espainiar lurraldean duen baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako erakunde batekin). Zehazkiago esateko, jaulkitzaileak edo haren ordainketa-agente baimenduak honako hauen aldeko baloreen etekinak ordainduko ditu:

   a) Espainiar lurraldean establezimendu finkorik ez duten ezegoiliarrak.

   b) Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, bai eta Espainiar lurraldean establezimendu finkoa duten ez-egoiliarrak.

   c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordaintzaileak. Kasu honetan, kupoi bereiziei eta printzipal bereiziei dagokien zatiagatik ordainduko da, itzulketan erakunde kudeatzaile batek esku hartzen duenean.

   Halaber ordaindu beharko dira, osorik, Idazpenen Zor Publikoaren Merkatuan kontua duten titularrek beren kontuan erregistraturik dituzten saldoei dagozkien etekinak.

3. Goiko 2. zenbakian ezarritakoa betetzeko, han aipatzen diren erakunde kudeatzaileek eta beren egoitza atzerrian duten baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako sistemen erakunde kudeatzaileek aitorpen bat aurkeztu beharko diote jaulkitzaileari (Espainiako Bankuaren bitartez, hala badagokio). Aitorpen hori Zerga Administrazioak onarturiko

ereduaren araberakoa izan behar da, eta, erregistroetan jasotakoaren arabera, honako informazio hau eduki beharko du:

a) Baloreen identifikazioa.

b) Etekinen zenbateko osoa.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordaintzaileei dagozkien etekinen zenbatekoa, salbu eta Estatuaren Zor Publikoaren kupoi bereiziak eta printzipal bereiziak baldin badira eta haien itzulketan erakunde kudeatzaile batek esku hartzen badu.

d) Bigarren zenbakian aurrez ikusitakoaren arabera osorik ordaindu behar diren etekinen zenbatekoa.

Altxorraren letrei dagokienez, ez da halako aitorpenik aurkeztu behar, eta, halaber, erakunde kudeatzaileek ez dute halako aitorpenik aurkeztu behar, Estatuaren Zor Publikoaren kupoi bereizien edo printzipal bereizien kasuan.

4. Goiko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren baloreei dagokienez (bere egoitza Espainiar lurraldean duen baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako erakunde batean erregistratuak jatorrian), honako erakunde hauek aurkeztu beharko dute aitorpena, goiko 3. zenbakian adierazi diren baldintza beretan: hirugarren batzuen kontuetan erregistraturiko baloreak mantentzen dituzten erakundeak, bai eta beren egoitza atzerrian duten baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako sistemen erakunde kudeatzaileek ere, baldin eta hitzarmen bat badute bere egoitza Espainiar lurraldean duen baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako erakunde horrekin.

   Goiko 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren titularren etekinak ere osorik ordaindu beharko dira.

   Halaber ordaindu beharko dira osorik erakunde gordailuzainaren kontuan erregistraturik dauden saldoei dagozkien etekinak.

5. Goiko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren baloreei dagokienez (beren egoitza atzerrian duten baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako erakundeetan erregistratuak direlarik baloreok jatorrian eta erakundeok hala jarduteko aitorpena dutelarik, edo espainiar araudiaren aldetik edo ELGAko kide den beste herrialderen batengatik), Zerga Administrazioak onarturiko ereduaren araberako aitorpen bat aurkeztu beharko dio jaulkitzaileak izendatzen duen ordainketa-agenteak jaulkitzaileari berari. Aitorpen horren bitartez, honako hauen berri eman beharko dio: baloreen identifikazioa, batetik, eta, bestetik, bere egoitza atzerrian duen baloreen konpentsaziorako eta likidaziorako sistemaren erakunde kudeatzaileetariko bakoitzari dagozkion etekinen zenbateko osoa, oso-osorik ordaindu beharko dena.

6. Goiko zenbakietan aipatu diren aitorpenak interesen mugaegunaren aurreko egun baliodunean aurkeztu behar dira, edo, deskontuarekin jaulkiriko zein gerora bereizitako baloreen kasuan, baloreen amortizazio bakoitza baino lehenagoko egun baliodunean. Dena dela, egun horretan merkatua nola itxi den jaso beharko da. Telematikoki bidali ahal izango dira aitorpen horiek.

   Deskontuarekin jaulkiriko zein gerora bereizitako baloreen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoari buruzko informazioa emango da, etekinen informazioaren ordez. Hala ere, balore horien amortizaziotik eratortzen diren atxikipen peko etekinei dagokienez, etekinon zenbatekoa ere jaso behar da aitorpenean.

   Aurreko paragrafoan ezartzen den kasuan, jaulkitzaileari aurkeztu behar zaio aitorpena, edo, bestela, jaulkitzaileak amortizazioa edo itzulketa gauzatzeko ardura eman dion finantza-erakundeari.

7. Interesen mugaegunari dagokionez, aitorpena aurkeztu behar duen erakunderen batek ez badu aurkezten aitorpen hori goiko 6. zenbakiaren lehen paragrafoan ezartzen den egunean, horrek ondorio legez ekarriko du jaulkitzaileak edo haren ordainketa-agente baimenduak ordaindu behar izatea erakunde horri dagozkion interesak. Ordaindu ere, interes osoari atxikipenaren tasa orokorra aplikatzetik ateratako zenbateko likidoa ordaindu beharko du.

   Erakundeak epe hori igaro ondoren aurkezten badu artikulu honetan arautzen den aitorpena, jaulkitzaileak edo haren ordainketa- agente baimenduak soberan atxikitakoa ordainduko dio, aitorpena jaso bezain laster. Dena dela, aurkezpen geroratu horretarako ere badira muga batzuk: Estatuaren Zor Publikoaren baloreei dagokienez, 30 egun natural, interesen mugaegunetik aurrera zenbatzen hasita; goiko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren baloreetatik eratorritako interesei dagokienez, berriz, intereson mugaeguneko hilabetearen hurrengo hileko 10a baino lehen.

8. Aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatu behar bada ere, nahitaez bete beharko dira zergei buruzko arauetan oro har ezartzen diren informazio-betebeharrak; hau da, jaulkitzaileei eta beren egoitza espainiar lurraldean duten eta finantza-bitartekariak diren erakunde batzuei dagozkienak, baina, bigarren horiek direla eta, artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen diren baloreen gordailuzain gisa jarduten dutenean honako beste hauei dagokienez: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordaintzaileak, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta Espainian establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren ordaintzaileak (baldin eta, erregistro erakundeen erregistroetan jasotakoaren arabera, baloreen titular badira).

## 5. ATALA.
## EUROPAR BATASUNEKO KIDEAK DIREN BESTE ESTATU BATZUETAN EGOITZA DUTEN PERTSONA FISIKOEK LORTUTAKO ZENBAIT ERRENTARI BURUZ INFORMAZIOA EMAN BEHARRA.

### 56. artikulua. Aplikazio eremua.

...

### 57. artikulua.-Informazioa eman beharra dakarten errentak.

...

### 58. artikulua. Informazioa eman behar dutenak.

...

### 59. artikulua. Eman beharreko informazioa.

...

### 60. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu bateko egoiliar diren pertsona fisiko errenta-hartzaileen identifikazioa eta egoitza.

...

## 6. ATALA.
## BESTE INFORMAZIO BETEBEHAR BATZUK.

### 61. artikulua. Erakundeen eraketaz, ezarpenaz, aldaketaz eta azkentzeaz informazioa eman beharra.

Erregistro publikoen titularrek aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute hilero Zerga Administrazioari aurreko hilean eratu, ezarri, aldatu edo azkendu diren erakundeei buruz.

**62. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi ez duten edo notarioen esku hartzea duten egintza edo kontratuak jasotzen dituzten eskriturak edo dokumentuak egiterakoan erabilitako ordainketa moduak identifikatu ez dituzten pertsonei edo erakundeei buruzko informazio betebeharra.**

1. Notariotzaren Kontseilu Nagusiak informazio aitorpena aurkeztu beharko dio hilero zerga Administrazioari bide telematikoa erabilita. Bertan, bertaratu direnen izen-deiturak edo egintzak edo kontratuak formalizatzearen eskritura edo dokumentuak igortzerakoan ordezkari diren pertsona edo erakundeen izenak, eskritura edo dokumentu horien xedea ondasun higiezinen gaineko jabaria eta gainerako eskubide errealak aitortu, eratu, eskuratu, eskualdatu, aldarazi edo deuseztatzea edo zerga garrantzia duen beste edozein egintza edo kontratu bada eta horietan hurrengo inguruabarrak agertzen badira:

    a) Ez dutela jakinarazi identifikazio fiskaleko zenbakia.

    b) Ez dituztela identifikatu alderdiek erabilitako ordainketa moduak, kontraprestazio osoa edo zati bat dirua edo hura ordezkatzen duena izan bada.

2. Hil bateko eragiketei buruzko informazioa emateko aitorpena hurrengo hilean zehar aurkeztu behar da.

**63. artikulua. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jardueren ondoriozko diru-laguntzen eta kalte-ordainen berri eman beharra.**

1. Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basogintzako jardueren ondoriozko diru-laguntzak, kalte-ordainak edo laguntzak ematen edo onartzen dituzten erakunde publiko zein pribatuek urtean zehar kitatutako edo ordaindutako kopuruak jasotzen dituen aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioko organo eskudunari.

    Erakunde emaileak ez badauka egoitza Espainian, aurreko paragrafoan aipatutako betebeharra erakunde haren konturako diru-laguntzen, kalte-ordainen edo laguntzen kudeaketaren ardura daukan erakunde egoiliarrak bete behar du.

2. Aitorpenean, aitortzailearen identifikazio datuak eta aitorpenean sartutako diru-laguntza, kalte-ordain eta laguntzei dagokienez nola esku hartu duen zehazteaz gainera, hartzaileen zerrenda agertu behar da, datu hauekin:

    a) Izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendazio osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

    b) Ordaindutako diru-laguntzaren, kalte-ordainaren edo laguntzaren zenbatekoa, mota eta kontzeptua.

3. Diru-laguntza, kalte-ordain eta laguntzak aitorpenean agertzeko, ordainketa-agindua eman den egunean ordaindutzat joko dira. Ordainketa-agindurik ez badago, ordainketa egin denean ordaindutzat joko dira.

**64. artikulua.-Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenei buruzko informazioa eman beharra.**

Ondoko pertsona eta erakunde hauek urteko aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, azalduko diren datuekin:

a) Pentsio funtsen erakunde kudeatzaileek; funtsei atxikitako planen partaideak banaka sartu behar dituzte, bai eta haientzat egindako ekarpenen zenbatekoa ere (beraiek zuzenean eurentzat egindakoak eta baimendutako pertsonek edo planen sustatzaileek egindakoak batuta).

    Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan arautzen diren pentsio indibidualen produktu paneuroparren

sustatzaileak (erregelamendu hori pentsio indibidualen produktu paneuropar (PEPP) bati buruzkoa da), zeinek banaka sartuko baitituzte plan horietan aurreztaileak eta haiek PEPP kontu bakoitzean irekitako azpikontuetan egindako ekarpenen zenbatekoa.

b) Pentsio planen sustatzaileek, haietara ekarpenak egiten badituzte; ekarpenen onuradun izan diren partaideak banaka jaso behar dituzte, bai eta bakoitzak ekarritako zenbatekoa ere.

c) Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratuta egonik Espainiako legeriaren mende dauden enpleguko pentsio-planak garatzen dituzten pentsio-funtsek; funtsei atxikitako planen partaideak banaka sartu behar dituzte, bai eta haientzat egindako ekarpenen zenbatekoa ere (partaideek zuzenean eurentzat egindakoak eta baimendutako pertsonek edo planen sustatzaileek egindakoak batuta).

d) Pentsio konpromisoak aseguru kontratu baten bitartez (enpresen gizarte aurreikuspeneko planak salbu) antolatzen dituzten enpresek eta erakundeek; ekarpenen onuradun diren pertsonak eta bakoitzari dagokion zenbatekoa banaka sartu behar dituzte.

e) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planak formalizatzen dituzten aseguru erakundeek; aseguratuak banaka jaso behar dira, bai eta haientzat egindako ekarpenen zenbatekoa ere (beraiek zuzenean egindakoak eta planen hartzaileek egindakoak batuta).

f) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateek; mutualistak banaka jaso behar dira, bai eta beraiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauko 70. eta 72. artikuluetan eta zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera zerga horren zerga-oinarrian kenkaria eragin dezaketen inguruabarrak estaltzeko ordaindutako kopuruak ere.

g) Menpekotasuneko aseguru pribatuak, zerga oinarrian kenkaria eragin dezaketenak, merkaturatzen dituzten aseguru erakundeek; hartzaileak banakatuta jaso behar dira, bai eta primen zenbatekoak ere (beraiek zuzenean egindakoak eta baimendutako pertsonek egindakoak batera).

h) Bermatutako aurreikuspen planak merkaturatzen dituzten aseguru erakundeek; hartzaileak eta ordaindutako primen zenbatekoak banakatuta jaso behar dira.

i) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek; bazkide bereziak eta arruntak eta haietako bakoitzak edo erakundeko bazkide babesleek egindako ekarpenen zenbatekoak banakotu behar dituzte.

j) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek, ekarpenak egiten badituzte; ekarpenen onuradun izan diren bazkide bereziak eta arruntak zehaztu behar dituzte, eta bakoitzaren ekarpenen zenbatekoa eta izaera ere bai.

**65. artikulua. Ondasun higiezinekin zerikusia duten finantza-eragiketei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Kreditu-erakundeek eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, banku- edo kreditu-trafikoan diharduten gainerako erakundeek maileguak ematen badituzte edo maileguok ematerakoan bitartekari-lanak egiten badituzte, edo ondasun higiezin bat edo ondasun higiezin baten gaineko eskubide erreal bat eskuratzeko bestelako finantzaketa moduren batean parte hartzen badute, urteko aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute halako eragiketei buruz, datu hauek zehaztuta:

   a) Mailegu-hartzaileen izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   b) Mailegu-emaileen sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Bitartekaririk egon bada, haien izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Ondasun higiezinen erosketarekin edo ondasun higiezinen gaineko eskubide errealen erosketarekin zerikusi zuzena duten beste finantza-eragiketa batzuetan parte hartu duten alderdien izen-deiturak edo sozietate izenak edo izendapen osoak, eta haien identifikazio fiskaleko zenbakiak.

e) Maileguaren edo eragiketaren zenbateko osoa, eta kapitalaren amortizazio, korritu eta gainerako finantza-gastuengatik urtean ordaindutako kopuruak, eta gauzazko ordainketaren zenbatekoa.

f) Mailegua edo eragiketa eratu den urtea eta haietako bakoitzaren iraunaldia.

g) Eragiketaren hartzaileak higiezina ohiko etxebizitzarako erabiltzeko asmoa adierazi duen ala ez.

h) Higiezinaren zenbaki finkoa edo katastroko erreferentzia.

i) Higiezinaren tasazio-balioa.

j) Maileguaren saldoa, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

2. Beren langileei ohiko etxebizitza eskuratzeko maileguak ematen dizkieten erakunde publikoek edo pribatuek urteko aitorpen informatiboa aurkeztu behar dute halako eragiketei buruz, datu hauek zehaztuta:

a) Mailegu-hartzaileen izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Mailegu-emaileen sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Maileguaren edo eragiketaren zenbateko osoa, eta kapitalaren amortizazioagatik eta korrituengatik urtean ordaindutako kopuruak, eta gauzazko ordainketaren zenbatekoa.

d) Mailegua edo eragiketa eratu den urtea eta haietako bakoitzaren iraunaldia.

e) Higiezinaren zenbaki finkoa edo katastroko erreferentzia.

f) Maileguaren saldoa, urte bakoitzeko abenduaren 31n.

**65 bis artikulua. Energia elektrikoa hornitzen duten enpresen informazio betebeharrak.**

Energia elektrikoa hornitzen duten enpresek ondoko datuak biltzen dituen aitorpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari urtero:

a) Hornikuntza kontratatu duen bakoitzaren izen- deiturak edo sozietate izena edo izendazio osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Fakturak hari barik beste bati kobratzen bazaizkio, beraren datuak adierazi behar dira.

b) Higiezinaren katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa eta kokapena.

c) Kontratatutako potentzia izendatua eta urteko kontsumoa (kilowatt-ordutan).

d) Hornikuntza-puntuaren kokapena.

e) Hornikuntzaren altaren data.

**65 ter artikulua. Atzerrian dauden ondasun higiezinei edo ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Bai Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo erakunde ez-egoiliarrek lurralde horretan dituzten establezimendu iraunkorrek, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeek ere atzerrian dauden ondasun higiezinei edo ondasun higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa eman behar diote Bizkaiko Foru Ogasunari, urteko aitorpen informatibo baten bidez, baldin eta ondasun-eskubideon titularrak badira edo Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen denarekin bat ondasun-eskubideon titular errealtzat jotzen badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izango da.

2. Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

   a) Higiezinaren identifikazioa: haren tipologia zehaztu behar da, labur.

   b) Higiezinaren kokapena: herrialde edo lurraldea, udalerria, kalea eta zenbakia.

   c) Eskuraketa-data.

   d) Eskuraketa-balioa.

3. «Multijabetza» kontratuen, txandaka aprobetxatzeko kontratuen, denbora partzialeko jabetza-kontratuen edo antzeko formulen kontratuen titulartasunari dagokionez, aurreko zenbakiko a) eta b) letretako informazioaz gainera adierazi behar da eskubideok zein datatan eskuratu ziren eta zer balio duten abenduaren 31n, Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko balorazio-arauak erabiliz.

4. Atzerrian dauden ondasun higiezinen gaineko erabilera edo luperketako eta jabetza soileko eskubide errealen titulartasunari dagokionez, aurreko 2. zenbakiko a) eta b) letretako informazioaz gainera adierazi behar da titulartasuna zein datatan eskuratu zen eta zer balio duen abenduaren 31n, Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko balorazio-arauak erabiliz.

5. Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko 1. zenbakiaren arabera higiezinaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, aurreko 2. zenbakiko datuez gainera, aitorpen informatiboan adierazi behar da zer egunetan eskualdatu zen higiezina edo balioa eta zein izan zen eskualdaketa-balioa.

6. Artikulu honetan ezartzen den informazioa emateko beharra ez da aplikatuko atzerrian dauden honako higiezin eta higiezinen gaineko eskubide hauei dagokienez:

   a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluan aipatzen diren erakundeak titular dituzten guztiak.

   b) Haien titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak nahiz ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Higiezin-eskubideok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta behar bezala identifikatuta.

   c) Haien titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar diren pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Higiezin-eskubideok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta behar bezala identifikatuta.

d) Ez da egongo higiezinen edo higiezinen gaineko eskubideei buruzko informazioa eman beharrik, baldin eta artikulu honetako 2. zenbakiko d) letran aipatzen diren balioen eta 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren balioen batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa. Baterako muga hori gainditzen bada, higiezin nahiz higiezinen gaineko eskubide guztien berri eman beharko da.

7. Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 6. zenbakiko d) letran aipatzen den batura 20.000 euro baino gehiago hazi bada aurreko aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten balioarekin alderatuta.

   Edozelan ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da artikulu honetako 5. zenbakian zehazten diren kasuetan, haien gaineko titulartasuna abenduaren 31an iraungita zegoen higiezin eta eskubideei dagokienez.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartuko du bai zer aitorpen-eredu aurkeztu behar den, bai aitorpen hori non eta zer epetan aurkeztu behar den, bai eta, hala badagokio, behar hori zer kasu eta baldintzatan bete behar den edo ordenagailuan zuzenean irakur daitekeen euskarrien bidez edo bitarteko telematikoen bidez.

8. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari dagokionez, datu-multzo ezberdinak dira artikulu honetako 2. zenbakiko a) eta b) letretan aipatzen diren informazioak, 2. zenbakian aipatzen den higiezin bakoitzari dagokionez eta aurreko 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren eskubideak eratzen diren higiezin bakoitzari dagokionez.

   Ondorio bererako, datutzat hartuko dira hauek:

   a) 2. zenbakiko c) eta d) letretan aipatzen den data eta balio bakoitza, higiezin bakoitzari dagokionez.

   b) 3. zenbakian aipatzen den data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

   c) 4. zenbakian aipatzen den data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

   d) 5. zenbakian aipatzen den eskualdaketa-data eta -balio bakoitza, higiezin bakoitzari dagokionez.

**65 quater artikulua. Atzerrian dauden edo atzerrian matrikulatuta dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden ondasun higigarriei edo ondasun higigarrien gaineko eskubideei buruzko informazioa eman beharra.**

1. Bai Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona fisikoek eta juridikoek, bai pertsona edo erakunde ez-egoiliarrek lurralde horretan dituzten establezimendu iraunkorrek, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan aipatzen diren erakundeek ere ondasun eta eskubide jakin batzuei buruzko informazioa eman behar diote Bizkaiko Foru Ogasunari, urteko aitorpen informatibo baten bidez, baldin eta ondasun-eskubideon titularrak badira edo Kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen denarekin bat ondasun-eskubideon titular errealtzat jotzen badira. Informazio hori guztia urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzkoa izango da, eta honako ondasun-eskubide hauen gainekoa:

   a) Ondasun higigarriak eta haien gaineko eskubideak, haien balio unitarioa 50.000 euro baino handiagoa bada eta atzerrian badaude edo egon badira.

   b) Ondasun higigarriak eta haien gaineko eskubideak, atzerrian matrikulatuta badaude edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota badaude.

2. Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

a) Ondasun higigarriaren identifikazioa: haren tipologia zehaztu behar da, labur.

b) Ondasun higigarriaren kokapena: herrialde edo lurraldea.

c) Zein erregistrotan dauden inskribatu edo matrikulatuta: Erregistroa eta inskribatu edo matrikulatuta dagoen herrialde edo lurraldea.

d) Eskuraketa-data.

e) Eskuraketa-balioa.

3. Atzerrian dauden ondasun higigarrien gaineko erabilera edo luperketako eta jabetza soileko eskubide errealen titulartasunari dagokionez, aurreko 2. zenbakiko a), b) eta c) letretako informazioaz gainera adierazi behar da titulartasuna zein datatan eskuratu zen eta zer balio duen abenduaren 31n, Ondarearen gaineko Zergari buruzko 2013ko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauko balorazio-arauak erabiliz.

4. Aitorpenari dagokion urteko edozein unetan aurreko 1. zenbakiaren arabera ondasun higigarriaren edo eskubidearen titular edo titular erreal izan diren eta urte horretako abenduaren 31n izaera hori galduta duten zergapekoek ere informazioa eman beharra izango dute. Halakoetan, 2. zenbakiko datuez gainera, aitorpen informatiboan adierazi behar da zer egunetan eskualdatu zen ondasun higigarria edo balioa eta zein izan zen eskualdaketa-balioa.

5. Artikulu honetan ezartzen den informazioa emateko beharra ez da aplikatuko atzerrian dauden edo atzerrian matrikulatuta dauden edo atzerriko herrialdeetako erregistroetan jasota dauden honako ondasun higigarri eta ondasun higigarrien gaineko eskubide hauei dagokienez:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 12. artikuluan aipatzen diren erakundeak titular dituzten guztiak.

b) Haien titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoan egoiliarrak diren pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak nahiz ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrak. Higiezin-eskubideok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta behar bezala identifikatuta.

c) Haien titularrak hauek badira: Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar diren pertsona fisikoak, jarduera ekonomiko bat egiten badute eta kontabilitatea Merkataritza Kodean ezarritakoaren arabera egiten badute. Higiezin-eskubideok, dena dela, modu indibidualizatuan egon behar dute erregistratuta haien kontabilitatean eta behar bezala identifikatuta.

d) Ez da egongo ondasun higigarrien edo ondasun higigarrien gaineko eskubideei buruzko informazioa eman beharrik, baldin eta artikulu honetako 2. zenbakiko e) letran aipatzen diren balioen eta 3. zenbakian aipatzen diren balioen batura ez bada 50.000 euro baino handiagoa.

6. Ondoz ondoko urteetan nahitaezkoa izango da aitorpena aurkeztea, baldin eta aurreko 5. zenbakiko d) letran aipatzen diren batura 20.000 euro baino gehiago hazi bada aurreko aitorpena aurkeztu beharra eragin zuten balioarekin alderatuta.

   Edozelan ere, aitorpena nahitaez aurkeztu behar da artikulu honetako 4. zenbakian zehazten diren kasuetan, haien gaineko titulartasuna abenduaren 31an iraungita zegoen ondasun higigarriei eta eskubideei dagokienez.

   Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartuko du bai zer aitorpen-eredu aurkeztu behar den, bai aitorpen hori non eta zer epetan aurkeztu behar den, bai eta, hala badagokio, behar hori zer kasu eta baldintzatan bete behar den edo ordenagailuan zuzenean irakur daitekeen euskarrien bidez edo bitarteko telematikoen bidez.

7. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari dagokionez, datu-multzo ezberdinak dira artikulu honetako 2. zenbakiko a), b) eta c) letretan aipatzen diren informazioak, 2. zenbakian aipatzen den ondasun higigarri bakoitzari dagokionez eta aurreko 3. zenbakian aipatzen diren eskubideak eratzen diren ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

   Ondorio bererako, datutzat hartuko dira hauek:

   a) 2. zenbakiko d) eta e) letretan aipatzen den data eta balio bakoitza, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

   b) 3. zenbakian aipatzen den data eta balio bakoitza, eskubide bakoitzari dagokionez.

   c) 4. zenbakian aipatzen den eskualdaketa-data eta -balio bakoitza, ondasun higigarri bakoitzari dagokionez.

**65 quinquies artikulua. Hiri-finken errentamenduei buruzko informazioa emateko betebeharra.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak urteko aitorpen informatiboa aurkeztu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan jasotako datuei buruz eta fidantzen gordailuari buruz, Fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzko 2016ko martxoaren 15eko 42/2016 Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Hain zuzen, aitorpen horretan agertu beharko dira, besteak beste, errentatutako ondasun higiezinen identifikazio-datuak, errentatzaileen zein errentarien zerrenda izenduna, eta kasuan kasuko eredua onartzeko foru-aginduan zehazten den gainerako informazioa.

**65 sexties artikulua. Erabilera turistikorako etxebizitzen lagapenari buruzko informazioa emateko betebeharra.**

1. Etxebizitzak erabilera turistikorako —hurrengo zenbakian ezarritakoaren arabera— lagatzen dutenen eta lagapen-hartzaileen artean bitartekari aritzen diren pertsonek eta erakundeek, aldian-aldian, bitartekari gisa jarduten duten lagapenei buruzko aitorpen informatiboa aurkeztu beharko dute.

2. Artikulu honetan zehazten den aitorpen informatiboaren ondorioetarako, ulertuko da erabilera turistikorako etxebizitzak izango direla Eusko Legebiltzarrak emandako Turismoaren 2016ko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 53. artikuluko 1. zenbakian aipatutakoak eta 13/2016 Lege horren 54. artikuluko 1. zenbakian erabilera turistikorako jasotako etxebizitza partikularretako gelak.

   Hauek geratzen dira kontzeptu honetatik kanpo: etxebizitzaren errentamendua, Hiri-errentamenduen 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legean definitutako moduan, etxebizitzaren azpierrentamendu partziala, lege beraren 8. artikuluan jasoa, eta ondasun higiezinen txandakako aprobetxamendurako eskubidea.

3. Bitartekaritzat joko dira aurreko zenbakian aipatzen den erabileraren lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko bitartekaritza-zerbitzua, kostu bidez edo dohain, ematen duten pertsonak edo erakundeak.

   Bereziki, halakotzat joko dira plataforma kolaboratibo gisa eratuta dauden pertsonak edo erakundeak bitartekari gisa aritzen badira aurreko zenbakian aipatzen den erabilera-lagatzean eta informazio-gizarteko zerbitzu-emaileak ere badira, 2002ko uztailaren 11ko 34/2002 Legeak ezarritakoaren arabera (lege hori informazio-gizartearen zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzkoa da); horretarako ez da kontuan hartuko ea bitartekaritzaren xede den zerbitzua ematen duen edo ea baldintzak (esaterako, prezioa,

aseguruak, epeak edo beste kontratu-baldintza batzuk) ezartzen dizkien lagatzaileei edo lagapen-hartzaileei.

4. Aitorpen informatiboak honako datu hauek jasoko ditu:

   a) Erabilera turistikorako lagatako etxebizitzaren titularraren identifikazioa, bai eta etxebizitza erabilera turistikorako lagatzeko erabiltzen den eskubidearen titularrarena ere (beste bat bada).

      Identifikazioa egiteko, izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman behar da edo, bestela, dagokion aitorpen- eredua onartzen duen foru-aginduak ezarritako eran.

      Ondorio horietarako, honako hauek joko dira lagatzen den eskubidearen titulartzat: erabilera turistikorako lagatako etxebizitzaren jabetza-eskubidearen titularrak, edo etxebizitza horien gaineko «multijabetza» kontratuen, denbora partzialeko jabetza-kontratuen edo antzeko formulen kontratuen titularrak, edo erabilera turistikorako etxebizitza horien gaineko errentamendu- edo azpierrentamendu- kontratuen edo bestelako erabilera- edo luperketa-eskubideen titularrak, baldin eta titularrok badira, azken buruan, etxebizitza horren erabileraren lagatzaileak.

   b) Higiezinaren identifikazioa, katastroko erreferentzia edo zenbaki finkoa zehaztuta, edo, bestela, dagokion aitorpen-eredua onartzen duen foru-aginduak ezarritako eran.

   c) Pertsona edo erakunde lagapen-hartzaileen identifikazioa, bai eta etxebizitza turismorako erabili duten egun kopurua ere.

      Identifikazioa egiteko, izen-abizenak edo sozietatearen izena edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia eman behar da, edo, bestela, dagokion aitorpen- eredua onartzen duen foru-aginduak ezarritako eran egingo da.

      Ondorio horietarako, etxebizitza erabilera turistikorako lagatzen dutenek zerbitzuaren erabiltzaile direnen identifikazio-agiriaren —arestian adierazitakoaren— kopia bat gorde beharko dute.

   d) Eskubidearen titularra den lagatzaileak etxebizitza erabilera turistikorako lagatzeko zerbitzua emateagatik jasotako zenbatekoa; prestazioa doakoa bada, halakoa dela adierazi behar da.

5. Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu baten bidez onartuko da aitorpena aurkezteko eredua, eta agindu horretan bertan zehaztuko da noiz, nola eta non aurkeztu behar den aitorpena. Halaber zehaztuko da xedapen hau betetzeko garrantzitsua den beste edozein datu.

# VII. TITULUA.
# BETEBEHAR FORMALAK BETETZEN DIRENEZ. EGIAZTATZEKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK.

## I. KAPITULUA.
## ZENTSU EGIAZTAPENERAKO JARDUKETAK. ETA PROZEDURAK.

### 66. artikulua. Zentsu egiaztapenerako jarduketak.

1. Zentsuetako alta, aldaketa eta baxa aitorpenetan (17 - 19 bitarteko artikuluak) adierazitako datuak egiaztatzeko, zergapekoak berak emandako edo aitortutako datuak eta Administrazioak dauzkan datuak hartuko dira kontuan eta gertaerak eta inguruabarrak aztertuko dira zergapekoen bulego, idazgu, lokal eta establezimenduetan, bertatik bertara eta agirien bitartez.

2. Zerga Administrazioak zentsu aitorpenak aurkezteko eta haiekin batera agiriak ekartzeko eska dezake, eta ondoren agiri gehiago ekartzeko eta antzemandako akatsak zuzentzeko, eta datuak ofizioz sar ditzake zentsuetan.

3. Zentsuko informazioan zerbait falta dela edo oker dagoela antzemanez gero, zergapekoaren zentsu egoeraren zuzenketa 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

4. Kapitulu honetan araupetutako zentsu egiaztapenerako jarduketak egin arren, zergapekoek berdin-berdin bete behar dituzte gainerako zerga betebeharrak.

5. Zergapeko bat araudi honetako 69. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako kasuetako batean gertatzen bada, Zerga Administrazioak dirua itzuli beharra eragiten duten autolikidazioen itzulketa geldiarazi ahal izango du.

### 67. artikulua. Zentsua zuzentzeko prozedura.

1. Araudi honetako 68. eta 70. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, zentsu bat zuzentzeko prozedura Administrazioak zergapeko bati bere zentsu aitorpeneko datuetan antzemandako desadostasuna argitzeko edo azaltzeko agindeia eginez abiaraz daiteke.

2. Prozedura izapidetzean, Administrazioak 66. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan araupetutako jarduketak egin ditzake.

   Zergapekoak adierazten badu ez dagoela ados Administrazioak dauzka datuekin, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 106. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

3. Zentsua zuzentzeko prozedura modu hauetako batean amaituko da:

   a) Zergapekoaren zentsuko datuak zuzentzen dituen ebazpena emanez. Ebazpena arrazoitu egin behar da: kontuan izan diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak azaldu behar dira labur-labur.

   b) Zergapekoak agindeia eragin duen datu-desadostasuna zuzendu, argitu edo frogatuta; honelakoetan ez dago egongo berariazko ebazpena eman beharrik.

   c) Iraungita; izan ere, prozedura iraungitzat joko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 102. artikuluan ezarritako aldian hura azkentzen duen berariazko ebazpena ematen ez bada.

   d) Zentsuaren zuzenketaren xedea hartzen duen egiaztapen mugatuaren prozedura edo ikerketa prozedura bat abiarazita.

### 68. artikulua. Zentsua ofizioz zuzentzea.

1. Zerga Administrazioak ofizioz zuzendu ahal izango du zergapekoen zentsu egoera, aurreko artikuluan araupetutako prozedura instruitu gabe, zergapekoa xede izan duten zerga aplikaziorako jarduketa edo prozeduren ondorioz, hauetan zentsu kontroleko jarduketak egin badira eta zuzenketan ez bada kontuan hartzen prozedura horietakoez beste alegazio ez egitaterik.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren araberako zuzenketen berri eman behar zaie zergapekoei, ondoko kasuan izan ezik: urtebetetik gorako aldian zerga egoitzan jakinarazterik egon ez bada.

### 69. artikulua. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena.

1. Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia ezezta dezake, baldin eta zentsu egiaztapenerako jarduketetan (66. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan

xedatutakoarekin bat etorriz) edo egiaztapen eta ikerketako gainerako jarduketa eta prozeduretan ondokoak egiaztatzen badira, besteak beste:

a) Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleituta duen pertsona edo erakunde batek ez baditu aurkezten behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko behar diren agiri guztiak araudi honetako 34. artikuluan ezarritako epealdian; salbuespena: epealdi horretan behar bezala frogatzen badu agiriok ezin dituela aurkeztu.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 120. artikuluko 1. idatz-zatian erakundeen zerrendan behin-behineko baja emateko ezarrita dauden kasuak gertatzen badira.

c) Urtebetetik gorako aldian, eta hiru ahalegin gutxienez egin eta gero, zergapekoaren zerga egoitzan jakinarazterik egon ez bada.

d) Zergapekoa kaudimengabe edo huts egintzat jo eta sei hilabete baino gehiago pasatu badira.

e) Araudi honetako 17. eta 18. artikuluetan ezarritako aitorpenen bitartez Zerga Administrazioari jarduera ekonomiko faltsuen, egin ez direnen edo benetan egin direnak ez beste batzuen berri eman bazaio eragiketak ezkutatzeko, hain zuzen ere zerga betebeharrak bete ez direla edo bidegabeko mozkinak edo zerga itzulketak lortu direla agerian uzten duten eragiketak.

f) Egiaztatzen bada zergapekoak esku hartu duen eragiketen ondorioz haren zerga-betebeharren bat ez betetzea etor daitekeela edo zergapekoak behar ez bezalako zerga-onurak edo itzulketak lor ditzakeela Balio Erantsiaren gaineko Zergan.

g) Sozietatea pertsona batek edo batzuek eratu ondoren, identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzen denetik hiru hilabete pasatu baino lehen jarduera ekonomikoa ez egitea, ez jardueran aritzeko beharrezko prestakuntza jarduerak, epealdi horretan jarduera horiek egitea ezinezkoa dela behar bezala frogatu ezean.

   12.2.l) artikuluan araupetutako kasuan, aurrean azaldutako epealdia zentsuko aldaketa-aitorpena (20. artikuluko 2. idatz- zatiko hirugarren paragrafoan ezarri den bezala) aurkezten denetik zenbatuko da.

h) Kapital bat hainbat sozietate eratzeko erabili dela eta, ondorioz, denak kontuan hartuta, aplikatu beharreko arautegian ezarritako gutxieneko ordainketa ez dela egin egiaztatzen bada.

i) Jarduera ekonomikoetan, administrazio kudeaketan edo negozio zuzendaritzan aritzeko ezarritako egoitza faltsua bada, jarduera edo lan horiek beste batean zergatik egiten diren azaldu gabe.

j) Zerga jarduketa edo prozedura batean egiaztatzen bada ez dela jarduera ekonomikorik egin, edo sozietateak ez duela aitortutako xedea, edo jarduera bizilekuan egiten dela, edo zerga egoitzan ez dagoela kokatuta administrazio kudeaketa ez negozioen zuzendaritza.

2. Identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu baino lehen ezeztapena eragiten duen inguruabarren bat gertatzen bada, zenbakia ukatuko da.

3. Identifikazio fiskaleko ezeztatzeko erabakia biltzen duen ebazpen proposamena zergapekoari jakinaraziko zaio, nahi dituen alegazioak aurkez ditzan.

4. Ezeztapena «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu behar da eta zergapekoari jakinarazi behar zaio.

Argitalpena Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 110.1. artikuluan bertaratutako jakinarazteko ezarritako egun berean egin behar da.

5. Pertsona juridikoei edo erakundeei esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak berekin ekarriko du bidezko (erakundearen erakunde motaren arabera) erregistro publikoak erakundearen orrian alboko idaztoharra egitea adierazteko ordutik aurrera ezin izango dela horren gaineko inskripziorik egin, zenbakia birgaitu edo identifikazio fiskaleko zenbaki berria eman ezean.

   Halaber, kreditu erakundeek ezin izango dute kargurik edo ordainketarik egin identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatu zaien nortasunik gabeko pertsona juridikoek edo erakundeek dituzten kontu edo gordailuetan, harik eta zenbaki hori birgaitu edo pertsona juridiko nahiz erakunde horri identifikazio fiskaleko zenbaki berria eman arte.

   Idatz-zati honetan xedatutakoak ez du eragozten erakundeak gainerako zerga betebeharrak bete behar izatea, eta horretarako ezeztatutako identifikazio fiskaleko zenbakia erabiliko da aldi batez.

6. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren ezeztapenak ez du eragotziko zerga betebeharrak egunean daudelako ziurtagiria ematea.

7. Identifikazio fiskaleko zenbaki bat ezeztatu ondoren, Zerga Administrazioak berriz ere gaitu ahal izango du, erabaki baten bidez. Erabakia artikulu honen 4. zenbakian ezeztapen-erabakietarako ezarritakoari lotuz argitaratu behar da.

   Identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko eskabideak bakarrik izapidetuko dira baldin eta egiaztatzen bada desagertu egin direla zenbaki hori ezeztatzea eragin zuten arrazoiak eta, sozietateen kasuan, komunikatzen bada, gainera, nork duen sozietatearen kapitalaren titulartasuna; halaber, osorik identifikatu behar dira sozietatearen legezko ordezkariak zein zerga-egoitza, eta sozietateak egingo duen jarduera ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa ere eman behar da. Baldintza horiek guztiak betetzen ez badira, eskabideak artxibatu egingo dira, besterik gabe.

   Identifikazio fiskaleko zenbaki bat birgaitzeko eskabidea berariaz ebazten ez bada hiru hilabetean, eskaera ukatutzat jo beharko da.

**70. artikulua. Batasunaren barruko eragileen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroan kautelaz sartzea eta baxa ematea.**

1. Zerga Administrazioak erabaki arrazoituaren bitartez uka dezake zergapeko bat Batasunaren barruko Operadoreen Erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen Erregistroan eta Fabrikazioaren gaineko Zerga Berezien lurralde erregistroan sartzea, baldin eta horretarako eskabidea aurkezten denean honako inguruabar hauetariko bat gertatzen bada:

   a) Aurreko artikuluko 1. zenbakian ezarritako kasuetako edozein.

   b) Tributuak aplikatzeko edozein jarduketaren edo prozeduraren jakinarazpenean ez bada jakiterik egon zergapekoa nor den.

2. Zerga Administrazioko organo eskudunak, erabaki arrazoituaren bitartez eta organo proposatzaileak txostena egin ondoren, zergapeko bati Batasunaren barruko eragileen erregistroan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroan eta fabrikazioaren gaineko zerga berezien lurralde erregistroan kautelaz baxa ematea agindu dezake ondoko idatz-zatian ezarritako kasuetan.

   Aurreko idatz-zatiko kasuetan, kautelazko baxa behin betiko bihurtuko da zergapekoaren zentsu zuzenketa araudi honetako 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz egiten bada.

## II. KAPITULUA.
## ZERGA EGOITZA EGIAZTATZEKO PROZEDURA.

### 71. artikulua. Zerga egoitza egiaztatzea.

1. Zerga egoitza egiaztatzeko prozedura ofizioz abiaraziko du Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak, bere ekimenez edo beste organo batek eskatuta.

2. Zergapeko baten zerga egoitza egiaztatzeko, zergapekoak berak emandako edo aitortutako datuak eta Administrazioak dauzkan datuak hartuko dira kontuan, bai eta zergapekoari edo hirugarrenei eskatzen zaizkien datuak eta frogagiriak ere, eta gertaerak eta inguruabarrak aztertuko dira zergapekoaren bulego, idazgu, lokal eta establezimenduetan, bertatik bertara eta agirien bitartez.

3. Behin prozedura hasiz gero, behar diren instrukzio-egintzak burutuko dira. Prozeduran, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97. artikuluan zergen arloko jarduketez eta prozedurez ezarritako arau bereziak aplikatuko dira. Aintzat hartu ahal izango dira zergak aplikatzeko prozeduretan bildu edo eskuratutako datu, froga eta inguruabar guztiak.

   Zerga egoitza egiaztatzeko prozedura izapidetzeko eskumena daukan organoak txostena eskatu ahal izango die administrazio bera zein beste administrazio publikoetako organo guztiei.

4. Espedientea instruitutakoan ebazpena emango du prozedura abiarazi duen organoak, eta zergapekoari jakinaraziko zaio. Bertan aitortutako zerga egoitza berretsi edo zuzenduko da, eta erabakia hartzeko kontuan hartutako gertaerak eta inguruabarrak azalduko dira.

5. Artikulu honetan zerga egoitza egiaztatzeko araupetutako prozedura azkentzen duen ebazpenari berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, bai eta ekonomia-administraziozko erreklamazioa ere.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehenengoa. Informazio betebehar orokorrak.

1. Araudi honetako VI. tituluko II. kapituluan xedatutakoa 2009. urteko informazioari aplikatuko zaio, ondoko idatz-zatietako salbuespenekin.

2. Erregistro liburuetako eragiketei buruzko informazioa eman beharra (araudi honetako 47. artikulua) hileko itzulketen erregistroan inskribatuta dauden Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek soilik bete beharko dute 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera. Gainerako zergapekoek, berriz, 2014. urtean bete beharko dute lehenengoz informazioa emateko behar hori, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak horretarako ezarritako modu, epe eta gainerako alderdiekin bat etorriz.

3. Araudi honetako 65. artikuluko g), h) eta i) idatz-zatietan xedatutakoa 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eragiketei buruzko informazioari aplikatuko zaio.

### Bigarrena. Zentsu aitorpena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren aitorpenaren ordez aurkeztea.

Araudi honetako 22.3. artikuluan ezarritakoa, hau da, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsitako zergapekoek zerga horren aitorpenen ordez zentsu aitorpena aurkeztu ahal izatea, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

**Hirugarrena. Errenta finkoko tresna batzuen tratamendua Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoiliartutako pertsona fisikoen informazio betebeharren ondoreetarako.**

…

**Laugarrena. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa.**

Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat, araudi honen 39 artikuluko 5 zenbakian, 39 duodecies artikuluan zein 39 terdecies artikuluan Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoari buruz egiten diren erreferentziak Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudiaren 42. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen den BizkaiBai zerbitzuari buruz egindakotzat joko dira (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2009ko uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), harik eta Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu telematikoak egoitza elektroniko horretan txertatu arte.

**Bosgarrena. 2018ko urtarrilari eta otsaileko lehenengo hamabostaldiari buruzko informazioa hornitzea.**

Araudi honen 39 terdecies artikuluan ezarritakoa gorabehera eta zergapekoek egoki inplementatu ahal ditzaten informazioa hornitzeko beharrezkoak diren sistema informatikoak, 2018ko otsailaren 20ra arte luzatutzat joko dira 2018ko urtarrilean eta 2018ko otsaileko lehenengo hamabost egun naturaletan amaitzen diren informazioa hornitzeko epeak.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa. Kanarietan, Ceutan eta Melillan hirugarrenekin egindako urteko aitorpena.**

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 68, 69 eta 70. artikuluetan xedatutakoaren arabera Kanariar uharteetan, Ceutan eta Melillan egindakotzat jotzen diren eragiketak araudi honetan xedatutakoaren arabera agertaraziko dira eragiketen urteko aitorpenean. Eragiketa horiei ezin zaie aplikatu araudi honetako 45. artikuluko 2. idatz-zatiko c) paragrafoan xedatutakoa. Horretarako, hauxe izango da kontraprestazioaren guztirako zenbatekoa: Kanariar uharteetako Zeharkako Zerga Orokorraren zerga oinarria edo Ceuta eta Melillako Ekoizpen, Zerbitzu eta Inportazioaren gaineko Zergaren zerga oinarria, kasuan kasukoa, zehazteko indarreko arauak aplikatzearen emaitza.

Foru dekretu honetan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruz egindako aipamen guztiak Kanariar uharteetako Zeharkako Zerga Orokorrari edo Ceuta eta Melillako Ekoizpen, Zerbitzu eta Inportazioaren gaineko Zergari doazkiela pentsatu behar da, Kanarietan edo Ceuta eta Melillan, hurrenez hurren, egindakotzat jotzen diren eragiketetarako.

Eragiketa horiei dagokienez, ez dira eskatuko araudi honetako 43.1. artikuluko b) paragrafoan Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi batzuez ezarritako betekizunak.

**Bigarrena. Europar Batasuneko egoiliarren nortasuna eta egoitza egiaztatzeko prozeduren aplikazioa.**

...

**Hirugarrena. Erakunde batzuen aktiboaren osaera.**

...